

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 12a

1. ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—2014ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2014ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak igorri duela 2014ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena,

**ERABAKI DA:**

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **2014ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- |   |   |
|---|---|
| <p><b>I.</b> Sarrera (4. or.).</p> <p><b>II.</b> Foru Sektore Publikoa (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Foru Sektore Publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera. (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Sektore Publikoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren eraginetarako. (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.3. Araudia (9. or.).</p> <p><b>III.</b> Helburua (10. or.).</p> <p><b>IV.</b> Norainokoa (11. or.).</p> <p><b>V.</b> Iritzia (12. or.).</p> | <p>V.1. Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko urteko kontuei buruzko finantza-iritzia. (12. or.).</p> <p>V.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (13. or.).</p> <p>V.3. 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (13. or.).</p> <p>V.4. Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna (14. or.).</p> <p>V.5. Gomendioen jarraipena (17. or.).</p> <p><b>VI.</b> Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen laburpena (2014). (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. 2014ko aurrekontuaren likidazioa (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. 2014ko ekitaldiaren aurrekontu-emaizta (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. 2014ko abenduaren 31ko diruzaintzagerakina (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. 2014ko emaitzen kontua (21. or.).</p> <p><b>VII.</b> Egindako lanaren azterketa (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.1. Nafarroako 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.2. 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.3. Langile-gastuak (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.4. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (29. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.5. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital-transferentziengatiko gastuak (33. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.6. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa (40. or.).</p> |
|---|---|

VII.7. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak (45. or.).

VII.8. Inbertsio errealak besterentzea (48. or.).

VII.9. Zordunak (49. or.).

VII.10. Diruzaintza (50. or.).

VII.11. Finantza-eragiketak (51. or.).

VII.12. Sozietate eta Fundazio Publikoak (55. or.).

Informazio eranskina. Foru Komunitateko Administrazioaren finantzen 2015eko uztailearen 31ko behin-behineko egoera. (58. or.).

Sarrera (58. or.).

Ondorioak (58. or.).

Eranskina. 2014ko Kontu Orokorraren oroitidazkiaren laburpena.

2014ko Kontu Orokorraren oroitidazkiaren laburpena foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, araubidetzat duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatuari jarraikiz, Nafarroako 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorrek fiskalizatu ditu. Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2015erako onetsi zuen urteko programan.

Nafarroako 2014ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuak 2015eko ekainaren 24ko erabakiaren bitartez onetsi zen, eta Nafarroako Parlamentura igorri zen, foru legea onets zezan.

Landa-lana auditoriako zazpi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek egin zuen 2015ean, hiru hilabetez. Talde horrek, bestetik, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalak foru sektore publikoaren osaketa deskribatzen du, bai foru araudiaren eraginetarako, bai aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren eraginetarako ere. Hirugarren atalean, fiskalizazioarekin lotu nahi izan diren helburuak erakusten dira; laugarrenean, berriz, lanaren norainokoa deskribatzen da. Bosgarrenak jasotzen du 2014ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek duten iritzia. Seigarren atalean, laburpen bat jasotzen da kontu horien kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenei buruz. Zazpigarren eta azkenak egindako lanaren analisi zehatza dauka, foru administrazioaren eta haren erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publikoen kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioekin.

Foru Komunitateko Administrazioaren finantzen 2015eko uztailaren 31ko behin-behineko egoerari buruzko informazio-eranskin bat gehitu dugu.

Txostenarekin batera, 2014ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruz Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egindako oroitidazkiaren laburpen bat ageri da. Nafarroako Kontu Orokorrek hemen ikus daitezke: [http://www.navarra.es/Presupuestos/Cuentas\\_Generales\\_de\\_Navarra/Cuentas\\_Generales\\_de\\_Navarra\\_del\\_año\\_2014](http://www.navarra.es/Presupuestos/Cuentas_Generales_de_Navarra/Cuentas_Generales_de_Navarra_del_año_2014)

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko, haren erakunde autonomoetako eta haren sozietate eta fundazio publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. FORU SEKTORE PUBLIKOA

Atal honetan, lehenbizi, foru sektore publikoaren zedarrantzea ageri da, 2014koa, bi aldetatik:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.
- Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eraginetarako.

### II.1. FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4KO 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA.


Foru Sektore Publikoa honakoek osatzen dute, 13/2007 Foru Legearen arabera:

- Foru Komunitateko Administrazioa eta hari atxikitako erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- Nafarroako Foru Komunitatearen sozietate publikoak eta haren erakunde publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean xedatuari jarraikiz.

Lege horren arabera, sozietate horiek dira Foru Komunitatearen Administrazioak edota haren erakunde publikoek, zuzenean edo zeharbidez, haien kapital sozialaren gehiengo absolutua dutenak; era berean, sozietate publikotzat hartzen dira Foru Komunitatearen Administrazioak edota haren erakunde publikoek sozietate horietako administrazio-, zuzendaritza- edota zaintza-organoetako kideen erdia baino gehiago izendatzeko ahalmena dutenak; edota sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa dutenak.

• Fundazio publikoak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek beren eskumeneko xedeak betetzeko sortutakoak, baldin eta beren sorrerako ondarearen gehiengoa sortzailearen zuzeneko nahiz zeharkako ekarpenen bitartez eratu bada. Halaber, halakotzat jotzen dira sortu ziren garaian izaera pribatua izan arren, horrekin batera beren gobernu organoetan Administrazioaren ordezkartzak gehiengoa osatzearen baldintza betetzen dutenak.

Hauxe zen foru sektore publikoaren 2014ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa:



- 2014ko abenduaren 31n, bederatzi erakunde autonomo daude Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari atxikiak.
- 2014ko abenduan Foru Komunitateko Administrazioak 16 enpresaren partaidetzen gehien-goia zeukan (17 enpresa 2013an). Zuzenean parte hartzen zuen Corporación Pública Empresarial, de Navarra, S.L.U. (CPEN) enpresan, zeinean kapitalaren ehuneko 100 baitzeukan, eta, zeharka, berriz, CPENen bitartez, hurrengo 15 sozietate hauetan:

Enpresa publikoa	Partaidetzaren ehunekoa CPEN	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación, SLU (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, SAU (CNAI)	100	Hezkuntza eta dohainak
Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SLU (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra, SAU (GAN)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SAU (INTIA)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Natural Clymate Systems,SA (MIYABI)	66	Enpresak ezagutarazi eta sustatzea
Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, SL (NICDO)	100	Azpiegitura tematikoak, kulturalak, aisialdiak eta kirolak
Navarra de Infraestructuras Locales, SAU (NILSA)	100	Tokian tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías, SAU (NASERTIC)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda, SA (NASUVINSA)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza, SAU	100	Ingurumen jarduera eta industria ehundura berrosatzea
Salinas de Navarra, SA	76	Gatza eta haren eratorriak produzitzea eta merkaturatzea
Sociedad de Desarrollo de Navarra, SL (SODENA)	100	Ekonomiaren sustapena eta finantzaketa
Start Up Capital Navarra, SA	59,36	Enpresak ezagutarazi eta sustatzea
Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)	100	Ogasuna eta ondarea

2014an, Agencia Navarra del Transporte y la Logística, S.A.U.ren (xurgatua) xurgatze bidezko bategitea gertatu zen, Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.U.k (xurgatzailea) xurgatu baitzuen.

- Honakoak ziren Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio publikoak 2014an:

Fundazioa	Helburua
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberitzea
Energia Berriztagarrietarako Prestakuntza	Langileen lanbide-heziketa, energia berriztagarrien sektorea garatzeko.
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	Nafarroako ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea sustatzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	Nafarroako enpresetan –publikoetan zein pribatuetan–kalitate-zerbitzuak sustatzea.
Pertsona Helduen Tutoretza	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza

2014an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen agintzea has zitezela Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioa azkentzeko prozedurak, bai eta Energia Berriztagarrietarako Prestakuntza fundazioaren estatutuak aldatzea ere, Administrazio Publikoa haren patronatutik kentzeko.

2014ko maiatzaren 28an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua fundazio publikoa azkentzea.

2014ko abenduaren 29an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioaren estatutuak aldatzea, fundazio pribatua izan zedin.

Honakoak dira Foru Sektore Publikoa osatzen duten entitateen datu ekonomiko garrantzitsuenak (euroak, milioitan) eta 2014ko abenduaren 31n zeuzkaten langileenak, Kontu Orokorren oroitazkian zabalduak eta komentatuak:

- Foru Komunitateko Administrazioa.

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak
Departamentuak	691,58	2.632,04
Erakunde autonomoak	3.164,40	1.171,52
<b>Guztira</b>	<b>3.855,98</b>	<b>3.803,56</b>

- Sozietate publikoak.

Gizartea	Ekitaldiko emaitza	Foru Administrazioaren diru-laguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
16 sozietate publikoak, guztira	3.358,52	5.854,12	224.649,74	816.513,99	1.038

- Fundazioak.

Fundazioak	Ekitaldiko soberrakina	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
7 fundazio publikoak, guztira	-651,21	8.519,61	80,51

- Beste entitate batzuk.

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Foru Ogasunari itzulitako gerakina	Langileak, 2014-12-31n
Nafarroako Parlamentua	12.531.560	10.471.684	2.027.837	67
Kontuen Ganbera	2.584.899	2.436.228	164.541	36
Arartekoa	774.836	640.687	134.148	7
Nafarroako Kontseilua	369.677	273.305	96.372	2

## II.2. SEKTORE PUBLIKOA, AURREKONTU-EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO APIRILAREN 27KO 2/2012 LEGE ORGANIKOAREN ERAGINETARAKO.

2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, sektore publikoa honako unitateek osatuko dute:

**A1)** Administrazio Publikoaren Sektorea, Europako Nazioetako eta Erregioetako Kontuen Sistemaren arabera definitua; bertan sartuta dago, besteak beste, autonomia erkidegoen azpisektorea. Azpisektore hori, foru erkidegoaren kasuan, merkatuz besteko honako unitate instituzionalek osatzen dute:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Kontseilua.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

• Gehienez merkataritza bidezko diru-sarrerez finantzatzen ez diren Foru Komunitatearen sozietate publikoak. Zehazki, Foru Administrazioak partaidetzaren gehiengoa duen 16 sozietateetatik hurrengo 11 jotzen dira administrazio publikotzat: Centro Europeo de Empresa e Innovación, SLU; Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, SAU; Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SLU; Corporación Pública Empresarial de Navarra, SLU; Gestión Ambiental de Navarra, SAU; Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SAU; Navarra de Infraes-



estructuras de Cultura, Deporte y Ocio, SL; Navarra de Servicios y Tecnologías, SAU; Sociedad de Desarrollo de Navarra SL; Start Up Capital Navarra, SA, eta Trabajos Catastrales, SA.

- Fundazioak: zazpi fundazio publikoak sartzten dira, honako bost hauetaz gainera: Pablo Sarasate Fundazioa, Cener-Ciemat Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Itoiz-Canal de Navarra Fundazioa<sup>1</sup>, Centro de Recursos Ambientales de Navarra Fundazioa<sup>2</sup>. Guztira, 12 fundazio dira.

**B2)** Halaber, Administrazio Publikoaren menpeko gainerako merkataritza-sozietate eta zuzenbide publikoko enteak, Administrazio Publikoaren Sektorean sartzten ez direnak, sektore publikotzat hartuko dira.

Laburbilduz, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren eraginetarako, Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legean araututako foru sektore publikoaz bereizten da; izan ere, azken horretan Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Foru Komunitateko 16 sozietate publikoetatik 11 eta bost fundazio sartzten dira, zazpi fundazio publikoez gainera.

### II.3. ARAUDIA

2014ko ekitaldian Foru Ogasunari aplikatzekoa zizaion oinarrizko araudia, funtsean honakoek osatzen dute: 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea; Nafarroako Gobernuaren 2013ko abenduaren 30eko Erabakia, 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak 2014ko ekitaldirako luzatzeko exekuzio arauak ematen dituena; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea; Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, eta sektoreari buruzko arau indardunak.

---

<sup>1</sup> 2014ko azaroan, Itoiz-Canal de Navarra Fundazioko Patronatuak erabaki zuen fundazioa likidatu eta azkentzea.

<sup>2</sup> 2014ko martxoan, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Centro de Recursos Ambientales de Navarra Fundazioa azkentzea.

### III. HELBURUA

Aplikatzekoa den legediaren arabera, 2014ko ekitaldiko Nafarroako kontu orokorren finantzak eta legezketasunaren betetzea fiskalizatu dira.

Fiskalizazioaren helburua da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko ekitaldiko kontu orokorrek irudi zehatza erakusten duten alderdi esanguratsu guztiei dagokienez, hots, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.
- Aplikagarri zaion legedia betetzen ote den Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek aurrera eramandako jarduera finantzarioan, 2014ko ekitaldian.
- Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko abenduaren 31ko egoera finantzarioa.
- Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko azterketa.
- Aurreko txostenetan Ganbera honek emandako gomendioen betetzea.

#### IV. NORAINOKOA

Nafarroako kontu orokorrak Foru Sektorre Publikoa osatzen duten enteen kontuek osatuta daude. Ente horiek, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legean ezarritakoak dira. Haien kontuen xehetasunak txosten honetako II.1 atalean ageri dira.

Erregularitasunari buruzko fiskalizazioak aztergai hartu zituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko ekitaldiko urteko kontuak. Haietan, honako egoera-orriak ageri dira:

- Aurrekontuen likidazioa.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztu zituen 65 aurrekontu-programetako emaitzen balantze bat eta kudeaketari buruzko txosten bat.
- Egoeraren balantze bateratua eta banakakoa, entitate bakoitzarena.
- Ekonomia eta ondare arloetako emaitzen kontu bateratua eta banakakoa, entitate bakoitzarena.
- Oroitidazki orokor bat, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabaltzen eta iruzkitzen duena.

Fiskalizatutako ekitaldia 2014. urtekoa da, eta konparazio-eraginetarako, aurreko ekitaldiko informazio finantzarioa jaso dugu.

Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuei dagokienez, Foru Administrazioak egindako kalkuluak berrikusi dira, eta aztertu da Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabekoak diren.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako fiskalizazio-printzipio eta -arauei eta Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek onetsitako ISSAI-ES 100, 200 eta 400 arauari jarraituz.

Kontuan hartu dira Nafarroako Gobernu Kontu-hartzaitza Orokorrak egindako barne kontroleko txostenak, finantza-kontrol iraunkorreko eta auditoria publikoko jarduketari dagokienez.

Halaber, Ganbera honek 2014ko ekitaldiari buruz egindako honako txostenak hartu dira kontuan: "Nafarroako Gobernuak entitate eta elkarte batzuei emaniko diru-laguntzak", "Nafarroako Gobernuaren garbiketa zerbitzuen kontratazioa" eta "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen osasun azpiegituren kudeaketa".

Foru Sektorre Publikoa osatzen duten gainerako enteak ez dira izan erregularitasunari buruzko fiskalizazio-lan honen xede, honako arrazoiak direla eta:

- Nafarroako Parlamentuaren 2014ko urteko orokorrak, Nafarroako Arartekoarenak eta Nafarroako Kontseiluarenak Kontuen Ganbera honek fiskalizatu ditu.
- Kontuen Ganberaren beraren 2014ko urteko orokorrak auditoriako enpresa batek auditatu ditu.
- Sozietate eta fundazio publikoen urteko kontuen auditoria kanpoko profesional batzuek egiten dute.

**V. IRITZIA**

Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Horien kontabilitateko egoera-orri batzuk txosten honetako VI. atalean jaso ditugu.

*Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna*

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteko kontuak egiteko arduraduna, zertarako-eta irudi zehatza azal dezaten ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa de finantza-informazioko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Nafarroako Gobernuak, gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

*Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta auditoriaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauen arabera izatea.

Auditoria batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula ebidentzia bat lortzeko zenbaitokoei eta urteko kontuetan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du gure fiskalizazio- eta legezkotasun-iritzia oinarritzeko.

**V.1. FORU ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2014ko URTEKO KONTUEI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA.***Iritziaren oinarria, salbuespenekin*

- Ibilgetu materialaren saldoa, abenduaren 31n 2.107,55 eurokoa dena, ez dago oinarrituta ondasunen eta eskubideen inbentario orokorrean, eta ez ditu jasotzen Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jabetzako ondasunen guztizkoa. Foru Administrazioaren jabetzako ondasun eta eskubide guztien inbentario baloraturik ez dago.

- Administrazioari langileen montepioari dagozkion pentsioen etorkizuneko betebeharrarako hornikuntza ez zen balantzean erregistratu. Nafarroako Gobernuaren pentsioen gastuari buruzko azterlanari jarraituz, prestazio horiek direla-eta 2015-2087 aldirako aurreikusi den kostua 2.231,47 milioi euro konstantekoa da.

- Oroitidazkian ez da informatu Estatuko Administrazioak Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsotik etor litezkeen gorabeherei buruz. Errekurtsoa behin-behineko artxibatuta dago eta Nafarroan fabrikatutako ibilgailuak merkaturatzen dituen sozietate batek jasandako BEZaren itzulketari buruzko eskumen-gatazkari buruzkoa da.

Gure iritzian, aurrez azaldutako salbuespenengatik ez bada, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko ekitaldiko urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta Administrazioaren 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta ondarekoari dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## V.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko ekitaldiko finantza-jarduera bat dator, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoa den araudiarekin.

## V.3. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

2014an aitortutako betebeharrak 3.803,56 milioi egin zuten, eta ekitaldi horretan aitortutako eskubide garbiak, berriz, 3.855,98 milioi eurokoak izan ziren.

Ondoren, 2014ko finantza-egoerari buruzko adierazle batzuk –eta haien 2013rekiko alderaketan– ematen ditugu, bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, bai haren erakunde autonomoei dagokionez ere.

(euroak, milioitan)

Adierazlea	2013	2014	Aldearen ehunekoa
Diru-sarrerak, guztira	3.732,53	3.855,98	3,31
Gastua, guztira	3.679,62	3.803,56	3,37
Aurrekontuaren saldo doitua	67,66	71,61	5,84
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	3.140,38	3.200,08	1,90
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3. kapitulura)	2.956,57	3.028,67	2,44
Inbertsio gastuak (1,2. eta 4. kap.)	3.006,69	3.031,08	0,81
Aurrezki gordina	133,69	169,00	26,42
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	300,54	401,48	33,59
Aurrezki garbia	-166,85	-232,47	-39,33
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	24,28	49,61	104,36
Kapitaleko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	269,15	217,90	-19,04
Kapital eragiketen emaitza	-244,87	-168,29	31
Finantza eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	296,45	449,64	51,67
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	567,88	606,29	6,76
Zorpetze-mailaren ehunekoa	% 9,57	% 12,55	31,09
Administrazioaren zorra	2.501,60	2.697,88	7,85
Eratutako abalak	157,81	149,59	-5,21
Diruzaintza-gerakina, guztira	-135,78	-113,28	16,57
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-221,19	-184,09	16,77
Ondare garbia	-10,91	-97,86	-796,76

- 2014ko aurrekontuaren betetzetik heldu den aurrekontu-saldo doitua 71,61 milioi eurokoa izan zen, eta ekitaldian hitzartutako zorpetze-eragiketengatik sortu zen, zeren bai aurrezki garbia, bai kapital-emaitza negatiboak izan baitziren.

- 2014ko ekitaldian zehar, 169 milioi euroko aurrezki gordina sortu zen, behin funtzionamendu-gastuak diru-sarrera arruntekin ordainduta. Aurrezki hori ez zen nahikoa izan zorpetzearen finantza-zama ordaintzeko. Finantza-zama hori 401,48 milioi eurokoa da eta aurrekontu-arruntaren ehuneko 12,55 zorpetze-maila eragiten du. Azken bi ekitaldi hauetan ez da finantza-zamari aurre egiteko moduko diru-sarrera arruntik sortu, eta zama hori beste jaulkipen batzuekin finantzatu da.

- 2014an sortutako finantza-zama 401,48 milioi eurokoa izan zen; hartatik, 296,53 milioi euro amortizazioari dagozkie eta 104,95 milioi euro, berriz, interesei. Ohartu gara 2013tik 2014ra finantza-zamak ehuneko 34 egin duela gora, amortizazio-gastuak gora egitearen ondorioz; izan ere, interesek behera egin zuten.

- 2014ko abenduaren 31ko zorpetzea 2.697,88 milioi eurokoa zen, 2013an zegoena baino 196,25 milioi handiagoa. Ehuneko 4,02ko batez besteko interes-tasa dauka. 2014an hitzartutako zorpetzearen batez besteko interesa ehuneko 3,29koa izan zen.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 184,09 milioi euro negatibokoa da; horrek esan nahi du Administrazioak ez zuela baliabide likidorik sortu hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko. Nabarmentzekoa da gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak 2014an 37,1 milioi euro egin zuela gora.

Ez dago jasota gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa finantzatzeko neurririk ez arautu, ez hartu izana.

- 2014ko abenduaren 31n, ondare garbia -97,86 milioi eurokoa zen. Ondare negatibo hori sortu da ondare-emaitza ekonomikoa negatiboa izan delako: -88,31 milioiokoa 2014an; -257,46 milioiokoa 2013an, eta -385,42 milioiokoa 2012an.

Ganbera honek bere azken txostenetan behin eta berriz adierazi duen moduan, egungo egoerak exijitzen du azterketa sistematiko eta jarraitu bat egitea bai gastu eta diru-sarreraren politikei, bai helburuei, bai antolaketari berari buruz, lehenetsuneko arloak edo hobetzeko moduko arloak identifikatzeko eta gastu produktiboko kontusailak lehenesteko. Hori guztia zuzendu behar da harmonizazio eta oreka ahal diren handienak lortzera kontu publikoen saneamenduaren, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzearen eta Nafarroako ekonomiaren eta enpleguaren hazkunde jasangarriaren artean.

#### V.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNA

##### V.4.1. Aurrekontu-egonkortasuna

Administrazio publikoen **aurrekontu-egonkortasuna** da egiturazko oreka- edo superabit-egoera, Europako Batzordeak erabilitako metodologiari jarraituz kalkulatu.

2014rako ezarritako aurrekontu-egonkortasuneko helburua erregioko BPGaren ehuneko -1ean finkatu zen.

Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren behin-betiko txostena ez dagoen arren, Nafarroako Gobernuak kalkulatu du Administrazio Publikoaren Sektorearen 2014ko ekitaldirako defizita -149,5 milioiokoa dela; kopuru hori erregioko BPGaren ehuneko -0,84 da, 2014rako ezarritako ehuneko -1eko helburua baino txikiagoa. Kalkulua egiteko, honako datu hauek hartu dira kontuan, kontu orokorraren oroitidazkian adierazi bezala:

(euroak, milioitan)

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorearen defizita	2014
<b>I. Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa</b> (diru-sarreraren 1. kapitulutik 7. kapitulura ken gastuen 1. kapitulutik 7. kapitulura)	<b>-102,5</b>
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	-104,2
Nafarroako Parlamentuarena, Arartekoarena, Nafarroako Kontseiluarena eta Kontuen Ganberarena	0,6
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena	1,1
<b>II. Aurrekontuko saldoan egindako doitzeak</b>	<b>-66,2</b>
Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	35,1
Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak	1,0
Europako funtsetako transferentziak	0,9
Barneko transferentziak	0,4
Diru-bilketa ez-segurua	-70
Osasunerako zentimoa	-11
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	0,1
Elkarte publiko-pribatuen bidezko inbertsioak	3,1
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	-10,2
ADIFen obren aurrerakinak (AHT)	-16,5
Betetako abalak	-3,3
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	45,5
Enpresen finantza-ekarpenak	-41,3
<b>III. Elkarte publikotzat jotako beste unitate batzuk (sozietate eta fundazio publikoak)</b>	<b>19,2</b>
<b>IV. Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-beharra (I.etik III.ra)</b>	<b>-149,5</b>
<b>Finantzaketa-beharren ehunekoa BPGaren gainean (1)</b>	<b>-0,84</b>
<b>Ezarritako helburua, BPG erregionalaren gaineko ehunekoan adierazia</b>	<b>-1</b>

(1) Nafarroako 2014ko BPGa 17.887 milioikoa izan dela jo da (Estatuko Estatistika Institutuaren arabera)

2013ko irailaren 11n, Nafarroako Gobernuak 3.405,55 milioiko gastu ez-finantzarioko muga onetsi zuen 2014rako Administrazio Publikoaren Sektorearentzat; 2013ko abenduaren 30ean, berriz, 3.405,55 eurora jaitea erabaki zuen. 2014ko abenduaren 31n, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorearen gastu ez-finantzarioa, EAKNren arabera, 3.143 milioikoa izan zen, Nafarroako Gobernuak 2014ko ekitaldirako onetsitako kopuruaren azpitik. Gastu ez-finantzarioaren kapitulua hurrengo kontzeptuetan dago banakatuta:

(euroak, milioitan)

	2013/09/11n onetsitako zenbatekoa	2013/09/30ean onetsitako zenbatekoa	Zenbatekoa 2014/12/31n EAKN
Finantzaz besteko diru-sarrerak	3.190,62	3.126,35	
Defizitaren muga, BPGaren ehuneko 1a	185,07	185,07	
Kontabilitate Nazionaleko doikuntzak	29,87	91,57	
Gastu ez-finantzarioengatik doikuntzak	0	-20,24	
<b>Gastu ez-finantzarioaren muga, 2014an</b>	<b>3.405,55</b>	<b>3.382,75</b>	<b>3.143</b>

#### V.4.2. Iraunkortasun finantzarioa

**Aurrekontu-iraunkortasuna** da egungo eta etorkizuneko gastu hitzartuak finantzatzeko gaitasuna, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza-zorren berankortasunaren mugen barruan.

Merkataritza-zorreen iraunkortasuna dago hornitzaileei ordaintzeko batez-besteko aldiak ez duenean gaunditzen berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako gehieneko epean. Epe hori 30 eguneko da 2014rako.

Foru Komunitateko Administrazioak hilero argitaratzen du, 2014ko urritik, ordaintzeko bere batez besteko aldia, zeina kalkulatzen baita uztailaren 35eko 635/2014 Errege Dekretuan ezarritako metodologiaren arabera.

Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak hornitzaileei ordaintzeko epeei buruz egindako txostenetan, Nafarroako ratio negatiboak dauzka 2014ko irailetik abendura bitarteko hilabeteetan; horrek esan nahi du fakturak aurkezten direnetik hogeita hamar egun iragan baino lehenago ordaintzen duela. Honako hau izan zen irailetik abendura bitarteko aldietan ordaintzeko batez besteko aldia:

	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan),
Iraila	-6,06
Urria	-4,67
Azaroa	-5,39
Abendua	-9,95

Zor publikoaren 2014ako helburua, gehiegizko defizitaren prozedurarako (GDP) metodologiaren arabera kalkulatua, erregioko BPGaren ehuneko 18,1ean finkatu zen Foru Komunitaterako.

GDParen arabera, zor publikoa da urte bukaeran ordaintzeke dauden administrazio publikoaren sektorearen betebeharrak gordinen balio nominala; hau da, metalezko monetaren, obligazio eta bonoen, mailegu eta kredituen jaulkipena. Horretan, ez dira sartzen ez finantza-deribatutak, ez merkataritza-kreditutak, ez eta beste administrazio publikoen esku dauden Administrazio Publikoaren pasiboak ere.

Zor publikoaren kalkulua Espainiako Bankuak egiten du; horren arabera, 2014ko abenduaren 31n, Administrazio Publikoaren Sektorearen guztizko zorpetzea 3.197 milioikoa zen, erregioko BPGaren ehuneko 17,9a hain zuzen, finkatuta dagoen mugatik –ehuneko 18,1etik– behera. Hona hemen azalpen banakatua:

(euroak, milioitan)

Zorra, GDPren arabera	Administrazio Publikoaren Sektorea					
	Adminis- trazioa	Erakunde autonomoak	Sozietateak	Fundazioak	NUP	Guztira
Zor Publikoa	2.018,57					2.018,57
Finantza entitateekin egindako maileguak	365,4		67,59	5,91		438,92
EIBrekin hartutako maileguak	300		100			400
Errekurtsorik gabeko "factoring" a	18,46	0,19	0,02		0,05	18,72
Pirinioetako autobia eta Nafarroak Ubidea	321					321
<b>Zorpetzea, guztira, 2014-XII-31n</b>	<b>3.023,43</b>	<b>0,19</b>	<b>167,61</b>	<b>5,91</b>	<b>0,05</b>	<b>3.197,28</b>
<b>Matrikulak guztira hartu eta horien gainera</b>						<b>17,9</b>
<b>Nafarroako BPGaren gainera ehuneko objektiboa</b>						<b>18,1</b>

**Horrenbestez,** Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2014ko ekitaldian bete egin ditu ekitaldi horretarako ezarrita zeuden aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak, nahiz eta oraindik ere Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren behin betiko txostena falta den, hain zuzen ere aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuen betetze-mailari eta 2014ko ekitaldiko gastu-arauari buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak, oroitidazkian, ez du informaziorik ematen gastu-arauaren betetzeari buruz, ez eta finantza-iraunkortasuneko helburua betetzeari buruz ere, merkataritza-zorrari eta zor publikoari dagokienez.



## V.5. GOMENDIOEN JARRAIPENA

2013ko txostenean emandako gomendio hauek edo bete dira edo betetzeko fasean daude:

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen sistema aztertzeko eta aldatzeko prozesua garatzen ari da. Horrek aukera emanen du bai tributuen jarraipena emateko, bai haiek kontabilitate orokorreko sistemarekin koordinatzeko.*

- *Fakturen kontabilitate-erregistroaren garapena osatu da eta kontabilitate-sisteman integratu da.*

- *Ikastetxeen kudeaketarako eta jantokietarako diruzaintza-kontuak kontabilizatu dira, bai eta diru-sarreraren kontu bereziak ere.*

Indarrean jarraitzen dute Ganbera honek aurreko ekitaldietako txostenetan emandako honako gomendio hauek:

- *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Estatuko Sektore publikoaren Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik aplikatzekoa dena.*

- *Balantzean islatzea foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktuarialak.*

- *Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilge-tuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko.*

- *Kontu orokorren oroitidazkian sartzeari ekitaldi bakoitzaren egoera eta garatutako jarduerak hobeki ulertzeko lagungarria den informazio guztia; bereziki honako hauei dagokiena:*

a) *Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburu guztien betetze-maila.*

b) *Zerga-onuren exekuzioari buruzko azterlana.*

c) *Gorabeherak.*

d) *Ekitaldi-itxiera ondorengo gertaerak*

e) *Ondasunen eta eskubideen inbentarioa.*

- *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

- *Aurrekontu programetarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak osatzea; helburu horiek zenbagarriak eta neurgarriak izanzen dira, eta haien betetze maila eta gertatutako desbideratzeak aztertuko dira.*

**VI. FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA (2014).**

Ondoren, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2014ko urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak aurkezten ditugu.

**VI.1. 2014ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

2014ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Bateratua	Baimendua	Erabilia	Gauzatua	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.093.855	1.112.296	1.111.761	1.111.760	1.111.719	99,95	1.111.238
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	534.422	545.663	534.663	533.820	532.492	97,59	463.393
Finantza-gastuak	127.904	105.058	104.945	104.945	104.945	99,89	104.680
Transferentzia arruntak	1.306.343	1.393.814	1.389.987	1.388.426	1.386.869	99,50	1.307.714
Osoko kreditua	82.011	39.506	0	0	0	0	0
Inbertsio errealak	177.964	180.046	95.827	95.394	94.126	52,28	70.566
Kapital-transferentziak	141.264	134.899	125.739	124.835	123.776	91,75	99.594
Finantza-aktiboak	77.421	154.991	153.105	153.105	153.105	98,78	153.099
Finantza-pasiboak	296.532	296.532	296.532	296.532	296.532	100	296.464
<b>Guztira</b>	<b>3.837.717</b>	<b>3.962.805</b>	<b>3.812.559</b>	<b>3.808.817</b>	<b>3.803.564</b>	<b>95,98</b>	<b>3.606.748</b>

2014ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Hasierako aurrekontua	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.434.617	1.449.261	1.427.976	98,53	1.384.084
Zeharkako zergak	1.763.838	1.763.838	1.586.507	89,95	1.523.741
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	104.790	122.057	138.678	113,62	96.625
Transferentzia arruntak	67.759	68.792	32.855	47,76	32.538
Ondare bidezko diru-sarrerak	9.952	9.973	14.069	141,07	6.802
Inbertsio errealeen besterentzea	9.405	9.883	2.017	20,41	1.606
Kapital-transferentziak	17.579	19.962	47.595	238,42	47.479
Finantza-aktiboak	21.527	110.889	113.702	102,54	109.914
Finantza-pasiboak	408.250	408.250	492.585	120,66	492.585
<b>Guztira</b>	<b>3.837.717</b>	<b>3.962.905</b>	<b>3.855.984</b>	<b>97,30</b>	<b>3.695.374</b>

## VI.2. 2014ko EKITALDIAREN AURREKONTU-EMAITZA

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	3.200.085	3.136.024	64.060
2. Kapital-eragiketak	49.612	217.902	-168.290
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	113.702	153.105	-39.403
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza	3.363.398	3.507.032	-143.634
II. Finantza-pasiboen alde garbia	492.585	296.532	196.052
<b>III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa</b>			<b>52.419</b>
4. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinarekin finantzatu diren betebeharrak aitortuak			0
5. Toki entitateek Nafarroako tributueta parte hartzeko funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako betebeharrak aitortuak			13.623
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			11.202
7. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak			-5.637
<b>V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6)</b>			<b>71.607</b>

## VI.3. 2014ko ABENDUAREN 31ko DIRUZAINZTA-GERAKINA

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>234.355.762</b>
Diru-sarreren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	762.304.658
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-510.539.944
Aplikatzeko dauden kontusailak	-35.783.932
Diru-sarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	4.157.857
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-3.386.944
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	17.812.135
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-208.068
<b>- Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>-513.355.447</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	451.070.700
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	31.677.890
Aurrekontuz kanpoko gastuak	30.606.857
Epe laburreko obligazioak eta bonoak	
Finantza-pasiboen itzulketa	
<b>+ Funts likidoak</b>	<b>165.715.367</b>
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>-113.284.317</b>
Diruzaintza-gerakina, Toki Ogasunen Funtzari atxikitakoa	65.502.069
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	5.301.224
<b>Atxikitako diruzaintza-gerakina</b>	<b>70.803.293</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b>	<b>-184.087.610</b>

## VI.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

(eurotan)

AKTIBOA	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
<b>A) Ibilgetua</b>	<b>2.697.387.829</b>	<b>2.590.142.177</b>
III. Ibilgetu materialak	2.107.553.379	2.082.603.408
1. Lursailak eta eraikinak	1.431.369.914	1.419.186.332
2. Instalazio teknikoak eta makineria	66.726.158	66.273.649
3. Tresneria eta altzariak	364.228.749	357.189.677
4. Bestelako ibilgetua	245.228.558	239.953.751
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	589.834.451	507.538.769
1. Epe luzerako baloreen zorroa	504.328.407	474.448.894
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	86.364.103	107.423.540
4. (Hornidurak)	-858.059	-74.333.665
<b>C) Aktibo zirkulatuak</b>	<b>512.852.158</b>	<b>466.990.801</b>
I. Izakinak	8.924.844	13.929.942
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	8.924.844	13.929.942
II. Zordunak	338.194.678	329.892.208
1. Aurrekontu-zordunak	834.530.699	806.145.764
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	17.053.338	5.373.316
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazio-zeagatikoko zordunak	82.324	69.005
5. Bestelako zordunak	15.178.489	14.317.472
6 (Hornidurak)	-528.650.172	-496.013.350
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	17.269	15.720
3. Epe laburrerako eraturako fidantza eta gordailuak	17.269	15.720
IV. Diruzaintza	165.715.367	123.152.931
<b>Aktiboa, guztira (A+B+C)</b>	<b>3.210.239.987</b>	<b>3.057.132.978</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
<b>A) Funtz berekiak</b>	<b>-97.860.167</b>	<b>-10.912.637</b>
I. Ondarea	246.543.170	631.965.381
1. Ondarea	246.543.170	631.965.381
III. Aurreko ekitaldiko emaitza	-256.095.176	-385.422.211
1. Aurreko ekitaldiko emaitza	-256.095.176	-385.422.211
IV. Ekitaldiko emaitzak	-88.308.161	-257.455.807
<b>C) Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>2.447.634.157</b>	<b>2.290.458.016</b>
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	1.759.500.149	1.660.499.050
1. Obligazioak eta bonoak	1.759.500.149	1.660.499.050
II. Epe luzeko bestelako zorrak	688.134.008	629.958.967
2. Bestelako zorrak	687.664.600	629.469.747
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	469.408	489.220
<b>D) Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>860.465.997</b>	<b>777.587.598</b>
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	312.449.250	263.027.797
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	304.295.838	243.039.935
2. 520. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	8.153.412	19.987.861
III. Hartzekodunak	548.016.747	514.559.802
1. Aurrekontuko hartzekodunak	490.572.877	469.245.734
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazio-zeagatikoko hartzekodunak	8.529.806	6.026.218
4. Administrazio publikoak	2.862.132	2.768.143
5. Bestelako hartzekodunak	42.849.881	33.489.853
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	3.202.050	3.029.853
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)</b>	<b>3.210.239.987</b>	<b>3.057.132.978</b>

## VI.5. 2014ko EMAITZEN KONTUA

(eurotan)

Zor	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
A) Gastuak		
<b>2. Hornidurak</b>	<b>229.744.071</b>	<b>212.415.412</b>
b) Ekitaldiko kontsumoak	229.744.071	212.415.412
<b>3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk</b>	<b>1.498.671.579</b>	<b>1.600.277.162</b>
a) Langile-gastuak.	1.032.977.096	1.021.331.733
a.1) Soldatak eta ordainsariak	874.215.028	871.698.212
a.2) Gizarte-zamak	158.762.068	149.633.521
b) Gizarte-prestazioak	78.959.114	75.288.925
d) Trafiko horniduretako aldeak	32.636.822	60.436.085
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	32.636.822	60.436.085
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	309.518.168	310.404.298
e.1) Kanpoko zerbitzuak	309.470.188	310.390.640
e.2) Tributuak	47.980	13.658
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	115.237.099	107.154.057
f.1) Zorrek direla eta	115.162.697	107.154.057
f.2) Finantza-inbertsioen ondoriozko galerak (gerakinaren kostu efektiboak)	74.402	
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea	-70.656.720	25.662.064
<b>4. Transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>1.510.607.103</b>	<b>1.530.762.771</b>
a) Transferentzia arruntak	1.386.823.137	1.386.665.797
c) Kapital-transferentziak	123.783.966	144.096.973
<b>5. Ez-ohiko galera eta gastuak</b>	<b>72.785.293</b>	<b>78.182.143</b>
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	57.243	0
c) Aparteko gastuak	48.884.129	64.859.171
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	23.843.921	13.322.972
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)		
<b>Zorra, guztira</b>	<b>3.311.808.046</b>	<b>3.421.637.488</b>

Hartzeko	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
<b>B) Diru-sarrerak</b>		
<b>1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak</b>	<b>3.044.641.229</b>	<b>2.972.677.375</b>
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	3.028.665.258	2.956.568.649
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.102.787.975	1.086.628.933
a.2) Sozietateen gaineko zerga	207.896.688	164.636.186
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	53.050.496	90.661.944
a.4) Ondarearen gaineko zerga	48.626.830	54.528.361
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	15.613.999	26.644.735
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta E.J.D.en gaineko zerga	43.476.954	39.807.606
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.111.942.471	985.662.777
a.11) Zerga bereziak	431.087.136	496.597.550
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	14.182.709	11.400.555
b) Kotizazio sozialak	2.722.245	2.955.930
c) Zerbitzu-emateak.	13.253.726	13.152.797
c.1) Zerbitzu-emateagatiko prezio publikoak	13.253.726	13.152.797
<b>2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>127.676.667</b>	<b>115.019.375</b>
a) Diru-itzultzeak	27.173.525	12.578.218
c) Salmentak eta zerbitzu-emateak.	35.914.974	36.825.421
c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	44.173.738	48.753.884
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	44.173.738	48.753.884
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	20.414.430	16.861.851
f.1) Beste interes batzuk	20.414.430	16.861.851
<b>3. Transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>44.429.734</b>	<b>69.763.843</b>
a) Transferentzia arruntak	32.434.907	46.854.886
b) Kapital-transferentziak	11.994.827	22.908.957
<b>5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak</b>	<b>6.752.255</b>	<b>6.720.933</b>
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	434.576	1.097.339
c) Aurtengo ekitaldiko ezohiko sarrerak	1.897	0
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	6.315.782	5.623.749
<b>Saldo zorduna (desaurrezkia)</b>	<b>88.308.161</b>	<b>257.455.807</b>
<b>Hartzekoa, guztira</b>	<b>3.311.808.046</b>	<b>3.421.637.489</b>

## VII. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA

Ondoren, egindako lanari buruzko azterlan bat azalduko dugu, bai eta hartatik lortutako ondorio nagusiak eta Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen kudeaketa hobetzeko ematen ditugun gomendioak ere.

### VII.1. NAFARROAKO 2014ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRAK

2013ko azaroaren 18an, Gobernuak 2014ako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan. Hartan, 3.756,71 milioi euroko aurreikuspenak jaso ziren.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 10ean, 2014ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa bat onetsi zuen. Horrenbestez, 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea luzatu zen. Hartan, gastuen eta diru-sarreraren guztizko kopurua 3.837,72 milioi eurokoa zen.

#### *2012ko aurrekontua 2014ko ekitaldirako luzatzea*

Aurrekontu-luzapena araututa dago, oro har, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 37. artikuluan.

Araupetze horrek jasotzen du luzapen-funts bat eratuko dela, luzatzen direneko aurrekontuei dagokien ekitaldiaren bukaeran amaitutako zerbitzu edo programen kopuruarekin eta ekitaldi horretan amaitutako betebeharrekin.

Ez zen luzapen-funtsa kalkulatu Foru Ogasunari buruzko Legean ezarritako moduan, baizik eta 2012ko aurrekontuko diru-sarreraren -3.837,72 milioi- eta 2014rako aurrekontuen proiektuan jasotako diru-sarreraren aurreikuspenaren -3.756,71- arteko aldeari erreparatuta.

Luzapenerako aplikatutako irizpideak 2014ko ekitaldirako luzatutako aurrekontuak bete beharreko Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren betekizunen arabera badira ere -besteak beste, Gobernuak 2014rako onetsia zuen gastu ez-finantzarioko muga-, luzapenari buruzko txostenean ez dira jaso 2012ko aurrekontu luzatuaren doikuntzak, aipatutako lege organikoaren helburuak betetzeko egin behar direnak.

2014rako aurrekontu luzatuak gastuetarako kreditu batzuk jasotzen ditu, zeinak ez baitira aurreko ekitaldietan hitzartutako gastuak, eta nahitaezkoak ere ez direnak lege-mailako araei begiratuta; Parlamentuari, halere, gastuetarako kreditu horien berri eman behar zaio.

Horrenbestez, luzapen-funtsa, gure ustez, ez zen kalkulatu Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeari jarraituz, eta hitzartu gabeko gastuen edo bete beharreko gastuen luzapena ez zen foru lege horren arabera izapidetu. Alabaina, izapidetzea, neurri batean, aurrekontu luzatuak bete beharreko aurrekontu-egonkortasuneko betekizunen arabera egin da, bai eta Foru Ogasunari buruzko Foru Legeak luzapen-prozeduraren araupetzearen gainean dioenaren interpretazio zabal eta malgu baten arabera ere.

#### *Aurrekontu-aldaketak*

2014an zehar onetsitako gastuen aurrekontu-aldaketek 240,26 milioi euro egin zuten. Kopuru horretatik, 98,88 milioi gastu-kontusailetan eskuragarri dauden kredituekin finantzatutako kredituzabalkuntzei eta kreditu-gehikuntzei dagozkie, eta 16,19 milioi, berriz, kreditu-transferentziei.

Horrenbestez, eskuragarri dauden kredituekin finantzatutako aldaketak kontuan hartzen ez baditugu, hasierako kredituen ehuneko hiru baizik ez ziren gehitu.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta, legezko tasun txostenak egin zituen ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz, eta ondorioztatu zuen organo eskudunak onetsi zituela eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; besteak beste, finantzabideen egokitasuna.

2014ko ekitaldiaren itxieran eskuragarri ez zeuden kredituak 5,67 milioi eurokoak ziren, eta 2019-2012 Inbertsio Planaren esparruan toki entitateei egindako kapital-transferentziei dagozkie.

Ez dago jasota kreditu horien eskuraezintasuna onetsi denik.

Gure gomendioak:

- *Ogasun Publikoari buruzko Legeko aurrekontu-luzapenerako prozeduraren araupetzea garatzea, hartan jasoz Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Legearen betekizunak.*

- *Ogasun Publikoari buruzko Legean ezarritako irizpidearen arabera luzapen-funtsa kalkulatzea eta Parlamentuari aurreko ekitaldietan hitzartutako gastu ez diren eta legeen arabera nahitaezkoak ez diren kredituen berri ematea.*

- *Luzapenari buruzko txostena osatzea, hartan sartuz luzatutako aurrekonturako beharrezkoak diren doikuntzen azterketa, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeari dagokionean.*

- *Kredituen eskuraezintasuna kontusail bateko kreditu eskuragarriaren saldoa ibilgetu bihurtzea dakarren neurrian, hura erabiltezin deklaratura, organo eskudunak berariaz onetsi beharko du kredituen eskuraezintasunari buruzko adierazpena.*

## VII.2. 2014ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

- 2014an aitortutako betebeharrak garbierak 3.855,98 milioi euro egin zuten, eta haien betetze-maila behin betiko aurreikuspenen ehuneko 97koa da. Ehuneko horretatik nabarmen aldentzen da inbertsioen eta transferentzia arruntan besterentzeari buruzko kapituluaren betetze-portzentajea, ehuneko 20ko eta 48ko betetze-mailarekin, hurrenez hurren, eta ondare bidezko diru-sarrerak eta kapital-transferentziak, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 141ean eta 238an bete baitziren, hurrenez hurren.

Aitortutako eskubideen ehuneko 41 zeharkako zergei dagozkie; ehuneko 37 zuzeneko zergei, eta ehuneko 13, azkenik, finantza-pasiboei.

2014ko eskubide aitortuak 2013koak baino ehuneko hiru handiagoak izan ziren; hau da, 123,45 milioi handiagoak. Alde hori honako hauengatik azaltzen da, funtsean: zeharkako zergek ehuneko lau egin dute gora; kapital-transferentziek ehuneko 108; eta pasibo finantzarioek ehuneko sei.

- 2014. urtean aitortutako betebeharrak 3.803,56 milioi euro egin zuten, kreditu bateratuen ehuneko 96ko betetze-mailarekin. Inbertsioen betetzea, berriz, portzentaje horretatik aldentzen da, ehuneko 52koa baita.

Aitortutako betebeharrak osatzen dituzten gastu nagusiak honakoak dira: transferentzia arruntak dira, guztizkoaren ehuneko 36 egiten baitute; langile-gastuak, ehuneko 29 baitira, eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak, ehuneko 14ekin. Finantza-zama aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 11 da.



Aurrekontu-gastuaren xedea honako hau izan zen:

(euroak, milioitan)

Funtzioa	Gastua	Gutzizkoaren gainean (%)
Osasuna	916,24	24
Hezkuntza	567,95	15
Estatuko zama orokorre eustea	555,83	15
Zor Publikoa	384,44	10
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	242,51	6
Toki entitateen jardura kofinantzea	237,05	6
Finantza- eta tributu-administrazioaren zerbitzu orokorrak	215,64	6
Azpiegiturak	144,30	4
Justizia, segurtasuna eta kanpo politika	115,30	3
Pentsioak:	92,74	2
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	73,13	2
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	58,37	2
Enpleguaren sustapena	48,80	1
I+G+b	46,64	1
Kultura	40,89	1
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak, garraiorako diru-laguntzak	28,11	1
Industria eta energia	22,95	1
Bestelakoak	12,67	
<b>Guztira</b>	<b>3.803,56</b>	<b>100</b>

Honako hau izan zen gastuaren departamentuen arteko banaketa, portzentajeen arabera:

Departamentua	2014
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.	% 31
Osasuna	% 24
Hezkuntza	% 15
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	% 9
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	% 8
Gizarte Politikak	% 7
Sustapena	% 5
Kultura, Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	% 1
<b>Guztira</b>	<b>% 100</b>

2014ko aitortutako betebeharrak 2013koak baino ehuneko hiru handiagoak izan ziren; hau da, 123,95 milioi handiagoak. Alde hori azaltzen da, nagusiki, finantza-pasiboengatik gastuek ehuneko 53 egin dutelako gora.

• Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen gastuen eta finantzabideen portzentaje-osaera honako hau da:

Gastuaren izaera ekonomikoa	2013 (%)	2014 (%)	Finantzabidea	2013 (%)	2014 (%)
Langileak	30	29	Tributu bidezko diru-sarrerak	79	79
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	14	14	Prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	3
Transferentzien bidezko gastuak	42	40	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	2	2
Inbertsio errealak	3	2	Ondare bidezko sarrerak	0,5	0,5
Finantza-zama	8	11	Zorpetzea	12,5	12,5
Finantza-aktiboak	3	4	Finantza-aktiboak	3	3
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>		<b>100</b>	<b>100</b>

• “Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak” izeneko 413. kontuko saldoa 3,66 milioikoa zen 2014ko abenduaren 31n. Kopuru horretatik, 2,78 milioi aurreko ekitaldietan kontabilizatzen ez ziren eta erregistratuta dauden gastuei dagozkie: 2013an 2,83 milioi egin zuten. 2014tik aurrera, aurrekontuari aplikatu gabeko gastu erregistratu guztiak kontu horretan kontabilizatzen dira.

### VII.3. LANGILE-GASTUAK

2014an, langile-gastuak 1.111,72 milioi eurokoak izan dira; gastu guztien ehuneko 29, hain zuzen. Ehuneko 43 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 30, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 18, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari.

Gastu horiek honela daude banatuta, kontzeptu ekonomikoen arabera:

Langile-gastuak	(euroak, milioitan)		
	2013	Aldearen ehunekoak	
Goi-karguak	5,15	4,74	-8
Behin-behineko langileak.	1,15	1,15	0,1
Lanpostuko ordainsariak	690,55	695,499	1
Langileen ordainsariak	119,93	119,45	-0,4
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	224,94	237,72	6
Ordainsari aldakorak	50,47	49,02	-3
Beste hainbat ordainsari	4,22	4,15	-1
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>1.096,41</b>	<b>1.111,72</b>	<b>1</b>

2013aren aldean, ehuneko bat igo ziren. Horrek 15,31 milioi gehiagoko gastua eragin zuen. Alde horretan, nabarmentzekoa da plantillako lanpostuetarako kontratatutako langileen ordainsariak ehuneko 15 egin dutela gora eta aldi baterako lan kontratadunenek ehuneko 13; langile finkoen ordainsariak, berriz, ehuneko hiru egin dute behera.

#### *Plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa*

Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa 2005eko apirilaren 2an onetsi zen, uztailaren 27ko 100/2005 Foru Dekretuaren bitartez.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa eta langile finkoen eta izendapen libreko zuzendaritza karguetan aritzen diren behin-behineko langileen zerrenda, 2014ko abenduaren 31koak, 2015eko martxoaren 26ko NAO n argitaratu ziren.

2014ko abenduaren 31ko plantilla organikoko lanpostuak 22.428 ziren, 2013an baino 112 gehiago. Honako hau zen haien sailkapena:

Lanpostuak	Administrazioa Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Postu beteak	4.980	5.100	6.530	6.338	6.946	6.651	18.456	18.089
Hutsak	1.015	1.118	1.302	1.488	1.543	1.733	3.860	4.339
<b>Lanpostuak, guztira</b>	<b>5.995</b>	<b>6.218</b>	<b>7.832</b>	<b>7.826</b>	<b>8.489</b>	<b>8.384</b>	<b>22.316</b>	<b>22.428</b>

Lanpostuen ehuneko 37 O-NOZi dagozkio; ehuneko 35 Hezkuntzari, eta ehuneko 28 Administrazio Erroari. Azken horretan, lanpostuen ehuneko 20 Foruzaingoarenak dira.

Lanpostu guztien ehuneko 19 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 60 aldi baterako beteta zeuden.

Gobernuak foru dekretu bidez plantilla aldaketa batzuk onetsi zituen, 111 lanpostu amortizatzeko eta 234 lanpostu sortzeko; amortizatutako ehuneko 59 eta sortutako ehuneko 92 Osasunekoak dira. Mailei erreparatuta, amortizatutako lanpostuen ehuneko 39 E mailakoak ziren eta sortutako ehuneko 40 B mailakoak ziren.

Gainera, plantilla aldatu zen unitate organikoak sortu zirelako, unitate organikoen burutza edo zuzendaritzetarako izendapenak edo kargu-uzteak izan zirelako eta lanpostuak birmoldatu direlako, besteak beste. Horien ondorioz, 132 lanpostu amortizatu ziren eta 123 sortu: amortizatutako ehuneko 68 eta sortutako ehuneko 79 burutzei dagozkie.

2014an, Foruzaingoko komisarioa izateko 10 lanpostu betetzeko enplegu publikoko eskaintza partziala onetsi zen. Behin lanpostu horiek sustapen bidez beteta, komisario izaera hartzen dutenei zegozkien inspektore lanpostu hutsak amortizatuko dira. Lanpostu horiek 2014ko ekitaldian deitu ziren.

2014ko abenduaren 31n, 115 lanpostu geratzen ziren deitzeko, guztiak ere 2009an onetsitako lan eskaintza publikoari dagozkionak. Honako hauei dagozkie:

Lanpostua	Maila	Kopurua	Eremua
Kirurgia Ortopedikoaren eta Traumatologiaren Ataleko burua	A	1	O-NOZ
Farmazia Ataleko burua	A	1	O-NOZ
Pediatría Ataleko burua	A	1	O-NOZ
Emagina	B	6	O-NOZ
U.E.T	C	14	O-NOZ
Erizaintzako laguntzaileak	D	87	O-NOZ
Psikologoa	A	4	Adm. erroa Geroratua
Goi mailako teknikaria	A	1	Adm. erroa Geroratua
2014-12-31 deitu gabeko lanpostuak, guztira.		115	

#### *Kontratatutako langileak*

Kontratatutako langileen ordainsariek 196,84 milioi euro egin zuten; 2013an baino ehuneko 11 gehiago, beraz. 2014ko ekitaldiko langile-gastu guztien ehuneko 18 egiten dute.

Ondoren 2014an zehar egindako aldi baterako kontratazioari buruzko datuak erakutsiko ditugu.<sup>3</sup>

	Administrazio Erroa	O-NOZ	Hezkuntza
2014ko aldi baterako kontratuak	3.371	47.488	7.601
2014an zehar aldi baterako kontratua izan duten pertsonak	1.482	6.316	3.624
2014-12-31ko aldi baterako kontratuak	1.028	5.038	2.870

Administrazio Erroko<sup>4</sup> aldi baterako kontratazioen lagin bat aztertu dugu –Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak kudeatu ditu horiek–: 2014ko ekitaldian, 3.371 kontratu sinatu ziren 1.482 pertsonarekin, ekitaldian egindako kontratu guztien ehuneko sei.

2014ko abenduaren 31n, Administrazio Erroan 1.028 kontratu zeuden indarrean. Horietatik:

<sup>3</sup> Informazio hori zabaldu eta aztertuko da Nafarroako Administrazioaren zerbitzuko langileen kontratazioaren bilakaerari buruz Ganbera hau egiten ari den txostenean.

<sup>4</sup> 2009ko ekitaldian, O-NOZen ordezkapenak egiteko aldi baterako kontratazioa berrikusi zen, eta 2010ean, berriz, Hezkuntzako aldi baterako kontratazioa.

- Ehuneko 83 hurrengo lau departamentuei dagozkie: ehuneko 36 “Gizarte Politiketakoari”, ehuneko 26 “Lehendakaritza, Justizia eta Barnekoari”, ehuneko 11 Osasunari eta ehuneko 10 “Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari”.

- Ehuneko 59k C eta D mailetako lanpostuak betetzen zituzten.

- Ehuneko 51 plantillako lanpostuak betetzeko kontratuak ziren; ehuneko 13 oporregatik ordezkapenak betetzeko; ehuneko 13 zerbitzu berezietarako, eta ehuneko bost aldi baterako ez-gaitasun-egoerarako.

- Ehuneko 37k hiru urtetik gorako iraupena zuen, eta horietatik ehuneko 74 lanpostu hutsak betetzeko kontratazioak ziren.

Egiaztatu da publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioen betetzea bermatzen duten prozedurak jarraitu direla Administrazio Erroan la\$\$\$ngileak aldi baterako kontratatzerakoan, eta, halaber, administrazio publikoetako langileak administrazio-araubidean kontratatzeari buruzko irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan ezarritako baldintza formalak bete egin direla.

Egiaztatu da laginean jasotako pertsona kontratatu guztiak kasuko kontratazio zerrendetan jasota zeudela, hain zuzen Nafarroako webgunean argitaratutakoetan.

Kontratuan finkatutako soldata eta ordaindu dena kontratatu den mailari eta lanpostuari dago-kiena da; osagarriak 2014ko Plantilla Organikoaren arabera dira, eta antzinatasun-saria ere ordaintzen da, kasua bada, langile funtzionarioei ordaintzen zaien termino berdinetan, langile funtzionarioei datzekien ordainsariak kenduta: gradua eta familia-laguntza.

Aztertutako kontratazioetan, kontratazioaren beharra justifikatu da, eta kontratazioa egiteko baimena eman da. Halaber, ordezkapenarako kontratazioak izan ezik, alde aurretik kontu-hartzaileak baimendu ditu.

#### *Erabilera bereziko osasun laguntza*

Erabilera bereziko osasun laguntzaren prestazioa 1973tik dator, urte horretan onetsi baitzen zerbitzu horri buruzko erregelamendu arautzailea. 2015eko maiatzaren 31n amaitu zen.

Sistema horren onuradunak ziren Foru Administrazioako, toki entitateetako, Parlamentuko eta Kontuen Ganberako funtzionarioak, Administrazio Publikoetako Montepioei atxikita egon eta araubide horren alde egin zutenak, jarduneko zerbitzukoak zein erretiroa hartutakoak, bai eta gizarte prestazioko beste araubideren bati atxikita ez zeuden ezkontideak eta 26 urtetik beherako seme-alabak ere. 2014ko abenduaren 31n, 9.914 ziren erabilera bereziko osasun laguntzaren zerbitzuari atxikitako pertsonak; horietatik, 6.958 tituludunak ziren eta gainerakoak haien onuradunak, haien menpe egoteagatik.

Erabilera bereziaren zerbitzuak araubide orokorrak estali gabeko osasun prestazio osagarriak hartzen zituen, beste prestazio batzuez gainera, osasun sistemaren gainerako onuradunen baldintza berdinetan: farmazia, laguntza espezializatua eta osasun garraioa, besteak beste.

Erabilera bereziko osasun laguntzaren itzulitako gastuaren guztizkoa, 2014. urtekoa, 4,94 milioi eurokoa izan zen. Kopuru horretatik, 1,51 milioi euro erabilera bereziko osasun prestazio eksklusiboetarako zegoen.

Foru Administrazioarako 2014ko gastuak bereizten ditu, batetik, onuradunari erabilera bereziko prestazio eksklusiboengatik itzulitako gastua, 1,51 milioi euro, eta, bestetik, jardunean dauden funtzionarioek ordaindutako kuotengatik diru-sarrerak eta udalek ordaindutako derramak, 340.384 euro egiten zutenak. Horrek esan nahi du onuradun bakoitzeko 34,33 euroko gastua dagoela, honako taulan azaldu bezala:

Kontzeptua	Euroak
Erabilera bereziko gastu eskusiboa	1.505.658
Osasun laguntzako kuotak	-200.157
Udalen derramak	-965.117
Foru Administrazioarentzako gastua	340.384
Onuradunak 2014ko abenduaren 31n	9.914
Onuradun bakoitzeko kostua	34,33

Onuradunei itzulitako osasun gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu onetsitako jarraibideen arabera kreditatuta daudela, fakturen bidez justifikatuta daudela, haietan onuradunak egingako ordainketa egiaztatzen baita, eta 2014rako onetsitako tarifak aplikatu direla.

Erabilera bereziko osasun laguntzaren gastutzat 1.016.691 euro kontabilizatu ziren, erabilera bereziaren onuradunei proba diagnostikoak egiteko deribazioen fakturazioari dagozkionak, betiere kasuko itunaren esparruaren arabera; gastu hori, gure ustez, aurrekontuaren 2. kapituluaren kontabilizatu beharko litzateke, osasun itunei dagozkien kontzeptu ekonomikoan.

#### VII.4. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

2014ko ekitaldian ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 532,49 milioi eurokoak izan ziren. 2014ko gastuen guztizkoaren ehuneko 14 egiten dute. Nabarmenezkoak dira Osasun Departamentuaren gastuak, ehuneko 52rekin, eta Gizarte Politiketako Departamentuarenak, guztizko gastuaren ehuneko 18rekin.

Ekitaldiaren itxieran, gastuen ehuneko 87 ordainduta zeuden.

2013ko ekitaldiaren aldean, ehuneko bi egin zuten gora, eta honako kontzeptuetan izandako igoera nabarmendu beharra dago: protesiak, ehuneko 24ko igoerarekin; osasun itunak, ehuneko bosteko igoerarekin; eta sendagaiak, ehuneko lauko igoerarekin.

##### VII.4.1. Aztertutako lagina

Foru Komunitateko Administrazioiko Kontu-hartzailatza Orokorraren 2015erako barne kontrolleko planak gastuen gaineko kontrol finantzario iraunkorra egitea jasotzen du honako arlo haueetan: osasun hornidurak, sendagaiak, osasun itunak, protesiak eta farmazia prestazioak, aurretiko fiskalizaziotik salbuetsita baitaude. Gastu horiek 206.708.582 eurokoak izan ziren 2014an.

Halaber, Ganbera honen lan planaren barruan, garbiketa-zerbitzuen fiskalizazioa sartu da. Zerbitzu horiek 22.820.574 euro egin dute 2014an.

Aurreko fiskalizazioak, besteak beste, kontuan hartuta, honako lagina hautatu dugu:

Departamentua		Gastua
0. Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	Gida-baimenak berritzeko gastuak	15.691
	NASERTICi egindako enkargua, informatika zentroa kudeatzekoa	4.917.386
	Trunking digitaleko erradiotelefonia sarea	920.042
4. Hezkuntza	Eskola garraioa	12.978.389
	LHren garapena eta berrikuntza	263.393
5. Osasuna	Emergentsietan laguntzeko plana	10.593.852
	Ekipo medikoen mantentzea	4.151.464
	Nafarroako Unibertsitatearekin osasun laguntzarako egindako hitzarmena	5.096.993
6. Sustapena	Gizarte Kontseiluaren gastuak	7.950
	Nasuvinsari egindako enkargua	191.336
7. Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	Tracasari egindako enkargua	1.515.929
	Interpretazio zentroyen kudeaketa	175.425
	GANI egindako enkargua, zentroak kudeatzekoa	194.870

Lagin horretaz gainera, egiaztatu da ezen, orokorrean, 2014ko aurrekontuari ekitaldi horretan sortutako gastu batzuk aplikatu zaizkiola; honako kontzeptuei dagozkie: Bideko eta Pirinioko autobien kanona, 51,45 milioikoa; sendagaiak, 82,33 milioi egiten dutenak, eta osasun itunak, 56,31 milioi eurokoak.

Ondoren, aztertutako laginetik nabarmendu beharreko ondorio nagusiak adieraziko ditugu.

- Aztertutako gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta eta justifikatuta daude, eta kasua bada bat datoz kontratu arautzailean ezarritakoarekin; bestetik, zuzen kontabilizatuta daude eta 30 egunetik beherako epean ordaindu dira.

- Oro har, sozietate publikoei egindako enkarguak formalizatu, izapidetu eta bete dira, araudi arautzailean ezarritakoari jarraituz. Hala ere, enkarguak ez ditu jasotzen ekitaldiko lehenengo hilabetei dagozkien zerbitzuak (urtarriletik apirilera, kasu batzuetan), nahiz eta aldi horretan prestazioa ematen jarraitu. Espedientearen izapidetzean sartuta ez dauden zerbitzu horiek onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta, txosten juridikoek justifikatuta eta ordainduta daude.

- Nasuvinsa sozietate publikoari egindako enkarguak, txosten teknikoak idaztekoak, eta Tracasari egindakoak, FEAGA eta FEADER laguntzen ingurukoak, Administrazio departamentuetan, beren unitate organikoen zuzendaritza funtzionalaren pean, modu iraunkor eta jarraituan zerbitzuak ematen dituzten sozietate horietako langileek egin zituzten.

- Otsagi, Irunberri eta Erronkariko natura interpretatzeko zentron kudeaketa publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez esleitu zituzten Ganasak, zerbitzu hori enkargatua zenez, kontratatu ohi zituen enpresa berei. Esleipenak ez zuen bildu 2014ko urtarriletik martxora arteko epea, zeinean zerbitzua enpresa horiek berek eman baitzuten, lizitazio prozesua amaitu bitartean.

- Trunking digitaleko erradiotelefonia sareko zerbitzu baterako laguntza teknikoko kontratua- ren xedearen zati bat Ogasunaren eraikineko estazio bati dagokio, eta estazio hori 2014ko mar- txoan hasi zen lanean. Harrera-aktaren parekotzat jo litekeen dokumentua 2015eko ekainaren 11ko data dauka.

- Nasertic sozietate publikoak hirugarrenekin kontratatu zituen informatika zentroaren kudea- keta- eta ustiaketa-zerbitzuen ehuneko 66. Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeak ezartzen du ezen, aparteko kasuetan, ehuneko 50eko portzentajea gaindi daitekeela baldin eta modu exhaus- tiboan justifikatzen bada horretarako arrazoi zuzen bat dagoela, enkarguaren ekonomiari, eragin- kortasunari eta efizientziari begirakoa.

Sozietate publikoaren txosten batean aipatzen da enkargatutako prestazioaren zati nabarmen bat baliabide berekiekin betetzen dela; besteak beste, Mainframe plataforma abian jartzeko hardware eta software zerbitzuen kontratazioa. Hala eta guztiz ere, kontratazio horrek mandatua- ren prezioaren ehuneko 55 hartu zuen.

Naserticek kontratatutako zerbitzuen gaineko gastu orokorren ehuneko hiru fakturatu du: 81.330 euro 2014an.

Ez dago jasota txosten bat dagoenik non xehetasun guztiekin aipatzen diren kontratatutako mantentze-zerbitzuen ezaugarriak; bada, sozietate publikoak, bere eskaintzan, adierazi zuen ur- tean behin aurkeztuko zuela txostena.

- Ez dago jasota Hezkuntza Departamentuaren eta gurasoen elkarten arteko lankidetz- akordiorik sinatu denik azken horiek antolatutako eskola-garraiorako, unibertsitatez besteko de- rrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzetako ikasleentzat, garraioari buruzko ebazpen arautzai- lean ezarritakoaz bestera.

- Emergentsietako laguntza plana: zerbitzua ematen duten langile guztiak ez dira osasun- emergentsietako teknikariak –araudiak, izan ere, titulazio hori eskatzen du–; berritik sartzen diren langileei, ordea, titulu hori eskatzen zaie. Zerbitzu hori, halaber, suhiltzaileek eta boluntarioek ematen dute.

Zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko adierazleak lortzeko eta haren prestazioa kontrola- tzeko tresna informatikoak badaude.

- Ekipamendu medikoaren mantentzea: jasota uzten dira ekipamenduan egindako errebisio guztiak, eta enpresa esleipen-hartzaileari erantzukizun zibileko aseguru bat eskatzen zaio.

Egiaztatu dugu prestazioaren hasierari erreparatuta, kontratu batzuen sinadura atzeratu egiten dela.

- Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko (CUN) kontratua, CUNeko, Nafarroako Unibertsitateko, Nafarroako Institutu Zientifiko eta Teknologikoko eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundaziooko langile eta pentsiodunei eta haien senideei oinarritzko osasun laguntza eta laguntza espezializatua ematekoa, 2012ko otsailaren 3an sinatu zen lau urteko epe baterako, 2015eko abenduaren 31 bitarterako hain zuzen.

Prestazio horren gastuak 5.106.112 euro egin zuen 2014an; horietatik, 9.353 euro gutxiago kontabilizatu ziren. Hil bakoitzaren amaierako onuradunen banakako osasun txartelen kopurua arabera fakturazten da, osasun laguntza ematen den ala ez alde batera utzita. Kontratu horren onuradunak 7.025 dira; horietatik 6.435 aktiboak dira.

Prezioa urteko 772 eurokoa da onuradun bakoitzeko, eta 2012an negoziatu zen, 2012ko biztanle bakoitzeko batez besteko osasun gastua erreferentziatzat hartuta: 1.016 euro. 2011. urterako kalkulaturako prezioa, aurreko kontratua indarrean zegoeneko, onuradun bakoitzeko 725 eurokoa izan zen.

O-NOZek 1.016 euroko batez besteko gastua kalkulatu zuen honako zatiketa eginez: laguntza espezializatuko, prestazio eta itunetako eta osasun metaleko aurrekontu programetan 2012rako aurreikusitako gastua –inbertsioak kenduta– eta 2001-2012 aldian egindako inbertsioen urteko batez bestekoa (20,64 milioi) zati 2011ko urtarrilaren 1eko biztanle kopurua. Halaber, 2010. urteko oinarritzko osasun laguntzako gastua sartu zen, Iruñerriko bost osasun etxeei zegokiena, batez beste 12.116 banakako osasun txartelekin. Gure ustez, irizpide horiek ez dira erakusgarriak CUNekiko kontratuaren onuradunei osasun laguntza emateko prezio bat negoziatzeko erreferentziako kostu bat ezartzeari begira.

- Nasuvinsari azterlan eta txosten teknikoak egiteko enkargua: urtarrilean eta otsailean zerbitzua ematen jarraitu zen, enkargua onetsi gabe egon arren, eta hilabete horietan 31.467 euro fakturatu ziren, 2013ko prezioei eutsita; prezio horiek, ordea, 2014ko ekitaldirako onetsiez gora-koak ziren, beraiekin ekarri zuten 2014ko prezioekin egin beharreko fakturazioa baino 8.726 euro gehiagoko gastua egitea.

- Lurralde Politikako Gizarte Kontseiluaren eta berariazko batzordeen dietak onetsitako prezioen arabera ordaindu dira, eta bertaratzeak kasuko aktaren bitartez justifikatzen dira. Dieten ordainketan ez da PFEZaren atxikipenik egiten.

- Natura interpretatzeko zentron kudeaketa: kontzeptu horretan albaitari batekin kontratatutako zerbitzuak sartzen dira, aurreko ekitaldietan GAN sozietate publikoari enkargatutakoak: 18.149 euro egiten dute zerbitzu horiek.

Hiru eskaintza eskatu ziren, eta haietako bakarrak onartu zuen. Ez zen preziorik ezarri. Adierazi zen orduak hitzarmenekoak izan behar zutela. Hasierako data finkatu zen eta esleipen-hartzaileari eskatu zitzaion "emandako zerbitzuak komenigarritzat jotzen zuen moduan fakturatzeko". Aurkeztutako fakturretan ez da orduen zehaztapenik ematen.

- Naturguneen mantentzea guztira 321.239 euroko guztizko aurrekontua duen enkargu baten zati bat da; horretatik, ehuneko 62,52 hirugarrenekin kontratatutako GANek.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak justifikatu zuen sozietate publikoak hirugarrenekin enkarguaren ehuneko 50 baino gehiago kontratatzea, esanez zerbitzuaren osotasunaren prestazioan eraginkortasun handiagoa lortuko zela, eginbehar guztiak enkargu berean biltzeagatik, sozietate publikoaren koordinazioarengatik eta eskualdeko enprekin kontratatuta efizientzia handiagoa lortzeagatik.

Gure gomendioak:

- *Sozietate publikoekiko kontratu eta enkarguak behar adina denborarekin izapidetzea, esleipen-hartzaile berriak prestazioa hasi dadin behin kontratuaren edo enkarguaren iraupen osoa amaituta.*
- *Xehetasunez eta modu exhaustiboan justifikatzea sozietate publikoei enkarguak egitea ekonomikoagoa, efizienteagoa eta eraginkorragoa dela zerbitzuak merkatuan kontratatzea baino.*
- *Sozietate publikoetako langileek beren zerbitzuak modu iraunkorrean, Administrazioaren egoitzetan eta haren zuzendaritza funtzionalaren pean emateko egoera aztertzea, eta ebaluatzea ez ote den hori egiten egiturazko beharrianak badaudelako, Administrazioaren langileek artatu beharko lituzketenak.*
- *Hezkuntza Departamentuaren eta gurasoen elkarteen arteko lankidetzak-akordioak sinatzea, azken horiek antolatutako eskola-garraiako, unibertsitatez besteko derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzetako ikasleentzat.*
- *Zerbitzuen kostua –besteak beste, osasun prestazioena– kalkulatzeko sistema bat ezartzea.*
- *CUNekiko kontratuak 2015eko abenduaren 31ko mugaeguna duenez, aztertzea ea zerbitzu hori kanpoko baliabideekin eman behar den –hala bada, konkurrentzia sustatu behar da– edo sare publikoak bere gain har dezakeen.*
- *PFEZaren atxikipena egitea Lurralde Politikako Gizarte Kontseiluaren eta berariazko batzordeen dieten ordainketan.*

#### VII.4.2 Kontratazio administratiboa

2014an esleitutako honako esparru-akordioa fiskalizatu da:

Erakunde kontratatzailea	Helburua	Mota	Prozedura	Lizitazio-prezioa	Esleipenaren zenbatekoa
O-NOZ	Kontsultetarako esparru-akordioa; itxaron zerrendetako esku-hartzea	Laguntza	Irekia	2.970.000	2.970.000

Oro har, itxaron-zerrendetatik heldu diren kontsulten, prozedura diagnostiko eta terapeutikoen eta ebakuntza kirurgikoen osasun prestazioa kontratatzeke esparru-akordioa Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeari jarraituz izapidetu zen, eta akordio horren babesean esleitutako kontratuetatik heldutako gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude.

2013ko ekainaren 26an, Nafarroako Gobernuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari baimena eman zion aurreko lerrokadan adierazitako osasun prestazioak kontratatzeke esparru-akordio bat egiteko.

2013ko irailean, espedientea onetsi zen eta hautapen-prozedura irekitzea xedatu zen. Erabaki zen esparru-akordioaren indarraldia 2014an hasi eta 2016ko abenduaren 31n amaituko zela. Honako hauek izan ziren zenbatetsitako balioa, esleipen-prezioa eta 2014ko gastua:

	2014rako zenbatetsitako balioa	2014rako esleitutako prezioa	2014ko gastua
Osasun laguntza	2.400.000	2.400.000	1.372.256(1)
Protesi kirurgikoak	570.000	570.000	164.861
<b>Guztira</b>	<b>2.970.000</b>	<b>2.970.000</b>	<b>1.537.117</b>

(1) Erabilera bereziko onuradunei osasun laguntza emateko 28.449 sartzen dira. 2014ko apiriletik abendurako aldiari dagokion gastua.

Proposamen bakarra jaso zen, ehuneko 50na Nafarroako Unibertsitate Klinikak eta San Miguel Klinikak aurkeztutakoa. Guztira eskaintako prezioa lizitazio-prezioaren berdina izan zen.



O-NOZek konprobatzen du bi kliniketan laguntza jasotako gaixoei laguntza horretarako baimena eman zaiela, nolako laguntza jaso duten eta zenbat fakturatu den. Egiaztatu dugu kontabilizatutako zenbatekoak kasuko fakturretan bermatuta daudela. San Miguel klinikaren fakturazioaren kasuan, egiaztatu dugu fakturaturako kontsultak, probak eta ebakuntzak bat datozela esparru-akordioan ezarritakoekin; halaber, fakturaturako prezioak esleitutako prezioei dagozkie. Egiaztapen hori ezin izan da egin CUNen kasuan, zeren eta zentro horrek batera fakturatzeko baitu ituna dela-eta deribatutako gaixoei eta esparru-akordioaren ondorioz deribatutakoek dagoki-ena.

Esparru-akordioan jasota dago aukera dagoela O-NOZetik deribatutako gaixoentzat klinikek, justifikazio medikorik gabe, erabiltzen dituzten protesiak fakturatzeko, nahiz eta haiek ez egon O-NOZen itunaren zerrendan. Egiaztatu dugu ezen, kasu hauetan, klinika pribatuak fakturaturako prezioa O-NOZen protesien prezioari dagokiola.

#### VII.5. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL- TRANSFERENTZINGATIKO GASTUAK

2014ko ekitaldian baimendutako transferentzia arruntek 1.386,87 milioi euro egin zuten. 2014an aitortutako betebeharren gutzizkoaren ehuneko 36 egiten dute. Hitzarmen ekonomikoaren ondorioz Estatuari egiten zaion ekarpenak transferentzia arrunten gutzizkoaren ehuneko 40 egiten du.

2014ko transferentzia arrunten gastuen aldea, 2013ko transferentzia arrunten gastuekikoa, ez da aipagarria, zeren eta ehuneko 0,02 egin baitzuten behera; hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da Estatuarentzako ekarpenak ehuneko hiru egin duela behera, 16 milioi gutxiago baitira, eta familiei eta beste partikular batzuei egindako transferentzietan ehuneko zortzi egin dutela gora (besteak beste, farmazia-prestazioak ehuneko bost igo dira).

2014an baimendutako kapital-transferentziak 123,78 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharren gutzizkoaren ehuneko hiru egiten dute. Ehuneko 41 enpresa pribatuei eman zitzaizkien; ehuneko 30 familia eta partikularrei; ehuneko 17 toki entitateei, eta gainerako ehuneko 12a, berriz, honakoen artean banatzen da: irabazi asmorik gabeko erakundeak, fundazioak eta enpresa publikoak.

2013an emandakoak baino ehuneko 14 gutxiago izan ziren, batez ere enpresa pribatuentzako kapital-transferentziak ehuneko 24 jaitsi zirelako. Halaber, nabarmentzekoa da toki entitateentzako kapital-transferentzien funtsa ehuneko 28 jaitsi dela.

**VII.5.1. Aztertutako lagina**

Honako hau izan da 2014an emandako transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien aztertutako lagina –hura hautatzeko kontuan hartu da, beste irizpide batzuen artean, Ganbera honek "Nafarroako Gobernuak entitate eta elkarte batzuei emandako diru-laguntzei" buruzko txostena–:

Departamentua	Kontzeptua	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegua	Moderna fundazioa	300.000	
	CEINi egindako transferentzia	599.143	
	CPENi egindako transferentzia	140.000	
4. Hezkuntza	NUP Finantzaketa	51.794.279	
6. Sustapena	Etxebizitzak zaharberritzea		25.247.582
	Nasuvinsari egindako transferentzia	951.963	
7. Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	Kapital-transferentzien funtsa, zola-berritzeetarako		3.773.032
	INTIAri egindako transferentzia	4.564.246	
	GANASARI egindako transferentzia	872.372	
A. Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanak	Pablo Sarasate Fundazioa	2.551.696	

Gainera, Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoaren eraikuntza aztertu zen, zeinaren lizitazioa Foru Administrazioak egin baitzuen. Kapital-transferentzien moduan kontabilizatu zen; honako hauek dira datuak:

Helburua	Mota	Prozedura	Lizitazio-prezioa	Esleipenaren zenbatekoa	Esleipenaren baja
Sarrigurengo ikastetxearen eraikuntza	Obrak	Irekia	2.008.602	1.566.710	% 22

Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa eraikitzea lehentasunezko jarduketa bat zen Nafarroa 2012 planean. Kontratazio espedientearen izapidetzea 2010eko abuztuaren hasi zen, eta gerarazi egin zen. 2014ko abenduan, "A" jarduketa-arloari (lehen hezkuntzako ikasgelak, gimnasioa eta bulegoak, besteak beste) eta "C" jarduketa arloari (jantokia eta sukaldaria) zegozkien obrak esleitu ziren, prozedura ireki bidez eta presako izapidetze aurreratuarekin, eskolaratze beharrak eraginda.

Sarrigurengo Ikastetxearen obren kontratazio-espedientea, haren esleipena eta betetzea, oro har, kontratuei buruzko legediaren arabera izapidetu dira.

Gainerako transferentziei –arruntak zein kapitalekoak– dagokienez, egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimenduta, kontu-hartzaitzak onartuta, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela, eta diru-laguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu direla.

Gainera, Ganbera honek Iruñeko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazioan, egiaztatu zen Udaleko klase pasiboen urteko kostu garbiaren kalkuluan, zeina Nafarroako gobernuaren diru-laguntza zehazteko oinarri gisa erabiltzen baita, ez dela deskontatu Udalak Gobernutik, udal suhiltzaileen kidegoko langileen kuota patronalaren kontzeptuan, jasotzen duen diru-sarrerara, suhiltzaile horiek Nafarroako Larrialdi Agentzian; horrek, izan ere, Gobernuak Iruñeko Udala behar baino 864.487 euro gehiago finantzatzea.

Aztertutako transferentzia eta diru-laguntzak direla-eta, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Moderna Fundazioa: fundazioak, 2014an, 300.000 euroko diru-laguntza jaso zuen 2014ko ekitaldiko jarduketak finantzatzeko. Horrek 510.820 euroko gastua ekarri zuen.

Diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean ezartzen da fundazioak garatutako jardueren oroitidazki xehakatu bat aurkeztuko duela, non Moderna Planean 2030eko ekitaldirako aurreikusitako helburuen balorazio bat jasoko baita.

2014ko jardueren oroitidazkian, hartutako funtsak eta parte hartutako enpresa, proiektu eta ekitaldietan egindako jardueren xehetasunak ematen dira. Jarduera horiek ez dira zuzenean lotu 2014ko jarduketa planean aurreikusitakoekin Osasunaren Ekonomiaren, Ekonomia Berdearen eta Talentuaren Ekonomiaren arloetan, eta ez da baloratu, ezta ere, nolako ekarpena egiten duten informazioa ematen deneko Moderna Planeko epe luzeko helburuak lortzeko; informazio horretatik gehiena ez dago 2014an gaurkotua.

- 2014. urtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) 51.794.279 eman zitzaizkion transferentzia arruntetan; horietatik, ehuneko 94 irakaskuntza- eta ikerketa-lanak finantzatzeko eta gainerakoa irakasleen lansari osagarriak finantzatzeko.

NUP finantzatzeko hitzarmen horretan, 2014ko ekainaren 20an sinatuan, Gobernuaren eta NUPen arteko konpromisoa jasotzen da, unibertsitate-jardueraren urte anitzeko finantzaketa eredu berria ezartzeko, bi entitateen artean sortutako batzorde parekidearen lanekin jarraituz.

Ez da onetsi NUPen urte anitzeko finantzaketa eredu.

- Nasuvinsa sozietate publikoak 2014an 951.963 euro jaso zituen Foru Administrazioaren transferentzia arrunten bidez.

Kopuru horretatik, 131.377 euro Nafarroako Garraioaren eta Logistikaren Agentzia (NGLA) sozietate publikoaren funtzionamendu-gastuak, 2014ko bigarren seihilekoak, finantzatzeko izan ziren. Sozietate hori Nasuvinsak xurgatu zuen 2014ko uztailaren 1ean. Gastu hori 2015eko urtarrilaren 15ean onetsi zen. Nasuvinsak ez zituen adostuak gastu horietarako finantzaketa-baldintza berriak, NGLA xurgatu eta ondorenerako.

- INTIA sozietate publikoak Foru Administrazioetik 4,56 milioi euro jaso zituen transferentzia arrunten kontzeptuan, honako xede hauek betetzeko:

a) I+G+b sustatzea nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpeneko teknikan eta aholkularitza tekniko ematea nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko ekoizpenerako eta elikagai-segurtasunerako. 2,8 milioi

b) Kontseilu arau-emaileak sustatu eta haiei laguntza emateko jarduerak. 1,13 milioi.

c) Nekazaritzaren eta nekazaritza-elikagaien arloko prestakuntza-ekintzak. 0,15 milioi.

d) Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuan ureztaketa abian jartzeko jarduerak. 0,48 milioi.

Transferentzia guztiak, azken hori kenduta, kasuko hitzarmenetan arautu ziren. Ez dago jasota Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrian ureztaketa abian jartzeari buruz sozietate publikoak aurkeztutako oroitidazkiari buruzko jarraipenik egin denik, ez eta hari onespena eman zaionik ere.

Gainera, INTIAK 14,94 milioi euro jaso zituen Nafarroako Ubidearen kanona ordaintzeko.

- Pablo Sarasate Fundazioa.

Pablo Sarasate Fundazioa 1997an sortu zen Nafarroako Orkestra Sinfonikoa kudeatzeko. Fundazioak 2.551.696 euro jaso zituen Foru Administrazioetik 2014an. Kopuru horretatik, 1.600.500 euro diru-laguntza izendun bat da, Fundazioaren jarduerak finantzatzeko eta haren funtzionamendurako, 2013ko irailaren 1etik hasi eta 2014ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako. Gainerako, 951.196 euro, 2014ko urrian eta abenduan eman ziren, zuzenean, baliabide ekonomiko aski ez zuelako, aurreikusita zeuden babesletzak gauzatu ez zirelako. Adierazi bezala, diru-laguntzaren zati bat langileen nominak ordaintzeko erabili zen.

Fundazioaren langile-gastuak 4.118.288 eurokoak izan ziren –gastu guztien ehuneko 73–, eta 70 pertsonari dagozkie; besteak beste, zortzi kontseilari eta goi mailako zuzendari bat.

Diru-laguntzak zuzenean emateari buruzko justifikazioan ageri da hartzaile bat hautaturik beste edozein interesduni diru-laguntza eskuratzeko aukera kentzen zaiola, diru-laguntzaren xedea dela eta. Diru-laguntzei buruzko Foru Legeak diru-laguntzak zuzenean emateko kasu hori jasotzen du; betiere, kasu berezi moduan. Diru-laguntzaren onura publikoa oinarritu zen orkestrak Foru Komunitatearen kultur garapenean daukan parte-hartzean.

Fundazioak 2010etik 2012ra bitarte urtean 3,5 eta 4,2 milioi euro inguru jaso ditu; 2013an, beriz, 1,65 milioi jaso ditu, eta 2014an, azkenik, 2,55 milioi euro.

- Etxebizitzak zaharberritzeko kapital-transferentziak: diru-laguntzen onuradunei hartutako konpromisoak –hain zuzen ere, obrak hasi baino lehen behin-behineko kalifikazioa aurkezten dutenean hartutakoak, 26,04 milioi 2014ko abenduaren 31n– ez dira kontabilizatzen hitzartutako gastu gisa, erreserba gisa baizik; horrenbestez, ez dira jasotzen etorkizuneko gastu hitzartuen egoera-orrian. Bestalde, 2014ko abenduaren 31n kontabilizatutako kreditu-erreserbak 13,33 milioi dira, eta ez dituzte jasotzen data horretan hartutako konpromiso ekonomiko guztiak.

- Toki entitateei egindako kapital-transferentziak

Toki entitateei egindako kapital-transferentziek, zolaberritze lanak egitekoek, 3,77 milioi euroko gastua ekarri dute 2014an. Lau kontusailetan kontabilizatutako gastuen hurrengo lagin hau fiskalizatu dugu:

	Gastua, guztira	Toki entitateen kopurua	Aztertutako gastua	Toki entitateen kopurua
Zolaberritzea eta sareak, araubide orokorrean	1.899.461	15	237.876	1
Zolaberritzea sarerik egin gabe, araubide orokorrean	814.609	11	55.297	1
Zolaberritzea eta sareak, araubide berezian	431.039	3	344.455	1
Zolaberritzea sarerik egin gabe, araubide berezian	324.299	3	23.199	1

Ekarpen horiek 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planean sartzen dira. Plan hori urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen bidez onetsi zen. Planak zolaberritze-obrak finantzatzeko araubide orokor bat ezartzen du, inbertsioaren ehuneko 70 egiten duena. Portzentaje hori igo ahal izanen da ehuneko 80raino finantzaketarako araubide berezian sartutako zolaberritze-obren kasuan.

Egiaztatu da aztertu diren ekarpenak 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren araudia- ren arabera zehaztu, justifikatu eta ordaindu direla.

Egiaztatu da bi urtera bitarteko atzerapena dagoela Inbertsioen Planeko zolaberritze-obren exekuzioaren aurreikuspenetik toki entitateak haiek esleitzen dituen arte.

Aztertutako obretako bat urgentzia aitortukotzat deklaratu zen Inbertsioen Planean jasotzearen eraginetarako. Kalifikazio horren justifikazioa Udalaren eskaria da, hornikuntza- eta saneamendu-azpiegiturak narriatuta egoteari buruzko adierazpen huts batekin, zeren eta egoerak larriki kaltetzen baititu kaleetako eraikinak, 45 urte dituztenak.

2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Plana 233,36 milioi euroko diru-zuzkidurarekin onetsi zen, udalen eta kontzejuen eskumeneko azpiegituren eta inbertsioen finantzaketarako, eta beste plan bat onetsi bitarte luzatu zen.

Ondoren, planaren betetzea erakusten dugu, 2009-2014 aldiari dagokionez, betetze hori plana onetsi zuen urriaren 24ko 16/2008 Foru Legean ezarritako aurreikuspenekin alderatuta:

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira
Ohiko plana	56.197.537	57.602.474	54.542.536	56.018.599			224.361.146
Plan berezia			4.500.000	4.500.000			9.000.000
<b>Aurreikusitakoa, guztira</b>	<b>56.197.537</b>	<b>57.602.474</b>	<b>59.042.536</b>	<b>60.518.599</b>			<b>233.361.146</b>
Gutxitzea				-23.604.450			-23.604.450
Aurreikusitakoa, aldaketak barne							209.756.696
Aitortutako betebeharrak (1)	43.598.140	52.478.5458	13.395.331	32.039.781	16.926.299	11.232.058	169.670.154
Betetzeko dagoena							40.086.542

(1) Aurreko planei dagozkien betebeharrak kenduta, Toki Administrazioiko Departamentuaren arabera.

2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren betetzea ehuneko 73koa da, hari buruzko arauetan hasiera batean onetsitako aurreikuspenekin alderatuta. Kontuan hartzen badugu 2012ko ekitaldian planean kapital-ekarpenetarako aurreikusitako zuzkidura 23,6 milioi euro jaitsi zela, planaren betetzea ehuneko 81 ingurukoa dela esanen genuke.

2014ko abenduaren 31n, 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planeko kapital-ekarpenetatik 5.670.529 euro kreditu eskuraezineko egoeran zeuden.

2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeak ezartzen du toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa osatzen duten eta Nafarroako Parlamentuak onetsi dituen kredituak, kapital transferentzien arloan, aurrekontuetan erabili gabe badaude ekitaldia ixtean, edo jatorria ekitaldi itxietako ekonomian badute, diruzaintza-gerakin atxikitat hartuko direla.

2014ko ekitaldiko aurrekontuan, 20 milioiko hasierako kreditu bat bildu zen, diruzaintza-gerakin atxikiarekin finantzatu behar zena eta aurrekontuari gehitu behar izan zitzaiona aurrekontu-aldaketa baten bitartez.

2014ko abenduaren 31n Toki Inbertsioen Planari atxikitako diruzaintza-gerakina 65,50 milioi-koa da; horietatik, 40 milioi 2009-2012 Planari dagozkio eta gainerakoa aurreko planei.

Gure gomendioak:

- *Udalarekin erregularizatzea eman zaizkion gehiegizko diru-laguntzak, udal klase pasiboen kostu garbia finantzatzeko.*

- *Moderna Planaren oroitidazkian helburuen betetzea eta balorazioa aurkeztea, jarduketa planean ezarritako helburuekin eta Moderna Planaren epe luzeko helburuekin lerrokatuta.*

- *Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jardueraren finantzaketarako eredu berri bat onestea, helburuak eta haien betetze-maila neurtzeko adierazleak ezarriz, zeinak beharrezkoak baitira emaitzetan oinarritutako finantzaketa baterako.*

- *Gogoeta egitea zuzeneko diru-laguntzak emateko irizpideari buruz, entitateentzako laguntza finantzario gisa –oraingo kasuan Pablo Sarasate Fundazioari–, beste finantzabide batzuetatik aurreikusitako diru-sarrerak lortu ez dituztenean.*

- *Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzei dagokien gastu-konpromisoa kontabilizatzea, behin behineko kalifikazioa aurkezten denean.*

- *Aurrekontuaren hasierako kreditu gisa ez sartzeko diruzaintza-gerakin atxikiarekin finantzatutako gastuak.*

### VII.5.2 Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artan sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributujarduera. Hitzarmen hori 1990eko uztailaren 31n sinatu zen eta abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legean araututa dago.

Hitzarmenean ezartzen dira, batetik, harmonizazio fiskalaren irizpideak eta, bestetik, estatuko Administrazioak Nafarroan ematen dituen eskumen transferitu gabeak direla-eta Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa.

Honako hauek izan ziren hitzarmen ekonomikoari dagozkion gastuen eta diru-sarrereren eragiketak, 2014ko ekitaldian kontabilizatuak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Gastuak	2013	2014	Aldea
Estatuarentzako ekarpena	571.859	555.835	% -3
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>571.859</b>	<b>555.835</b>	<b>% -3</b>

Diru-sarrerak	2013	2014	
BEZaren ondoriozko doitzeak	646.767	750.869	% 16
Alkoholaren gaineko zerga bereziak	-34.048	-34.934	% -3
Garagardoaren gaineko zerga bereziak	8.501	4.331	% -49
Tabakoaren gaineko zerga bereziak	15.507	14.374	% -7
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziak	19.313	-15.866	% -182
BEZaren eta zerga berezien doikuntzak, guztira	656.040	718.775	% 10
Mendekotasunari arreta eskaintzea	11.554	12.219	% 6
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>667.594</b>	<b>730.994</b>	<b>% 9</b>

#### Gastuak

2014an estatuari egindako ekarpenak 555,83 milioi euro egin zuen. Ekitaldian aitortutako be-beharren guztizkoaren ehuneko 15 da. 2012ko aurrekontuko hasierako kreditua 534,87 milioi eurokoa izan zen. Hartatik, 498,31 milioi 2014ko ekitaldira luzatu ziren, eta, bestalde, 57,52 milioi handitu zen.

Nafarroako Gobernuak 2013ko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren 2014rako ekitaldirako luzatutako 2012ko aurrekontu orokorrak betetzeko arauak. Hauxe ezartzen da haietan: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak berehala aztertu eta negoziatuko du zer zenbateko ordaindu behar dion Estatu Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa, eta 2014rako gutxienez ere 70 milioi euroko gastu-murrizketa ekarri behar baitu luzatutako aurrekontuan kontzeptu horrengatik aurreikusitako zenbatekoan. Aurreikuspen horiek ez ziren bete.

2014rako behin-behineko ekarpen likidoa kalkulatu zen 2010eko oinarri-urtearen ekarpen likidoari, 485,51 milioi, aplikatuz 2010-2014 aldirako ezarritako behin-behineko eguneratze-adierazlea. Adierazle hori zatidura hau da: estatuak hitzartutako tributuengatik egindako diru-bilketa zati estatuak oinarri-urtean egindako diru-bilketa.

Desadostasun batzuk badaude bi administrazioen artean behin-behineko eguneratze-adierazlea zehazteko orduan, zenbait hidrokarburoen gaineko txikizkako salmentaren gaineko antzinako zerga hidrokarburoen gaineko zerga berrian sartzearen ondorioz

2014an, 555,83 milioiko gastu bat kontabilizatu zen, Ekonomia Departamentuak ekitaldi horretarako zenbatetsi zuen behin-behineko ekarpenari dagokiona. Kontabilizatutako guztizko gastutik, Estatuari, bi administrazioen arteko desadostasuna zela eta, 520,69 milioi ordaindu zitzaizkion. Kopuru hori adostutako azkeneko behin-behineko ekarpen likidoari dagokio. 2014ko ekitaldiaren

itxieran ordaintzeko dagoen kopurua 2014ko ekarpeneko 35,15 milioi dira, 2013ko ekarpeneko 25,09 milioiko kopuruaz gainera.

2014an, bi administrazioek ez zuten ez onetsi, ez erabaki 2013ko ekitaldiko ekarpenaren behin betiko likidazioa.

#### *Tributu bidezko diru-sarrerak*

Hitzarmenak doikuntza batzuk aurreikusten ditu tributuen diru-bilketan, bai Nafarroari eta Estatuko gainerakoari egoztekoak zaizkien zuzeneko zergen zenbatespena perfektionatzeko, bai zeharkako zergetarako.

Aplikaturako doikuntzak zeharkako zergei, BEZari eta zerga bereziei dagozkie, eta hitzarmen ekonomikoan aurreikusitako formulen eta metodoen arabera kalkulatu dira.

Kasuko tributuen diru-sarreraren kontusailean kontabilizatzen dira, eta kontusail horretan sartzen da, halaber, 2014ko behin betiko likidazioaren aurrerakina, BEZaren eta zeharkako zergen doikuntzengatik -29.996.371 euro 2014an-.

Foru Administrazioak eta Estatuko Administrazioak ez dute adostu hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren 2013ko doikuntzari dagokion behin betiko likidazioa. Hala eta guztiz ere, Estatuak, alde bakarretik, likidazioa bere aldeko 19.665.669 euroan zenbatetsi zuen, eta Foru Komunitateari BEZaren doikuntza zela-eta egin beharreko diru-sarreratik deskontatu zuen. Nafarroako Gobernuak Estatuari eskatu zion deskontaturako diru-sarrera itzultzeko, eta, erantzunik jaso ez zuenez, Estatuak deskontaturako diru-sarrera konpentsatu zuen 2014ko laugarren hiruhilekoaren behin-behineko ekarpenaren ordainketan.

#### *Errekurtsoak*

Honako errekurtsoak daude jasota, hitzarmen ekonomikoa dela eta:

1. 2014ko uztailaren 25ean, Estatuko Administrazioak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean, Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordeak, Estatuko Administrazioaren eta Foru Administrazioaren arteko eskumen-gatazkan, emandako ebazpenaren aurka, 2012an sortutako eskumen-gatazka negatiboa ezetsita.

Horri dagokionez, Estatuko Administrazioak Nafarroako Gobernuari eskumengabetasunaren deklarazioa aurkeztu zion, Nafarroako lurraldean kokaturako faktoria batean fabrikaturako ibilgailuak merkaturatzen dituen merkataritza-sozietate bateko jasandako BEZaren itzulketa zela-eta. Nafarroako Foru Komunitateak, halaber, adierazi zuen eskumenik ez zuela itzulketa hori zela-eta.

Tributu Administrazioaren Estatu Agentziak erabaki zuen BEZaren bidegabeko kenkari bat eginga zela, 1.513.750.174,57 eurokoa, eta erabaki zuen zenbateko hori ez zitzaiola exijitu behar zergapekoari, ibilgailuak merkaturatzeko sozietateari, baizik eta Nafarroako Foru Ogasunari.

2014ko azaroaren 26an, Auzitegi Gorenak onartu zuen errekurtsoa hirurogei eguneko epe batez etetea, eta 2015eko apirilaren 7an erabaki zuen errekurtsoa behin-behinekoz artxibatzea, prozedurari jarraipena ematea eskatzen ez den bitartean edo auzialdia iraungi arte.

Hitzarmen ekonomikoa aldatzen duen ekainaren 24ko 14/2015 Legeko hamaikagarren xedapen gehigarriak prozedura bat ezartzen du Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordean Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen artean planteaturako eskumen-gatazka ebazteko. Ez dira formalizatu aipaturako lege horretan eskumen gatazka ebazteko exijitutako betekizun guztiak, Auzitegi Gorenean aurkatutako BEZaren itzulketa, behin-behinekoz artxibatua, dela-eta.

2. Alderdi politiko batek administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zuen Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakien aurka; izan ere, erabaki horiek 2010-2014 bosturtekoan BEZaren diru-bilketaren doikuntza efektibo egiteko metodoa aldatzen zuten, 2012ko apirilaren 1etik aurrera. Aldaketa hori onetsi zen Nafarroako automobil enpresa baten ibilgailuak merkaturatzeko eta ustiatzeko sistema berriaren eragin fiskala orekatzeko, Foru Komunitatean mugatuz hiru aurrekontu-ekitaldietan, 2012, 2013 eta 2014koetan, 25 milioi euroko kopurura.

Formazio politikoaren errekurtsoa Auzitegi Nazionalak ezetsi egin zuen 2015eko urtarrilaren 22ko epaiaren bidez. 2015eko apirilaren 14an, Auzitegi Gorenak eman gabe deklaratu zuen alderdi politikoak Auzitegi Nazionalaren epaiaren aurka aurkeztutako kasazio errekurtsoa.

*Gomendatzen dugu Estatuko Administrazioarekiko desadostasunak ebaztea, Estatuaren ekarpenetik egiteko dauden doikuntzak eta hidrokarburoen gaineko zerga berezia direla eta.*

## VII.6. INBERTSIOAK ETA IBILGETU EZ-FINANTZARIOA

2014ko inbertsioek 94,13 milioi euro egin zuten, 2014an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 2,5. Betetze maila kreditu bateratuen ehuneko 52koa izan zen. Inbertsio nagusiak honako kontzeptuei dagozkie: ehuneko 37 errepide eta bideei; ehuneko 20 abiadura handiko trenaren Nafarroako korridoreari; ehuneko 10 ibilgetu ez-materialari, eta ehuneko 9 eraikinei.

Inbertsioen ehuneko 63 Sustapen Departamentuari dagozkio, eta ehuneko 18, berriz, Osasun Departamentuari.

2014ko inbertsioak 2013an betetakoak baino ehuneko 25 txikiagoak izan ziren. Foru Administrazioaren inbertsioek behera egin dute: 2008tik 305,98 eurokoak izatetik 2014an 94,13 milioi-koak izatera pasa dira

Erabilera edo zerbitzu publikoko azpiegituretan egindako inbertsioak –36.517.645 euro 2014an, eta errepide eta bideetan egindako lanei dagozkie– ez daude jasota balantzearen ibilgetu materialean; izan ere, ibilgetuaren galeren kontzeptuan izandako emaitza ekonomikoari egozten zaizkio.

Ibilgetu ukiezinetan egindako inbertsioak ere ez dira jaso ibilgetu ukiezin moduan balantzearen aktiboan; izan ere, emaitza ekonomikoaren kontuari egozten zaizkio ibilgetu ez-materialaren galera gisa: 12.366.484 euro dira 2014an.

Ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.

Kontu Orokorraren oroitidazkian ez dago informaziorik ondasun eta eskubideen inbentarioari buruz, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoaz bestera.

### VII.6.1 Inbertsioen lagina

Honako inbertsio hauek aztertu dira:

Departamentua	Kontzeptua	Gastua
Osasuna	Azpiegiturak, ekipamendua	4.330.625
Sustapena	Abiadura handiko trena	19.220.712

Egiaztatu da ekipamendu medikoa eta abiadura handiko trena direla eta aztertutako gastuak onetsita, justifikatuta eta kontu-hartzaileak onartuta daudela.

Ondoren, abiadura handiko trena dela-eta 2014an egindako inbertsioak aztertuko ditugu, bai eta ekitaldiaren itxieran zuten egoera ere.

#### *Zaragoza-Iruña abiadura handiko lineako Castejón-Iruña tartea*

Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea Nafarroako lurraldean –Castejón-Iruñerria tartea– erakitzeari buruz Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak 2010eko apirilaren 9an sinatu zuten hitzarmenaren arabera, Foru Administrazioak eraikuntza proiektuak idatziko ditu, Castejón eta Iruñerria arteko plataformako obren zuzendaritza eta exekuzioa kontratatuko ditu, abiadura handiko geltoki berriraino, eta desjabetze-espedienteen izapidetzean lagunduko du.

Sustapen Ministerioak, ADIFen bitartez, bere gain hartuko ditu eraikuntza-proiektuen idazketa eta Castejón eta Iruñerria arteko gainegituraren obren zuzendaritza eta exekuzioa.



Bi entitateek egin beharreko obretarako guztizko kostua 675 milioi eurokoa da. Kopuru horretatik, Nafarroako tartearen exekuzioa, 387,65 milioiko kostu zenbatetsiarekin, Foru Administrazioari dagokio. Hauxe da 2011-2014 aldirako programazioa:

(euroak, milioitan)

Castejón-Iruña tartea	Km.	Kostu zenbatetsia				
		Kostua, guztira	2011	2012	2013	2014
1. Castejón-Alesbes	14,50	71,10	7,10	28,40	35,60	
2. Alesbes-Erriberri	15,00	77,55	7,75	31,00	38,80	
3. Erriberri-Tafalla	15,00	76,00	7,60	20,40	22,00	26,00
4. Tafalla-Artederreta	15,19	78,00	7,80	21,20	21,00	28,00
5. Artederreta-Ezkirotz	10,20	60,00	6,00	24,00	16,65	13,35
<b>Eraikuntza, guztira</b>	<b>69,89</b>	<b>362,65</b>	<b>36,25</b>	<b>125</b>	<b>134,05</b>	<b>67,35</b>
Desjabetzeak		10,00	5,00	5,00		
Proiektua egitea eta obra zuzendaritza		15,00	2,00	4,00	5,00	4,00
<b>Kostua, guztira</b>		<b>387,65</b>	<b>43,25</b>	<b>134,00</b>	<b>139,05</b>	<b>71,35</b>

Estatuak, ADIFen bitartez, 2013tik 2017ra bitarteko ekitaldietan egindako obren kostua itzuli behar du. Honako hau da egutegia:

Itzulketak	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Zenbatekoa milioitan	10	25,65	30	170	152	387,65

2014ko abenduaren 31n, Foru Administrazioak egindako inbertsioa 72,47 milioi eurokoa zen, eta honako hauei zegokien:

Gastuak	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira
Eraikuntza			161.234	11.887.883	25.342.449	18.333.406	55.724.972
Desjabetzeak			436.837	4.336.906	3.098.573	222.012	8.094.328
Proiektuak, obra zuzendaritzak eta bestelako laguntza teknikoak	228.100	5.050.529	757.468	1.061.831	883.020	665.294	8.646.242
<b>Guztira</b>	<b>228.100</b>	<b>5.050.529</b>	<b>1.355.539</b>	<b>17.286.620</b>	<b>29.324.042</b>	<b>19.220.712</b>	<b>72.465.542</b>
Estatuak itzultakoa						35.650.000	35.650.000
Itzultzeko dagoena							36.815.542

2010eko apirilaren 9an sinatutako hitzarmenean programatu diren jarduketak ez dira exekutatatu aurreikusita zegoen egutegiaren arabera, eta desbideratze nabarmenak izan dira hitzartutako exekuzio-epetan. Hitzarmena ez da aldatu obren exekuziorako eta eraikuntza-kostuen gaurkotzerako jarduketan programazio berriaren arabera.

Castejón-Villafranca tartea, lehenengoa, bi azpi-tartetan zatitu da: 1.1 Castejón-Cadreita eta 1.2 Cadreita-Villafranca. Tarte hori jada amaituta dago. 1.1 azpi-tartearen obrak jaso gabe daude.

2014ko gastua 19,22 milioi eurokoa izan zen. AHTaren Nafarroako korridoreari zegozkion 2014ko kontusailen hasierako kreditua 102,48 milioi eurokoa zen.

2014ko abenduaren 31n, Foru Administrazioak 72,47 milioi gastatuak zituen; aurreikusitakoak, berriz, 387,65 milioi ziren. Horrenbestez, ehuneko 19 gastatu da. 72,47 milioiko gastutik, Estatuak, ADIFen bitartez, 35,65 milioi itzuliak zituen, finantzaketarako hitzarmenean ezarritako egutegia betez.

2014ko ekitaldirako 858.059 euroko hornikuntza zuzkitu zen, adostasuna adierazi gabeko gastuen kontzeptuan egindako finantza-inbertsio iraunkorren multzoan, eta desjabetzeekin lotutako gastuei dagokie. Kopuru horiek itzultzeko daude, hitzarmenaren jarraipenerako eratu zen azpi-batzorde teknikoak haiekiko adostasuna agertu arte.

Honako hauek izan dira Foru Administrazioak 2014ko abenduaren 31ra arte kontratatu dituen jarduketa nagusiak:

#### Laguntza teknikoa

Laguntza teknikoa	Urtea	Esleipen-prezioa	Gastua, guztira
Zuzendaritzari laguntza ematea eta eraikuntza proiektuak koordinatzea	2009	774.000	719.172
Bost tarteetan proiektuak	2009	3.874.100	3.268.626
Zundaketak eta entseguak	2010	1.673.982	2.024.942
Cadreita-Villafranca obrako zuzendaritza	2011	643.100	655.595
Castejón-Cadreita obrako zuzendaritza	2012	646.600	606.718
<b>Guztira</b>			<b>7.275.053</b>

#### Obrak

Castejón-Villafranca obra	Lizitazio-prezioa	Esleipen-urtea	Esleipen-prezioa	Esleipen-baja	Gastua, guztira
Cadreita -Villafranca azpitartea	42.426.854	2011	29.703.040	% 30	31.862.306
Castejón-Cadreita azpitartea	40.659.170	2012	28.461.419	% 30	20.723.739
<b>Guztira</b>					<b>52.586.045</b>

Ingurumenaren arloko laguntza teknikoa GANASA sozietate publikoari enkargatu zitzaion, eta desjabetzeetarako laguntza teknikoa, berriz, TRACASA sozietate publikoari.

Foru Komunitaterako 2012-2014 urteetako aurrekontua berrorekatzeko planean, aipatzen zen Nafarroaren aldi baterako zorpetze garbia Estatuak finantzatu gabeko inbertsioen saldoari dago kiola. Baldintza horri jarraituz, AHTa finantzatzera bideratutako zorpetzea 36.815.542 eurokoa da 2014ko abenduaren 31n. Data horretan, ADIFek itzultzeko dauka saldo hori. Zorpetzearen interesak Foru Administrazioaren kargura dira.

AHTn egindako inbertsioa, zeina 2013ra arte erregistratzen baitzen "Abiadura handiko trenaren Nafarroako korridorarako aribidean dauden azpiegiturak" ibilgetuko kontuan, 2014tik aurrera ADIFekiko zorren kontuetan jasotzen da, inbertsioaren ordainketak estatuko entitate horren kontura eginen baitira. ADIFEn saldo zordun kontabilizatua 50.000 euro handiagoa da 2014ko abenduaren 31n dagokiona baino.

*Iruñerriko trenbide-sarea*

Iruñerrian, abiadura handiko linea berriari buruzko jarduketak modu koordinatuan egingen dira, 2009an Sustapen Ministerioak, ADIFek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta "Abiadura Handia-Iruñerria" Partzuergoak (Foru Administrazioak eta Iruñeko, Zizur Nagusiko eta Zizur Zendeako udalek osatua) sinatutako protokolo orokorrari jarraituz). Aurreikusitako guztizko kostua 110 milioikoa da, eta honako jarduketek dagokie:

(milioiak)	
Iruñerriko trenbide sarea	Aurreikusitako kostua
Trenbide sare berriaren plataforma	52,40
Trenbide-gainegitura	20,20
Geltoki berria	26,00
Ukitutako zerbitzuak berrezartzea	3,90
Kalitate kontrola eta laguntza teknikoa	2,50
Lursailak	5,00
<b>Aurreikusitako kostua, guztira</b>	<b>110</b>

Abiadura handiko trenaren geltoki berria eta Iruñeko tren geltoki zaharreko inguruak garatzeko udalez gairik plan sektorialari 2010ean eman zitzaion behin betiko onespena. Garapen horren aurreikusitako kostua 296,76 milioikoa da, Partzuergoaren kontura.

Partzuergoak ADIFek eskualdatzen dizkion lursailen aprobetxamenduak eta kalte-ordain eskubideak izanen ditu, eta Udalez gairik Plan Sektorialaren esparruan sartuko dira. Kontraprestazio moduan, Partzuergoak trenbide-azpiegituraren kostuak ordainduko dizkio ADIFi, 105 milioi bitarte. Trenbide-saihesbide berriko eta geltoki berriko obrak ADIFek egingen ditu.

2014ko otsailean, udalez gairik plan sektorialeko birzartitze proiektua idazteko espedientea hasi zen; gaur egun, alegazioen fasean dago.

2009an sinatutako protokoloa ez da garatu ukitutako administrazioek kasuko hitzarmenak sinatuz.

Ebazteko dago Auzitegi Gorenari aurkeztutako errekurtsio bat, Iruña-Castejón tarteari eta Iruñeko kiribilguneari buruz Sustapen Ministerioak egindako ingurumen-eraginaren adierazpenaren indarraldia balio gabetzeari buruzkoa.

Horrenbestez, berez Estatuari dagokion baina foru lurraldeko jarduketek dagokienez Foru Administrazioak – Estatuarekin koordinatuta eta Estatuaren kontura– exekutatzeko duen inbertsioak atzerapen nabarmenak dauzka exekuzioan, eta zalantzak daude etorkizuneko diseinuari eta gauzatzeari dagokienez. Bi administrazioen artean sinatutako hitzarmena ez dago gaurkotua, gutxienez ere jarduketek programazio berriari eta haiekin lotutako kostuei dagokienez.

**VII.6.2 Aztertutako kontratuen lagina**

2014an esleitutako honako kontratuak fiskalizatu ditugu:

Erakunde kontratatzailea	Helburua	Mota	Prozedura	Lizitazio-prezioa	Esleipenaren zenbatekoa
O-NOZ	Ekipamendu medikoa	Hornikuntza	Negoziatua, Europar Batasuneko publikizatuerik gabekoa	183.400	171.489
	Zentro psikogeriatrikoa	Obrak	Irekia	12.683.939	11.035.027

Oro har, 2014an izapidetu ziren kontratazio-espeditenteak esleitu eta exekutatu ziren kontratuei buruzko legediaren arabera eta haietatik heldu diren gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude.

Aurreko datuen azterketatik, honakoa azpimarratzen dugu:

- San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoa.

Obra hau Nafarroa 2012 Planean jasota zegoen.

Nabarmentzekoa da obra honen esleipenaren izapidetzean eta exekuzioan izan den atzerapena. Hartara, 2013ko maiatzean, 12.683.939 gastu bat baimendu zen eta kontratazio-espeditentea onetsi zen, eta hurrengo urteko ekitaldian, obra 11.035.027 euroko prezioan eta 22 hilabeteko exekuzio-eparekin esleitu zen, lizitazio prezioa baino ehuneko 13 merkeago.

Kontratua formalizatu eta hilabeteko epean, zuinketa konprobatu eta obrei hasiera eman behar zitzaien. Obrak, ordea, kontratua sinatu eta ia lau hilabete beranduago hasi ziren. 2014. urtean aurreikusita zegoen ehuneko 10,5a exekutatu zen.

Gure gomendioak:

- *Egungo testuinguru ekonomikoaren barruan aztertzea inbertsio-politika, eta produkzio-inbertsioak, inbertsio lehenetsiak eta bideragarriak sustatzea.*

- *Abiadura handiko trenari buruzko hitzarmena gaurkotzea, hura jarduketan programazio berriari eta haiei lotutako kostuei egokitzeko.*

- *Urtero ibilgetuko ondasunen prezio-galerari dagokion amortizazioa zuzkitzea.*

- *Ibilgetu materialaren azpiegituren kontuan jasotzea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako betekizunak betetzen dituzten erabilerako nahiz zerbitzu publikoko inbertsioak.*

- *Ibilgetu ukiezinean erregistratzea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako betekizunak betetzen dituzten inbertsioak.*

## VII.7. ZERGAK, TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

*Zergak*

2014ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubideek 3.014,48 milioi euro egin zuten. 2013an baino ehuneko bi gehiago dira eta 2014ko eskubideen guztizkoaren ehuneko 78 egiten dute. Daukaten kopurua dela-eta, honakoak dira nabarmentzekoak: BEZa, 1.111,94 milioi euroekin, eta PFEZa, 1.096,88 milioirekin.

Ondoren, 2014an aitortutako eskubideak erakusten ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere, zerga-figura desberdinei dagokienez:

(euroak, milakotan)

Zergak	Eskubide garbiak, 2014	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketa (%)	Eskubide garbiak, 2013	Eskubideen aldea (%) 2014/2013
PFEZa	1.096.882	1.065.999	97	1.079.890	1,5
Sozietateak	208.878	199.900	96	166.734	25
Egoiliar ez direnen errenta	5.906	5.685	96	6.739	-12
Ondarea	48.627	47.574	98	54.528	-11
Oinordetzak eta dohaintzak	53.050	51.122	96	90.662	-41
Saltoki handiak	1.318	877	67	1.298	1,5
Energia elektrikoaren ekoizpena	13.315	12.928	97	23.249	-43
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>1.427.976</b>	<b>1.384.084</b>	<b>97</b>	<b>1.423.100</b>	<b>0,34</b>
BEZa	1.111.943	1.053.057	95	985.663	13
Berariazko kontsumoen gainean	411.634	410.258	100	476.212	-14
Aseguru primen gaineko zerga	19.453	19.453	100	20.386	-4,5
Ondare eskualdaketak.	33.301	31.083	93	27.679	20
Egintza juridiko dokumentatuak	10.176	9.890	97	12.128	-16
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>1.586.507</b>	<b>1.523.741</b>	<b>96</b>	<b>1.522.068</b>	<b>4</b>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>3.014.483</b>	<b>2.907.825</b>	<b>96</b>	<b>2.945.168</b>	<b>2</b>

Zeharkako zergek 1.427,98 milioi euro egin zuten: diru-sarrera guztien ehuneko 37 dira eta 2013an baino 4,87 milioi gehiago. Nabarmentzekoa da sozietateen gaineko zergak izandako igoera, ehuneko 25ekoa, bai eta oinordetzen gaineko zergak izan duen beherakada ere, ehuneko 41ekoa.

2014ko abenduaren 31n, zuzeneko zerga guztien ehuneko 97 bilduta zeuden; ehuneko horretatik urrun dago merkataritza-establezimendu handien gaineko zergaren diru-bilketa, ehuneko 67koa baitzen.

Zeharkako zergek 1.586,51 milioi euro egin zuten, diru-sarrera guztien ehuneko 41, hain zuzen. Ehuneko lau gehiago izan ziren 2013ko ekitaldian aitortutakoak; hau da, 64,44 milioi gehiago. Alde hori nagusiki azaltzen da BEZak izan duen igoerarengatik, ehuneko 13koa izan baita, eta hidrokaburoen, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergen jaitsiera, ehuneko 18koa eta 122koa hurrenez hurren.

2014ko ekitaldiaren itxieran, zeharkako zerga guztien ehuneko 96 bilduta zegoen.

2014an sortutako BEZari dagokion 1.111,94 milioi euroko kopurutik 750,87 milioi hitzarmen ekonomikoan ezarritako doikuntzen aplikaziotik heldu dira; zeharkako zerga, berriz, ehuneko 32 da.

2014ko ekitaldiaren itxieran konpentsatzekoa en BEZa –haren itzulketa hurrengo ekitaldiko urtariletik aurrera eska daiteke– 149,17 milioikoa zen. Saldo horretatik, 2015ean, 71 milioi itzultzeko eskatu zen. Itzulketa eskatzeko eskubidea, edo konpentsazioa eskatzekoa, bost urteren buruan iraungitzen da. Konpentsatu beharreko BEZa hirugarrenentzako kontabilitate lagungarriko kontu batean jasotzen da. "BEZ orokorra" izena dauka kontuak, eta ez da kontabilitate orokorrean islatzen. Aurrekontuari egotzen zaio itzultzen do konpentsatzen denean, baldin eta konpentsaziotik Zerga Ogasunari ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada.

2014ko otsailean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epai batek legez kanpokotzat deklaratu zuen zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga, "osasunerako zentimoa" izenaz deitutakoa. Zerga horrek 2002ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra. Epaia aplikatzekoa zaie iraungi ez diren urteetan bildutako kuotei, 2010etik hasi eta 2012ko abenduaren 31ra arte, zeren eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga hidrokarburoen gaineko zergan sartu baitzen.

2014. urtean, zergaren itzulketaren kontzeptuan eskubide negatiboak aitortu ziren, 2,16 milioi eurokoak.

Zerga Ogasunak jo zuen 2010-2012 aldian kobratutako kuotengatik itzuli beharreko kopurua 20 milioikoa izanen zela.

Ez da behar den zuzkidura egin zergak itzuli ahal izateko.

Nafarroako 2012erako aurrekontu orokorretako –2014rako luzatu zen– zerga-onuren aurrekontuak 1.441,5 milioi euro aurreikusten zituen, guztira, zerga-onuretarako; horietatik, 613,68 milioi zuzeneko zergei zegozkien eta 827,82 milioi, berriz, zeharkako zergei.

Kontu orokorreko kontabilitateko egoera-orrietan ez da informaziorik ematen zerga-onuren exekuzioari buruz.

Honako zerga hauek aztertu ditugu:

(euroak, milakotan)

Zergak	Eskubide garbiak, 2014	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketa (%)	Eskubide garbiak, 2013	Eskubideen aldea (%) 2014/2013
Energia elektrikoaren ekoizpena	13.315	12.928	97	23.249	-43
Ondare-eskualdaketak	33.301	31.083	93	27.679	20

- Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta aitortutako eskubideek 13,32 milioi egin zuten 2014an; 2013an, baino ehuneko 43 gutxiago, hain zuzen. Ekitaldiaren itxieran, 12,93 milioi kobratuta zeuden.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga Estatuan sortutako zuzeneko zerga bat da, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin; harekin, zama bat ezartzen zaie energia elektrikoaren ekoizteko eta energia hori sistema elektrikora sartzeko jardueri.

Nafarroan, abenduaren 26ko 24/2012 Foru Legeak, zerga hori arautzen duenak, energia elektriko berriztagarria ekoizteko instalazioetako titularrentzako edo kotitularrentzako zerga ordaintzeko salbuespena ezarri zuen, horien potentzia instalatu nominala ez bada, instalazio bakoitzeko, 100 kWkoa baino handiagoa, eta bost urteko salbuespena ezarri zuen dituzten ekoizpen orde ekoizpena handitzen duten beste berri batzuk jartzen dituztenentzat. Foru lege hori konstituzio-kontrakotzat eta deusez deklaratu zen Konstituzio Auzitegiaren 2014ko ekainaren 26ko epai batez.

2014ko bigarren hiruhilekotik 2015eko bigarren hiruhilekora, bera barne, zerga Estatuko Tributu Agentziak kudeatu zuen.

2015ean, ekainaren 24ko 14/2015 Legeak, Estatuaren eta Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzen duenak, ezarri zuen Nafarroako Foru Komunitatearena izanen dela zergaren ordainarazpena, argindarra ekoizten duen instalazioa bere lurraldean dagoenean, Estatuak ezarritako arau substantibo eta formal berak aplikatuz.

Martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legeak ezarri zuen 100 kWtik beherako potentzia nominala duen energia elektrikoaren ekoizpenerako instalazioen titularrek kenkari batzuk aplikatu ahalko dituztela, ordaindutako zergaren zenbatekoaren baliokideak, 2016ko errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzko lagin bat berraztertuta, egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zerga arau erregulatzaileretan ezarritakoaren arabera likidatu eta bildu zela.

- Ondare-eskualdaketen gaineko zerga.

Ondare-eskualdaketen gaineko zerga zeharkako zerga bat da, kostu bidezko ondare-eskualdaketak eta sozietate-eragiketak zergapetzen dituena.

2014an 33,30 milioi euroko eskubideak aitortu ziren; 2013an baino ehuneko 20 gehiago, bezaz. Ekitaldiaren itxieran, 31,08 milioi kobratuta zeuden.

Zerga-oinarria ondasunen balio erreala da; hau da, deklaraturako balioa edo Administrazioak egiaztatutako goragoko balioa. Horri dagokionez, Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak txosten bat egin zuen subjektu pasiboak deklaraturako balioaren adostasunari buruz.

Zenbait higiezin baloratzeko prozedura 334/2001 Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen, merkaturako batez besteko prezioak egiaztatze metodo bat –beste zerga batzuen artean, ondare-eskualdaketen gaineko zergaren eraginetarako ezarriak– aplikatuz. Foru dekretu horretan jasotako parametroen azken gaurkotzea 2005ean onetsi zen (236/2005 Foru Dekretua).

2014ko ekitaldian ez zen aplikatu, orokorrean, 2005eko Foru Dekretua, 2014an indarrean zegoena, etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak baloratzeko, zeren eta jo baitzen higiezineterako zenbatetsitako balioak, metodo indarduna erabiliz lortutakoak, handiagoak zirela merkaturatu zeudaten balioa baino. 2015eko ekainaren 17an, 39/2015 Foru Dekretuaren bitartez, 236/2005 Foru Dekretuko parametroen gaurkotze beharatu bat onetsi zen, 2011ko urtarrilaren 1etik atzera-eragina izanen zuena.

Zerga autolikidazio bidez kudeatzen da. 2014an, aitortpenen ehuneko 50 inguru bide telematikoz aurkeztu ziren. Deklarazioen grabaketa TRACASA sozietate publikoari enkargatu zitzaion.

2013ko abenduan, Nafarroako Zerga Ogasunak eta Notarioen Kontseilu Nagusiak eta Nafarroako Notarioen Elkargoak lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuten, zergei begira garrantzia duen informazioaren transmisioa arautzen duena, bai eta notarioek, zergadunen ordezkari gisa, zenbait zergaren aitortpenak –besteak beste, ondare-eskualdaketen gaineko zergarenak– bide telematikoz aurkeztea ere. Hitzarmena, gaur egun, oraindik ere garatzeko bidean dago.

Ondare-eskualdaketen gaineko zergaren lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergaren likidazioa eta diru-bilketa arau erregulatzaileretan ezarritakoaren arabera egin direla.

#### *Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak*

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 138,68 milioi eurokoak izan dira 2014. urtean. 2014ko ekitaldiko eskubide guztien ehuneko lau egiten dute. Kontzeptu hauei dagozkie:

(euroak, milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	Eskubide garbiak, 2014	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketa (%)	Eskubide garbiak, 2013	Eskubideen aldea (%) 2014/2013
Tasak	14.183	12.623	89	11.401	24
Salneurri publikoak.	47.469	41.865	88	48.192	-1,5
Ondasunak saltzea	1.700	1.681	99	1.786	-5
Eragiketen itzulketak	22.214	15.923	72	12.578	77
Bestelako diru-sarrerak	53.112	24.533	46	56.928	-7
<b>Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira</b>	<b>138.678</b>	<b>96.625</b>	<b>70</b>	<b>130.885</b>	<b>6</b>

Tasen bidezko diru-sarrerak 14,18 milioi eurokoak izan ziren; horietatik, 10,79 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie. 2014ko ekitaldiaren amaieran, ehuneko 89 zegoen bilduta. 2013an sortutakoak baino ehuneko 24 gehiago izan ziren, batez ere jokoaren gaineko aipaturako tasek ehuneko 35 gora egin zutelako.

2014an sortutako prezio publikoen bidez izandako diru-sarrerak 47,47 milioi eurokoak izan ziren; horien artean, nabarmentzekoak dira gizarte zerbitzuen prestazioaren bidezko diru-sarrerak, 34,22 milioioak, eta laguntza medikoa dela-eta beste entitate batzuekin egindako itunen bidezko diru-sarrerak, 9,56 milioi eurokoak. Prezio publikoen bidezko diru-sarrerak, 2014ko itxieran, diru-sarrera horiengatik sortutako guztizkoaren ehuneko 88 izan ziren.

Itxitako ekitaldietako itzulketak 15,26 milioi eurokoak izan ziren, eta honako kontzeptu hauei dagozkie, nagusiki: 8,83 milioi Enplegu Institutu Nazionaletik heldu dira; 2,21 milioi Parlamentuaren eta haren menpeko enteen gerakinaren itzulketari dagozkie, eta 2,09 milioi, berriz, enpresa-inbertsioetarako diru-laguntzen itzulketari dagozkie.

Honakoak dira "bestelako diru-sarrerak" izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 21,13 milioi; gainkarguak, 14,88 milioi, eta berandutza-interesak, azkenik, 6,7 milioi.

Jokotik deribatutako tasak aztertu dira. Honako hau izan zen haien exekuzioa:

Zergak	Eskubide garbiak, 2014	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketa (%)	Eskubide garbiak, 2013	Eskubideen aldea (%) 2014/2013
Jokotik heldu diren tasak	10.791.594	9.270.410	86	8.014.301	35

2014an jokoaren gaineko tasak direla-eta aitortutako eskubideak 10,79 milioi eurokoak izan ziren –2013an baino ehuneko 35 gehiago–, eta ekitaldiaren amaieran 9,27 milioi kobratu ziren.

2014an kontabilizatutako jokoaren gaineko tasen ehuneko 62 joko-makinei dagozkie; ehuneko 29 bingoari, eta gainerakoak, azkenik, apustuei.

Bingoaren eta joko-makinen gaineko tasen lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haiei buruzko arau erregulatzailaren arabera likidatu eta bildu zirela.

*Gomendatzen dugu hornikuntza bat jartzea hurrengo ekitaldian egitea espero diren zergen itzulketetarako, ekitaldiaren amaieran aitortu ez diren itzulketak estali ahal izateko.*

## VII.8. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA

Inbertsio errealeen besterentzearengatik aitortutako eskubideak 2.016.923 eurokoak izan ziren; horietatik, ehuneko 52 higiezinaren salmentari dagozkie; ehuneko 45, berriz, lursailen salmentari –nagusiki, industrialdeetako lursailak–, eta gainerakoa, azkenik, bi toki entitateri inbertsioak finantzatzeko egindako kapital-transferentzien itzulketari.

Nafarroak Madrilen duen ordezkartzaren egoitzaren besterentzea aztertu dugu. 925.000 euroko prezioan besterendu da; 2001ean, berriz, 871.468 euroan eskuratu zen. 2012ko azaroan, Nafarroako Gobernuak ordezkartza hori ixtea erabaki zuen.

Higiezinaren tasazioari buruzko txostenean –Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Planeamendu eta Balorazioetarako Bulegoak egin zuen–, metro koadroko 3.700 prezioa ezarri zen. Prezio hori lortu zen, aipatzen den bezala, internetetik hartuaz higiezina kokatuta dagoen auzoko sei pisuren salmenta-prezioen lagina hartuta. Aurreikusten dute, higiezinera bisitarik ez baitute egiten, haren egoera egokia dela, zeren eta modu jarraituan erabili baita eta egokitze-obra batzuk egin baitziren.

Nafarroako Gobernuak Madrilen zeukan ordezkartzak 2001etik 2004ra egindako gastuei buruz egindako txostenari jarraituz, egoitzan 298.459 euroko berritze-lanak egin ziren, eta 66.677 euroko ekipamendua erosi zen.

Salmentaren kudeaketa enpresa batekin kontratatu zen, eta bera publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez hautatu zen, hiru lizitatzailerik gonbit eginda. Ondare Departamentuak kontratazioaren beharra justifikatu zuen esanez Madrilen enkante publiko bat kudeatzeko baliabiderik ez zuela. Kontratuaren prezioa higiezinaren salmenta-prezioaren ehuneko lauan finkatu zen. 44.770 euroko gastua ekarri zuen.



Enkante elektronikoa egin zen, eta hartan gauzatzera iritsi ez zen eskaintza bat jaso zen. Zuzeneko besterentzea erabaki zen, 925.000 euroko kopuruan, lizitazioko prezio berean, besterentzearen kudeaketarako kontratatutako enpresak proposatutako hirugarren bati, lizitaziotik urtebete iragan baino lehenago.

Egiaztatu da besterentze-espeditzearen izapidetzean, oro har, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritako baldintzak bete direla, prezioa kobratu egin dela eta higiezinari baja eman zaiola ondasunen inbentarioan.

53.532 euroko etekina kontabilizatu zen, salmenta-prezioaren eta erosketa-prezioaren arteko aldeari dagokiona. Higiezinan egindako hobekuntza, aurrekontu-inbertsio gisa kontabilizatuak, ez ziren aktibatu higiezinaren balio handiago gisa.

## VII.9. ZORDUNAK

2014ko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 338,09 milioi eurokoa zen, eta honako hauei zegokien:

Zordunak	2014	2013	Aldea (%) 14/13
Departamentuetako zordunak	8.637	11.213	-23
Zordunak: ohiko kudeaketa	158.220	125.286	26
Geroratutako zordunak	172.628	259.083	-33
Premiamendu bideko zordunak	514.075	431.600	19
Egoera berezietako zordunak	20.428	20.234	1
Sortu ez diren korrituak eta gaitzarguak	-38.337	-40.207	-5
Kobrantsak eta aplikatzeko dauden sortak	-1.120	-1.064	5
<b>Aurrekontuko zordunak, guztira</b>	<b>834.531</b>	<b>806.145</b>	<b>4</b>
Bestelako zordunak	32.314	19.760	122
Kaudimen gabeziatarako probisioa	-528.650	-496.013	7
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>338.195</b>	<b>329.892</b>	<b>4</b>

2014ko ekitaldian, 21,01 milioi euroko galera kontabilizatu zen. Preskribatutako eskubideei dagokiena, itxitako ekitaldietako aurrekontu-eskubideen aldaketarengatik etekin kontuan.

### *Aurrekontu-zordunak*

Aurrekontu zordunak kudeaketa arrunteko egoeran nahiz premiamendu bidean dauden edo zerga-zorra geroratuta daukaten zerga-zordunei dagozkie. 2014ko abenduaren 31n, saldoa 834,53 milioi eurokoa zen, eta haren ehuneko 63 kaudimen-gabeziengatik hornituta zegoen. Hornikuntza diruzaintza-gerakinetik kentzen da.

Tributuen aurrekontu-likidazioaren, diru-bilketaren eta itzulketaren eta zuzenbide publikoko zenbait diru-sarreraren kudeaketa –esate baterako, interesak eta gaitzarguak– Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailea aplikazio informatikoaren bitartez egiten da; hartatik, informazioa G-21 kontabilitateko aplikazio informatikora aldatzen da.

Aurrekontu-likidazioak eta egoerari buruzko balantzeak ez dute zuzen jasotzen Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailearen informazio guztia. Hartara, ez da bereizten ekitaldi arruntetako zordunen eta itxitako ekitaldietako zordunen artean, eta ez dira deuseztatzen, ezta ere, aitortutako eskubideak, zorraren geroratzea ematen zaien zordunei dagozkienak, kontabilitate-plan orokor indardunean ezarritako irizpideez bestera.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen, kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ez eta likidatu gabeko interes eta gaitzarguak eta aplikatzeko dauden kobrantsak ere; izan ere, horiek zordunen saldotik kentzen dira, eta balantzearen pasiboan erregistratu beharko liriateke, aurreratutako diru-sarrera eta zordun gisa, hurrenez hurren.

Balantzearen pasiboan, aurrekontu-zordunen barruan, ordainketa agintzeke duten tributuen itzulketak erregistratzen dira; horietatik, ehuneko 93 BEZa, sozietateen gaineko zerga eta PFEZa zergen itzulketei dagozkie. Saldo hori hirugarrenen kontabilitate laguntzailean oinarrituta dago, eta ohar orokor gisa sartzen da balantzean.

Kontu orokorraren egoerari buruzko balantzea lortzen da kontabilitateko aplikazio informatikoko egoerari buruzko balantzean oinarrituta, kontabilitatez besteko doikuntza bat eginez hirugarrenen kontabilitate laguntzaileko zordunei eta hartzekodunei buruzko zerga-informazioarekin.

#### *Bestelako zordunak*

Multzo horretan, 16,79 milioi sartzan dira, ADIF estatuko entitate publikoko epe laburreko aurrekontuz besteko zordunen kontzeptuan, abiadura handiko trenaren obrak direla eta.

Hirugarrenen kontabilitate laguntzailea eta kontabilitatea lotzeko kontuaren saldoa, bestelako zordunen gisara erregistratua, 14,52 milioi eurokoa da, eta guztiz hornituta dago, behar bezala oinarrituta ez dagoelako.

Gure gomendioak:

- *Kontabilitate-sisteman guztiz integratzea hirugarrenen kontabilitate laguntzaileko oharrak eta kudeaketa.*
- *Zerga-zordunen saldo justifikatu gabeak aztertzea eta, kasua bada, haiek erregularizatzea.*

#### VII.10. DIRUZAINNTZA

2014ko abenduaren 31ko diruzaintza 165,71 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota haue-  
tan zegoen:

Kontzeptua	Saldoa 2014-12-31n	Saldoa 2013-12-31n	Aldea (%)
Kontu korrante operatiboak	10.037.105	1.255.696	700
Inbertsio-kontu finantzarioak	155.669.286	121.113.768	28
Kreditu-kontuak	8.977	783.467	-99
<b>Guztira</b>	<b>165.715.368</b>	<b>123.152.931</b>	<b>35</b>

2014ko ekitaldian, kontu korrante operatiboen barruan, 9,76 milioi sartu dira, diru-sarreraren kontu bereziei eta ikastetxeetako kudeaketarako eta jantokirako kontuei dagozkienak.

Ikastetxeetako kontu korranteetako saldo kontabilizatua 8,44 milioi eurokoa da, eta 410 konturi dagozkie. Finantza-entitateei igorritako banku-zirkularren arabera, kontu horien saldoa, ekitaldiaren itxieran, 8,41 milioikoa da: kontabilitatean baino 28.799 milioi gutxiago, hain zuzen.

Baterako sinadura edo sinadura mankomunatuak exijitzen da kontu korrante operatiboen funtsak erabiltzeko, salbu eta bi kontuetan, bata Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuarena eta, laguntza kofinantziatuak itzultzeko (NPK) eta bestea Ekonomia eta Ogasun Departamentuarena, ICT4EVE proiekturako. Bi kontuek 176.878 euroko eta 100.888 euroko saldoa dute, hurrenez hurren, 2014ko ekitaldiaren itxieran.

Diruzaintza-kontuen 2014an kontabilizatutako interesak 1,3 milioikoak izan ziren, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Interesen bidezko diru-sarrerak
Kontu korrante operatiboak	4.942
Inbertsio-kontu finantzarioak	291.210
Epe finkoko ezarpenak (1)	1.002.760
<b>Guztira</b>	<b>1.298.912</b>

(1) Epe luzeko ezarpenen saldoa, 2014ko abenduaren 31n, 0 eurokoa da.

Inbertsio-kontu finantzarioek 155,67 milioiko saldoa dute ekitaldiaren itxieran, eta 291,21 euroko interesak sortu dituzte.

Kontu korronteen, finantza-kontuen eta eperako ezarpenen batez besteko saldoa 92,44 milioikoa izan da 2014an, eta kontu horiek guztiek 111 egunez saldo negatiboa izan dute. 2013an, eguneko batez besteko saldoa negatiboa izan zen, 36,95 eurokoa.

Ekitaldian zehar, epe finkoko honako ezarpenak itundu ziren:

Zenbatekoa	Epea	Interes tasa
100.000.000	Hilabete bat	1,450
125.000.000	2 hilabete	1,460
100.000.000	4 hilabete	1,520
100.000.000	Hilabete bat	1,246

2014ko ekitaldian zehar, diruzaintzako hiru kreditu itundu ziren 11 hilabetera, 300 milioi euroko guztizko kopuru batez: 556.521 euroko kostua izan zuten. Kredituetako bat, 50 milioian itundua, ez zen erabili.

*Gomendatzen dugu baterako sinadura edo sinadura mankomunatu exijitzea kontu korrante operatibo guztietako dirua erabiltzeko.*

## VII.11. FINANTZA-ERAGIKETAK

### Zorpetzea

Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 2.697,88 milioi eurokoa zen 2014ko abenduaren 31n, eta honako modalitateei zegokien:

(euroak, milakotan)

Zorpetzea	2013	2014	2014/2013 alde garbia
Zor Publikoa (1)	1.857.103	2.010.213	153.110
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	300.000	300.000	0
Finantza entitateekin egindako maileguak	306.600	365.400	58.800
Entitate pribatuekiko maileguak, Audenasaren akzioen erosketa dela eta	15.055	0	-15.055
Gizarte Segurantzarekiko mailegua	9.783	9.686	-97
Beste sektore publiko batekiko maileguak	13.087	12.579	-508
<b>Zorra guztira</b>	<b>2.501.628</b>	<b>2.697.878</b>	<b>196.250</b>

(1) Balioa, kostu amortizatuarekin

Zor publikoak zorpetzearen ehuneko 75 egiten du, eta finantza-entitateekiko maileguek, berri, ehuneko 24.5. Zorpetzearen ehuneko 12k hurrengo ekitaldian du mugaeguna.

Nafarroako Gobernuaren 2013ko abenduaren 30eko Erabakian, 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 2014ko ekitaldirako luzatzeko exekuzio arauak ematen dituenean, ezarri zen 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko 13. artikuluan finkatutako mugaren barruan, zorpetze-eragiketak egin ahalko direla, muga jakin batekin: 2014ko abenduaren 31ko saldo bizia ez izatea 2014ko urtarrilaren 1ekoa baino 282.957.085 euro handiagoa.

Zorpetze garbiak ehuneko zortzi egin zuen gora—196,25 milioi euro— 2013tik 2014ra.

2014an, Audenasa enpresaren akzioak erosteko entitate pribatuekin itundutako mailegua, 15,06 eurokoa, amortizatu zen.

Ondoren, 2014an itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen batez besteko interesa erakusten dugu.

(euroak, milakotan)

Zorpetze modalitatea	2014an itundutako zorpetzea	Batez besteko interes tasa	Zorpetzea, guztira, 2014-12-31n	Batez besteko interes tasa
Zor Publikoa	349.800	3,14	2.010.213	4,30
Finantza entitateekin egindako maileguak	143.000	3,66	365.400	4,54
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	0		300.000	1,82(1)
Gizarte Segurantzarekiko mailegua	0		9.686	0
Beste sektore publiko batekiko maileguak	269	0	12.579	0,09
<b>Zorra guztira</b>	<b>493.069</b>	<b>3,29</b>	<b>2.697.878</b>	<b>4,02</b>

(1) 110 milioiko maileguan –euriborra gehi 0,181 puntuko diferentzialeko interes aldakorra dauka– 2014an ordaindutako guztizko interesa hartu da kontuan, 0,575koa.

2014ko ekitaldian, 349,8 milioi euroko balio nominala zuen zor publikoa jaulki zen, eta 2014an mugaeguna zuten 196,5 milioi euro amortizatu ziren.

Parearen pean egindako zor publikoko jaulkipenetan, interes efektiboa ez da ongi kalkulatu, zeren eta jasotako finantza-pasiboren egungo balioaren eta etorkizuneko efektibo-fluxuen arteko balioaldakuntza finantzarioa ezartzerakoan, fluxu horietan ez baitira kontuan hartzen urteko bakoitzean sortutako interes esplizituak. Gure kalkuluen arabera, zor publikoak behar baino 146.798 euro gehiago dauka.

Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen arabera, zorpetze-eragiketek berriazko helburu gisa izanen dute aurrekontuetan aurreikusitako gastuak finantzatzeko. Gobernuak zorpetzeari buruzko oroitidazkian aipatu bezala, 2014an itundutako zorpetzetik, 493 milioi, 326,5 milioi (egiazki, 296,5 milioi izan ziren) erabili ziren maileguak eta zor publikoa amortizatzen, eta gainerakoa, berriz, 2014rako aurreikusita zegoen defizita finantzatzeko.

Abiadura handiko trena finantzatzeko bideratutako zorpetzea 36,82 milioikoa izanen litzateke 2014ko abenduaren 31n.

Europako Inbertsio-Bankuarekiko maileguetako 300 milioietako helburua, EIBren eta Foru Komunitatearen arteko kontratuaren arabera, izan zen Nafarroa 2012 Planeko azpiegiturak finantzatzeko.

Zorpetzearen finantza-zama 401,48 milioi eurokoa izan zen 2014ko ekitaldian; 2013an baino ehuneko 34 gutxiago, beraz. Hurrengo taulan, 2013ko eta 2014ko ekitaldietan sortutako finantza-zama erakusten dugu, bai eta etorkizuneko ekitaldietarako konpromisoak ere.

(euroak, milakotan)

	Gastuak			Etorkizuneko gastuetarako konpromisoak				
	2013	2014	Aldea (%)	2015	2016	2017	2018-2025	Guztira
Interesak	107.325	104.945	-2	106.784	90.680	73.352	216.711	487.527
Amortizazioa	193.210	296.532	53	307.197	346.048	308.899	1.733.886	2.696.030
Finantza-zama, guztira	300.535	401.476	34	413.981	436.728	382.251	1.950.597	3.183.557
Diru-sarrera arrunten gaineko ehunekoak	9,57	12,55						

2015-2025 ekitaldietarako aurreikusitako zorpetzerako finantza-zamaren konpromisoak 3.183,56 milioi eurokoak izan ziren, eta etorkizuneko ekitaldietarako aurrekontu-gastuen konpromiso guztien ehuneko 85 egiten dute.

Ikusten denez, 2015etik 2017rako ekitaldietako finantza-zama 2014an jasandakoaren antzekoa da eta, horrenbestez, diru-sarrera ez-finantzarioek gora egiten ez badute edo izaera bereko gastuek behera egiten ez badute, aurreikusitakoa da zorrak hurrengo ekitaldietan hazten jarraitzea; horretarako arrazoi dira, besteak beste, zorpetze indardunaren finantza-zamari aurre egin behar izatea eta, bestetik, defizit ez-finantzarioa finantzatzeko.

Gure kalkuluen arabera, ez dira finantza-zamarengatik gastu-konpromisoetan sartu gutxien ere 40,4 milioi euro, interes tasa aldakorrekiko mailegu itunduen interesari dagokienak, 100

milioi euroko mailegu baten interesak, ehuneko 2,463 interes tasarekin, ez eta Gizarte Segurantzarekiko zorraren amortizazioa ere.

2014ko maiatzean, 2012ko urrian Foru Komunitatearen ratinga jaistearen ondorioz, Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguen berritze bat izan zen, eta interes tasak 4 oinarri-puntu igo ziren (ehuneko 0,04).

Europako Inbertsio Bankuarekiko finantza-kontratuan, kalifikazio galera gertatzen kasurako, ezarri zen bankuak mailegu-hartzaileari eskatu ahalko diola fidantza bat edo bestelako berme bat jartzeko, eta halakorik egin ezean, bankuak maileguaren itzulketa aurreratua eskatu ahalko duela. Ez zen ez fidantzarik, ez bestelako bermerik ezarri; izan ere, bankuarekin adostu zen interes-tasa igotzea.

2014ko abenduan, Standard and Poor's (S&P) finantza-sailkapeneko agentziak Nafarroako Foru Komunitatearen zorraren kreditu-sailkapena hobetu zuen, eta BBB+ izatetik A- izatera pasa zen, perspektiba iraunkorarekin, Espainiaren ratingetik bi maila gorago.

Gure gomendioak:

- *Etorkizuneko gastu-konpromisoetan zorpetze guztiaren finantza-zama sartzea.*
- *Zor publikoaren interes efektiboa kalkulatzeko ekitaldi bakoitzean sortutako interes esplizituak kontuan hartuta.*

*Emandako abal eta konpromiso-gutunak*

Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 149,59 eurokoa zen abenduaren 31n, eta honako hauei zegokien:

Emandako abalak	2013-12-31ko saldoa	2014-12-31ko saldoa	Huts egindakoak, 2014an
I+G	559.773	228.952	295.551
Zaitasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	12.076.047	8.593.177	2.873.266
Nafarroa abala (SONAGAR azpi-abalak)	4.632.885	3.858.771	166.427
NDO Los Arcosko zirkuitua	28.269.231	25.576.923	0
C.A. Osasuna	8.414.169	7.212.145	0
Sodena	102.921.778	102.763.981	0
NUP-Iberus programa	931.961	859.169	0
CRANA	0	500.000	0
<b>Guztira</b>	<b>157.805.844</b>	<b>149.593.118</b>	<b>3.335.244</b>

Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ezartzen du abalen gehieneko arrisku bizia nagusiki abalaturako eragiketei buruzkoa izanen dela, Aurrekontuei buruzko Foru Legeak edo abal horiek emateko foru legeak kontrakorik ezartzen ez duten bitartean.

Sodenari emandako abalaren abenduaren 31ko arrisku bizia 102.763.981 eurokoa da, eta EIBren mailegu baten -100 euroko erabili diren mailegu baten- printzipala eta interesak bermatzen ditu. Horri dagokionez, Nafarroako Aurrekontuei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeak abalaturako 150 milioiko gehieneko arrisku bizia ezarri zuen, Sodenari abalak EIBrekin itundutako terminoetan emateko. Nafarroako Gobernuak, 2012ko urtarrilean, erabaki zuen Sodenari abal bat ematea EIBrekiko 100 milioiko mailegu batetik heldutako betebeharrak guztien fidantza emateko, bai printzipalari, bai interes guztiei, mugarik gabe, bai komisio, zama eta gastuei zegokienez.

2014an, "Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa" (CRANA) Fundazioari 500.000 euroko abala eman zitzaion, bera azkentzeko behar ziren jarduketak finantzatzeko kreditu bat kontrata zezan. Fundazio hori Administrazio Publikoaren sektorekotzat hartua zegoen; hartarako, izan ere, 2012rako Aurrekontuei buruzko Foru Legeak 1,5 milioi euroko gehieneko arriskua ezarri zuen, abalaturako.

Ez dago jasota emandako abalei buruzko hiruhileko komunikazioa igortzen zaionik Parlametuari.

2014an, Foru Administrazioak jasandako gastua, 13 entitatek abalatutako eragiketen ez-betetzeari dagokiona, 3.335.244 eurokoa izan da.

Ez dago jarririk abalatutako betebeharren ez-betetzetik heldutako arrisku guztietarako hornikuntzarik.

Emandako abalez gainera, sozietate publikoek finantza-entitateekin zorpetzeko eragiketen fidantzak jarri zituen Foru Administrazioak, "konpromiso-gutunak" eginez. Horri dagokionez, Gobernuak erabaki zuen 2014an konpromiso-gutunak ematea –figura hori ez dago jasota Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean–. Gutun horiek 177 milioi euro egiten dute.

Konpromiso-gutunekin, Administrazioak konpromisoa hartzen du sozietate publikoei laguntza emateko finantza-entitateekin, kreditu-eragiketak tarteko, hartutako betebeharrak betetzeko.

Abalak emateko, foru lege bidezko baimena eman beharra dago, eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak abaletarako gehieneko arrisku bat ezartzen du, bai eta ekitaldian eman daitezkeen abalen gehieneko bolumena ere. Hala eta guztiz ere, konpromiso-gutunaren figura horrek ez ditu baldintza horiek bete behar.

Konpromiso-gutunaren saldo bizia 42 milioi eurokoa da 2014ko abenduaren 31n, eta fidantza ematen du Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria sozietate publikoaren betebeharrak direla eta. Sozietate horren zorra 2013ko abenduaren 31n 53,7 milioikoa izatetik 2014ko itxieran 42,5 milioikoa izatera pasa da, zeren eta 2014an, NEPK-k 11 milioi eman baitzizkion kredituak amortizatzeke eta zorra birfinantzatzeko.

Oroitidazkian ez da konpromiso-gutunei buruzko informaziorik jaso.

Gure gomendioak:

- *Emandako abalei buruzko informazioa igortzea Parlametuari.*
- *Abalatutako betebeharren ez-betetzetik heldutako arrisku guztietarako hornikuntza jartzea.*
- *Konpromiso-gutunak ematerakoan –Administrazioak arriskuak hartzea dakarte, sozietateek itundutako zorpetze-eragiketei erantzuna emateko konpromisoa jasotzen baitute–, haiek arautzen ez diren bitartean, Ogasun Publikoari buruzko Legean, abalak emateari begira, ezarritako erregulazioa aplikatzea, eta oroitidazkian haiei buruz informatzea.*

## VII.12. SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK

*Sozietate publikoak*

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, kontu orokorren oroitidazkiko informazioaren arabera:

Gizartea	Ekitaldiko emaitza	Foru Administrazioaren diru-laguntzak	Epe luzeko zorpetzea (2)	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
CEIN	-123,78	681,22	10,49	995,34	35
CNAI	-62,14	0	0	9,19	26
CAT	-2.556,58	0	30.624,22	14.646,11	4
GAN	50,27	0	33,86	7.371,63	80
INTIA	7,21	4.564,06	8,60	4.297,30	202
NASERTIC	514,96	0	2.687,73	6.619,64	86
NASUVINSA	-4.477,21	0	36.797,15	217.926,64	82
Natural Climate Systems,SA	-255,42	0	2.625,62	-602,41	7
NICDO	-6.331,00	412	23.684,97	65.683,78	32
NILSA	0	0	25.623,12	901,93	35
Potasas de Subiza, SAU	74,33	0	0	731,92	0
Salinas de Navarra, SA	1.328,68	0	1.200,30	23.972,71	55
SODENA	14.852,57	0	100.002,62	66,79	19
Start Up Captial Navarra, SA	-414,18	0	0	1.523,53	0
TRACASA	828,92	56,85	1.351,07	29.366,82	364
CPEN	-78,11	140	0	443.003,07	11
<b>Guztira (1)</b>	<b>3.358,52</b>	<b>5.854,12</b>	<b>224.649,74</b>	<b>816.513,99</b>	<b>1.038</b>

(1) Bateratu gabeko datuak

(2) Zorpetzean, ez dira sartzen taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

Sozietate publikoek urteko kontuen auditoria aurkezten dute.

Foru Administrazioak partaidetzaren gehiengoa dueneko 16 sozietate publikoek beren kontuei buruzko aldeko iritzia lortu dute, Potasas de Subiza, SAU sozietatearen kontuetan izan ezik, non honako salbuespena jaso baita:

- Potasas de Subiza, SAU: urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da, zenbait salbuespenekin, zeren eta ez baitu epe luzeko hornikuntza moduan erregistratu ingurumena lehengoratzeko planetik heldutako pasiboa, 3,05 milioiko kopuruan kalkulatua. Omisio horrek eragina du aurreko ekitaldietako emaitzan -8,40 milioi gutxitu beharko litzateke- eta ekitaldiko emaitzan -behar baino 5,55 milioi gutxiago baloratu da-.

Bestalde, auditoreek azpimarra-lerrokada bat jasotzen dute, iritzian eraginik ez duena, honako bost sozietate hauetan:

- Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Zentroa (CNAI): sozietatearen ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa da, eta hori bera desegiteko arrazoi bat da, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legeko 363. artikuluari jarraituz, kapital sozial hori behar adina handitzen edo murrizten ez bada. 2014an, NEKP den sozio bakarrak 60.000 euro jarri zituen sozietaterako.

NEKPk 2014ko urtarrilaren 29an baimena eskatu zion Nafarroako Parlamentuari CNAIren akzioak langileei saltzeko, haiekin akordio batera iritsi ondoren. Eskari horri ezezkoa eman zitzaion. Ekainaren 24an, berriz ere baimena eskatu zen akzioen salmentarako bazkide bat bilatzen has-teko. Parlamentuko Foru Araubide Batzordeak prozesu hori onetsi zuen. 2014ko abenduaren 31n, oraindik ere inongo akordiorik ez zegoen gauzatua.

- Navarra de Infraestructuras Locales (NILSA): azpimarra-lerrokadan, auditoreek arreta deitzen dute Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzendarian 27,5 milioiko defizita dagoelako;

defizit hori saneamendu kanonarekin zuzentzen joango da. Horrekin lotuta, Sozietateak balantzearen pasiboan 21 milioi euro dauzka, plan zuzendaritik kenduak, ustiatzen ari diren arazketa-instalazioetan, zeinak toki entitateenak baitira, egindako berrikuntza eta konponketei aurre egin ahal izateko. Horrenbestez, sozietatearen urteko kontuak aztertu egin behar dira, plan zuzendariarekin batera.

- Natural Climate Systems-MIYABI: azpimarra-lerrokadan arreta deitzen da sozietatearen egoera dela eta. Izan ere, ekitaldiaren itxieran merkataritza-legedian jasota dauden desegite kasuetako batean dago.

Sozietate hori, zeinak 602.413 euroko ondare garbi negatiboa baitauka 2014ko abenduaren 31n, 2014an izan duen laguntza finantzario bakarra akziodun publikoena izan da; izan ere, Nasuinsak eta Sodenak kapitalaren ehuneko 34,5 eta ehuneko 31,5 daukate, hurrenez hurren.

Hartara, Nasuinsak eta Sodenak 2013an eta 2014an emandako maileguak eraldatu zituzten, 490.880 eurokoak, mailegu parte-hartzaile bihurtzeko, eta 80.000 euroko ekarpena egin zuten.

- Potasas de Subiza, SAU: azpimarra-lerrokadan atentzioa deitzen da zeren eta Sozietateak ez baitu sortzen behar adina funts, eta etorkizuneko bideragarritasuna baldintzatuta baitago, neurri handi batean: baliabide nahikoak eskuratu behar ditu bere eragiketen jarraitutasuna finantzatzeko eta betebeharrei aurre egin ahal izateko. Akziodun bakarrak, Sodena sozietate publikoak, aldeek sinatutako kontratu baten indarrez, konpromisoa hartu zuen Sozietatearen ondarrerako behar zen ekarpena egiteko, haien diruzaintza-defizitak finantzatze aldera.

- START UP: azpimarra-lerrokadan, atentzioa deitzen da sozietatearen ondare garbia dela eta; izan ere, kapital sozialaren erdia ere egiten ez duen kopuru batera jaitsi da. Egoera hori sozietatea desegiteko arrazoia da, haren kapital soziala behar beste handitzen edo gutxitzen ez den bitartean.

#### *Fundazio publikoak*

Hurrengo gaulan fundazio publikoei buruzko datuak ematen ditugu, urteko kontuko oroitidazkiaren informazioari jarraituz.

Fundazioa	Ekitaldiko sobe- rakina	Ondare garbia	Enplegatu kopu- ruaren batez bestekoa
Baluarte	-58,60	380,11	0
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	-257,78	0	1
Energia Berriztagarrietarako Prestakuntza	-45,39	6.289,71	Daturik ez
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	-9,04	59,98	3
Miguel Servet	5,22	1.540,50	63,51
Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	20,39	145,05	3
Pertsona Helduen Tutoretza	-306,01	104,28	10
<b>Guztira</b>	<b>-651,21</b>	<b>8.519,61</b>	<b>80,51</b>

Zazpi sozietate publikoetatik seik urteko kontuen auditoria aurkezten dute. Energia Berriztagarrien arloko Prestakuntzarako Fundazioak ez du urteko kontuen auditoriarik aurkezten, ez eta 2014ko ekitaldiko kontuen oroitidazkirik ere.

Sei fundazio publikoek beren kontuei buruzko aldeko iritzia lortzen dute. Horietako bietan, auditoreek azpimarra-lerrokada bat sartzan dute, nahiz eta ez duen iritzian eraginik, honako alderdiei buruz arreta deitzeko:

- Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua: Nafarroako Gobernuak, 2014ko maiatzaren 29an, erabaki du fundazioa azkentzea eta haren ondasun eta eskubi-deak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeari atxikitzea.



- Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa: fundazioak, Foru Administrazio Publikoaren berregituratzea dela eta, bere estatusa galdu du 2015eko urtarrilaren 1etik.

Gure gomendioak:

- *Beren eragiketekin jarraitzeko ahalmenari buruzko zalantza nabarmena antzematen diren enpresei dagokienez, haien bideragarritasuna aztertzea bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ikuspuntu sozialetik, eta akziodun guztien babes finantzarioa exijitzea.*

- *Kontu-hartzaitza Orokorrak auditoriak egitea sozietate eta fundazio publikoek legezkotasuna betetzen ote duten ikusteko.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## INFORMAZIO ERANSKINA

Foru Komunitateko Administrazioaren finantzen 2015eko uztailaren 31ko behin-behineko egoera.

### Sarrera

Kontuen Ganberak jo du egokia dela ezen, 2014ko ekitaldiari buruzko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko txostenaren barruan, informazio-eranskin bat sar dadila "*Foru Komunitateko Administrazioaren finantzen 2015eko uztailaren 31ko behin-behineko egoerari buruz*".

Eranskin honen xedea da maiatzean egindako hauteskundeetatik sortutako Nafarroako Parlamentu berriari informazio aurrerapen bat eskaintzea, bai aurrekontu-egoerari buruz, bai Nafarroako Gobernuaren 2015eko ekitaldiko finantza-egoerari buruz, eta informazio hori izatera 2014ko kontu orokorrei buruzko aipatutako txostena aurkezteko datatik ahal den eta hurbilena.

Ezer baino lehen, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Eranskin honek jasotako informazioa eta ondorioak ez dira ez aztertu, ez fiskalizatu, zeren eta, adierazi bezala, haien xedea informazio hutsezkoa baita.

- Informazioaren jatorrizko iturria da, funtsean Nafarroako Gobernuak bere webgunean argitaratutakoa, aurtengo ekitaldiko hilez hileko aurrekontu-betetze metatuari eta haren eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketari buruzkoa, bai eta erakunde horren ondare-kontabilitatetik zuzenean eskuratutakoa. Aurrekontu-egonkortasunaren helburuak aztertzeko, erreferentziatzat hartu dira Nafarroako Gobernuaren informaziotik abiatuta bai Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak –hileroko–, bai Espainiako Bankuak –hiru hilez behin–egiten eta argitaratzen dituzten txostenak.

- Aztertutako aldiak 2015eko uztailaren 31ra arte hartzen du. Hala eta guztiz ere, "Administrazio Publikoa" sektorearen zorpetze-bolumenari buruzko informaziorako, kontabilitate nazionalaren eraginetarako, 2015eko ekainaren 30eko data hartu da, zeren eta Espainiako Bankuak informazio hori hiru hilez behin argitaratzen baitu, eta eskuragarri dagoen azken txostena 2015eko bigarren hiruhilekoko baita.

- Nafarroaren araubide fiskalaren berezitasunak eragina dauka aurrekontu-egonkortasunaren helburuei buruzko kalkuluetan, zeren eta ekitaldiaren amaieran azaleratzen baitira, beren osotasunean, Hitzarmen Ekonomikotik deribatutako doikuntza eta likidazioak.

- 2014ko eta 2015eko aurrekontuak 2012ko aurrekontuaren luzapen bat dira.

- Eranskin hau idazteko garaian, Nafarroako gobernuak 2015eko abuztuko aurrekontu-betetzeari buruzko datuak argitaratuak dauzka. Datu horietan, printzipioz, joera-aldaketa bat antzematen denez aurrekontu-betetzearen emaitzen joeran, exekuzio horri buruzko ondorio gehigarri batzuk sartu ditugu.

### Ondorioak

A) *Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-betetzea 2015eko uztailaren 31ra arte*

#### **1. Aurrekontu-betetzeari buruzko azterketa orokorra, 2015eko uztailaren 31ra artekoa.**

1. eta 2. taulek eta ondorengoek Nafarroako Gobernuaren 2015eko uztailaren 31ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzio metatua erakusten dute. Aurreko datuen azterketatik, honakoa azpimarratzen dugu:

- Hasierako kredituek 3.838 milioi egiten dute; kreditu horiek 2015erako luzatu den 2012ko aurrekontuari dagozkio. Gastuen egoera-orriaren barruan, "luzapen-funtsa" jasota dago, 46 milioi eurokoa.

**1. taula Gastuen betetzea 2015eko uztailaren 31ra arte (euroak, milakotan)**

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldak.	Bateratua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)
Langile-gastuak	1.109.511	18.711	1.128.222	658.395	58	657.411	100
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	571.579	-7.189	564.390	278.426	49	265.061	95
Finantza-gastuak	121.583	-11.116	110.467	78.710	71	78.499	100
Transferentzia arruntak	1.334.559	22.048	1.356.607	794.084	59	792.094	100
Luzapenaren funtsa	45.909	-2.462	43.447	0	0	0	0
<i>Gastu arruntak, guztira</i>	<i>3.183.141</i>	<i>19.992</i>	<i>3.203.133</i>	<i>1.809.615</i>	<i>56</i>	<i>1.793.065</i>	<i>99</i>
Inbertsioak	131.499	4.040	135.539	38.627	28	38.025	98
Kapital-transferentziak	143.672	3.702	147.374	33.081	22	32.924	100
<i>Kapital-gastuak, guztira</i>	<i>275.171</i>	<i>7.742</i>	<i>282.913</i>	<i>71.708</i>	<i>25</i>	<i>70.949</i>	<i>99</i>
Finantza-aktiboak	61.561	69.049	130.610	93.629	72	93.628	100
Finantza-pasiboak	317.844	-10.616	307.228	220.700	72	220.700	100
<i>Finantza eragiketak, guztira</i>	<i>379.405</i>	<i>58.433</i>	<i>437.838</i>	<i>314.329</i>	<i>72</i>	<i>314.328</i>	<i>100</i>
<b>Guztira</b>	<b>3.837.717</b>	<b>86.167</b>	<b>3.923.884</b>	<b>2.195.652</b>	<b>56</b>	<b>2.178.342</b>	<b>99</b>

**2. taula Diru-sarrerren betetzea 2015eko uztailaren 31ra arte (euroak, milakotan)**

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Bateratua	Aitortutako eskubideak	Gauzatuak (%)	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketa garbia (%)
Zuzeneko zergak	1.470.772	1.470.772	774.502	53	571.078	74
Zeharkako zergak	1.631.715	1.631.715	828.000	51	661.298	80
Tasak eta prezio publikoak	109.719	110.591	68.167	62	46.366	68
Transferentzia arruntak	43.302	46.969	16.744	36	15.836	95
Ondare bidezko diru-sarrerak	7.391	7.396	7.131	96	2.981	42
<i>Diru-sarrera arruntak, guztira</i>	<i>3.262.899</i>	<i>3.267.443</i>	<i>1.694.544</i>	<i>52</i>	<i>1.297.559</i>	<i>77</i>
Inbertsioen besterentzea	1.810	1.810	287	16	215	75
Kapital-transferentziak	45.456	46.035	34.830	76	4.431	13
<i>Kapitaleko diru-sarrerak guztira</i>	<i>47.266</i>	<i>47.845</i>	<i>35.117</i>	<i>73</i>	<i>4.646</i>	<i>13</i>
Finantza-aktiboak	62.776	142.918	61.686	43	61.356	99
Finantza-pasiboak	464.776	465.678	446.901	96	446.000	100
<i>Finantza eragiketak, guztira</i>	<i>527.552</i>	<i>608.596</i>	<i>508.587</i>	<i>84</i>	<i>507.356</i>	<i>100</i>
<b>Guztira</b>	<b>3.837.717</b>	<b>3.923.884</b>	<b>2.238.248</b>	<b>57</b>	<b>1.809.561</b>	<b>81</b>

- Kreditu horiek, 2015eko uztailaren 31ra arte, ehuneko biko igoera –hau da, 86 milioikoa– izan dute aurrekontu-aldaketen bitartez; aldaketa horiek funtsean deribatu dira diru-sarrerren sorruntzarako kredituetatik –74 milioi– eta kreditu-zabalkuntzetatik –12 milioi–. Behin betiko kredituek 3.924 milioi egiten dute guztira.

- 2015eko uztailaren 31ra arte aitortutako betebeharrak 2.196 milioikoak dira; betetze-maila, berriz, ehuneko 56koa da, eta ordainketen portzentajea, azkenik, ehuneko 99koa.

- 2015eko uztailaren 31ra arte aitortutako eskubideek 2.238 milioi egiten dute, ehuneko 57ko gauzatze-mailarekin eta ehuneko 81eko diru-bilketa garbiaren mailarekin.

## 2. Gastuen egoera-orriaren aurrekontu-betetzea 2015eko uztailaren 31ra arte

1. taularen azterketa xehea eginda, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Kapitulu guztiek beren hasierako kredituen aurrekontu-aldaketak izaten dituzte; beren osotasunean, 86 milioiko igoera garbia suposatzen dute. Honakoetan izandako igoerak azpimarratu nahi ditugu: finantza-aktiboen kapituluetan –69 milioi–, transferentzia arruntetan –22 milioi– eta langileetan –19 milioi–; behera egin dutenak, funtsean, zorrarekin lotutako kapituluak dira –hau da, gastu finantzarioak eta amortizazioak, 11na milioi–.

- Aurrekontu-betetze orokorraren maila gainditzen dute finantza-eragiketen kapituluak – ehuneko 72–, transferentzia arruntek –ehuneko 59– eta langileek –ehuneko 58–. Betetze-maila apalenak kapital-transferentzietan –ehuneko 22– eta inbertsioetan –ehuneko 28– aurkitzen ditugu.

- Departamentuka, aurrekontua honako taulari jarraituz bete da (euroak, milakotan).

Departamentua, 2015eko uztailaren 31ra arte	Behin betiko kreditua	Aitortutako bete-beharrak	Betetakoa (%)
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	342.286	226.347	66
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.	1.198.108	661.234	55
Hezkuntza	584.213	339.927	58
Osasuna	940.272	522.986	56
Sustapena	212.787	92.313	43
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa.	308.499	183.639	60
Gizarte Politikak	277.515	136.246	49
Kultura eta Turismoa eta Erakunde Harremanak	43.740	20.688	47
Nafarroako Kontseilua	446	258	58
Nafarroako Parlamentua	16.018	12.013	75
<b>Guztira</b>	<b>3.923.884</b>	<b>2.195.651</b>	<b>56</b>

Sustapeneko, Kulturako eta Gizarte Politiketako departamentuek beren aurrekontuen betetze-maila apalagoa daukate –ehuneko 43, 47 eta 49, hurrenez hurren–.

Osasuneko, Hezkuntzako eta Gizarte Politiketako departamentuek uztailera arteko gastuaren ehuneko 46 hartzen dute.

- Gastuaren izaerari erreparatuta, honakoak aipatu behar ditugu, funtsean:

a) Transferentziengatiko gastuak dira betetako aurrekontuan pisu handiena dutenak, ehuneko 38rekin; hau da, 827 milioi.

b) Langile-gastuak 658 milioikoak dira; hau da, uztailaren 31ra arte betetako gastu guztiaren ehuneko 30.

c) Finantza-zamak (interesak eta zorraren amortizazioa) gastuaren ehuneko 13 hartzen du; hau da, 299 milioi.

d) Inbertsioek, 39 milioirekin, gastuaren ehuneko bi eskas egiten dute.

- Aztertutako aldian, aitortutako betebeharrak ia guztiak ordaindu dira.

- Izaera anitzeko gastu konpromisoak (2016tik aurrerakoak) 3.610 milioikoak dira. Zenbateko horretatik 3.317 milioi zorpetetik heldutako konpromisoei dagozkie.

### 3. Gastuen egoera-orriaren aurrekontu-betetzea 2015eko uztailearen 31ra arte, eta 2014ko aldi berarekiko alderaketa.

- Aldi horretan, betetako gastu metatuek ehuneko zortzi egin dute gora –hau da, 168 milioi handitu dira–, honako xehetasunen arabera (euroak, milakotan):

Kapitulua	2014ko uztailean aitorturiko betebeharrak	2015eko uztailean aitorturiko betebeharrak	+/- betebeharrak	% betebeharren aldaketa 15/14	2014ko uztailean betetakoaren %	2015eko uztailean betetakoaren %
Langileak	634.221	658.395	24.174	4	58	58
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	256.118	278.426	22.308	9	48	49
Finantza-gastuak	67.356	78.710	11.354	17	58	71
Transferentzia arruntak	765.938	794.084	28.146	4	58	59
<i>Gastu arruntak, guztira</i>	<i>1.723.633</i>	<i>1.809.615</i>	<i>85.982</i>	<i>5</i>	<i>55</i>	<i>56</i>
Inbertsioak	40.888	38.627	-2.261	-6	23	28
Kapital-transferentziak	57.826	33.081	-24.745	-43	41	22
<i>Kapital-gastuak, guztira</i>	<i>98.714</i>	<i>71.708</i>	<i>-27.006</i>	<i>-27</i>	<i>31</i>	<i>25</i>
Finantza-aktiboak	130.126	93.629	-36.497	-28	85	72
Finantza-pasiboak	80.662	220.700	140.038	174	27	72
<i>Finantza-eragiketak, guztira</i>	<i>210.788</i>	<i>314.329</i>	<i>103.541</i>	<i>49</i>	<i>47</i>	<i>72</i>
<b>Guztira</b>	<b>2.033.135</b>	<b>2.195.652</b>	<b>162.517</b>	<b>8</b>	<b>52</b>	<b>56</b>

2015eko uztailean arteko betetze orokorra aurreko aldikoa baino ehuneko lau handiagoa da; horrek azal lezake, neurri batean, gastuaren guztizko igoera. Aurrekontu-betetzearen igoera hori bereziki nabarmena da finantza-eragiketen kapituluetan eta finantza-gastuetan.

Gastuaren igoera portzentual handiena daukan kapitulua finantza-pasiboena da (zorpetzearen amortizazioa), ehuneko 174rekin –140 milioiko igoera dakar–; halaber, interesengatikoko gastuek ehuneko 17 egin dute gora –11 milioi–.

Kapital-transferentziek ehuneko 43ko jaitsiera izan dute –ia 25 milioi–. Jaitsiera horren azalpena, neurri handi batean, 2015eko uztailean arteko betetze-maila txikia izan liteke.

Langile gastuak, betetze-maila berarekin, ehuneko lau handitu dira; hau da, 24 milioi gehiagokoak dira. Igoera horren azalpena izan liteke, gehien bat, langile publikoei 2015eko martxoan 2012ko aparteko soldataren ehuneko 25 itzuli zaielako.

- Aurrekontu-gastuen osaera portzentuala, 2015eko uztailean artekoa, honakoa da, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta:

Gastuaren izaera	Ehunekoa, 2014ko uztailearen 31n	Ehunekoa, 2015eko uztailearen 31n
Langileak	31	30
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	13	13
Transferentzien bidezko gastuak	41	38
Inbertsio errealak	2	2
Finantza-zama	7	13
Finantza-aktiboak	6	4
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Ikusten da osaera portzentualean nolabaiteko egonkortasuna dagoela; hala ere, finantza-zama (hau da, interesak eta zorraren amortizazioa) ehuneko sei handitu da. Jaitsiera handiena izan dutenak transferentziengatikoko gastuak eta finantza-aktiboak dira.

- Ondoko taulan metatutako gastuaren alderaketa erakusten dugu (euroak, milakotan):

Departamentua	Aitortutako bete-beharrak 2014ko uztaila	Aitortutako bete-beharrak 2015eko uztailan	+/- betebeharrak	Aldearen %, 15/14
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	226.327	226.347	20	0
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.	528.361	661.234	132.873	25
Hezkuntza	334.679	339.927	5.248	2
Osasuna	494.265	522.986	28.721	6
Sustapena	102.194	92.313	-9.881	-10
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	190.363	183.639	-6.724	-4
Gizarte Politikak	130.022	136.246	6.224	5
Kultura eta Turismoa eta Erakunde Harremanak	17.934	20.688	2.754	15
Nafarroako Kontseilua	256	258	2	1
Nafarroako Parlamentua	8.735	12.013	3.278	38
<b>Guztira</b>	<b>2.033.135</b>	<b>2.195.652</b>	<b>162.517</b>	<b>8</b>

Gastu-igoera handienak Ekonomian –133 milioi– Osasunean –29 milioi– eta Gizarte Politiketan 6 milioi– aurkitzen ditugu; portzentajeei erreparatuta, gainera, Kulturakoa nabarmendu beharra dago, ehuneko 15eko gastu-igoerarekin. Gutxitze aipagarrienak Sustapenean –10 milioi– eta Landa Garapenean –7 milioi– gertatu dira.

Osasuneko, Hezkuntzako eta Gizarte Politiketako departamentuek gastua ehuneko bi, sei eta bost handitu dute, hurrenez hurren.

#### 4. Diru-sarreraren egoera-orriaren aurrekontu-betetzea 2015eko uztailaren 31ra arte.

2. taularen azterketa xehea eginda, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Diru-sarreraren gauzatze orokor metatuaren mailari dagokionez –ehuneko 57koa da–, ehuneko handiena erakusten duen kapitulua finantza-pasiboena da (zorpetze berria), ehuneko 96rekin; horrenbestez, aztertutako aldiaren barruan, aurrekontuan jasotako kanpo baliabide ia guztiak harrapatu dira.

Zuzeneko eta zeharkako zergen kapituluek orokorra baino gauzatze-balio txikiagoa dute, ehuneko 53 51ekin, hurrenez hurren.

- Diru-sarreraren izaerari erreparatuta, honakoak aipatu behar ditugu, funtsean:

a) Zerga izaerako diru-sarrera metatuak 1.671 milioikoak dira, eta aldiari dagokion guttizkoaren ehuneko 75 egiten dute.

b) Zorpetze berria hartzeko eskubideak 446 milioikoak dira; hau da, aldiari dagozkion diru-sarreraren ehuneko 20.

- Zergen exekuzioa. Hurrengo taulan, zuzeneko eta zeharkako zergengatik metatutako eskubide aitortuak erakusten ditugu (euroak, milakotan).

Zergak	2015eko uztailean aitortutako eskubide garbiak
PFEZa	627.984
Ez-egoiliarak	4.874
Sozietateak	62.759
Ondarea	41.613
Oinordetzak	37.252
Besterik eta azkenduak	20
<i>Zuzeneko zergak, guztira</i>	<i>774.502</i>
Hitzarmen ekonomikoaren doikuntzak	342.805
BEZ zuzeneko kudeaketa	230.192
Bereziak	222.813
Aseguru primak	11.711
Ondare-eskualdaketak eta EJD	25.481
Hidrokarburoen txikizkakoak	-5.002
<i>Zeharkako zergak, guztira</i>	<i>828.000</i>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>1.602.502</b>

Hau da, PFEZa, hitzarmenaren doikuntzekin, BEZaren zuzeneko kudeaketarekin eta zerga bereziekin zergengatik aitortutako eskubideen ia ehuneko 89 egiten dute.

- Diru-bilketa garbiak aitortutako eskubideen ehuneko 81 egiten du. Finantza-pasiboek portzentaje hori gainditzen dute, ehuneko 100ekin. Zuzeneko eta zeharkako zergek ehuneko 74ko eta 80ko diru-bilketa portzentajea egiten dute, hurrenez hurren.

##### **5. Diru-sarreraren egoera-orriaren aurrekontu-betetzea 2015eko uztailearen 31ra arte, eta 2014ko aldi berarekiko alderaketa.**

- Aldi horretan, aitortutako diru-sarrera metatuek ehuneko bost egin dute gora –hau da, 105 milioi handitu dira–, honako xehetasunen arabera (euroak, milakotan):

Diru-sarreraren kapituluak	2014ko uztailean aitortutako eskubide garbiak	2015eko uztailean aitortutako eskubide garbiak	+/- Eskubideak	Eskubideen aldea, 15/14 urteetan	Gauzatutakoa (%) 2014ko uztaila	Gauzatutakoa (%) 2015eko uztaila
Zuzeneko zergak	721.844	774.502	52.658	7	50	53
Zeharkako zergak	879.649	828.000	-51.649	-6	50	51
Tasak eta prezio publikoak	75.667	68.167	-7.500	-10	70	62
Transferentzia arruntak	9.650	16.744	7.094	74	14	36
Ondare bidezko diru-sarrerak	7.202	7.131	-71	-1	72	96
<i>Diru-sarrera arruntak, guztira</i>	<i>1.694.012</i>	<i>1.694.544</i>	<i>532</i>	<i>0</i>	<i>50</i>	<i>52</i>
Inbertsioak besterentzea	1.821	287	-1.534	-84	18	16
Kapital-transferentziak	26.692	34.830	8.138	30	152	76
<i>Kapital-sarrerak guztira</i>	<i>28.513</i>	<i>35.117</i>	<i>6.604</i>	<i>23</i>	<i>104</i>	<i>73</i>
Finantza-aktiboak	54.207	61.686	7.479	14	56	43
Finantza-pasiboak	356.282	446.901	90.619	25	87	96
<i>Finantza eragiketak, guztira</i>	<i>410.489</i>	<i>508.587</i>	<i>98.098</i>	<i>24</i>	<i>81</i>	<i>84</i>
<b>Guztira</b>	<b>2.133.014</b>	<b>2.238.248</b>	<b>105.234</b>	<b>5</b>	<b>55</b>	<b>57</b>

Alderaketa horretatik, honako hau adierazi behar dugu:

a) Aitortutako eskubide orokorrek ehuneko bost egin dute gora; hau da, 105 milioi handitu dira. 2015eko uztailea arte, diru-sarrerren gauzatze orokorraren maila bi puntu handiagoa izan da.

b) Zuzeneko zergengatik eskubideek 53 milioi egin dute gora, eta haien gauzatze-maila hiru puntu handiagoa izan da. Zeharkako zergek 52 milioi egin dute behera; haien gauzatze-mailak, berriz, ehuneko bat egin du gora.

c) Zorpetze berria hartzeak ehuneko 205 egin du gora; hau da, 91 milioi gehiago. Hala eta guztiz ere, 2014ko uztailean, ehuneko 87ko gauzatzea zuen; 2015eko data berean, berriz, betetzea ehuneko 96koa da.

• Diru-sarrerren ehunekoaren osaeraren aldea, bi aldien artekoa, honako taula honetan adierazitakoa da:

Aurrekontuko diru-sarrerak	Ehunekoa, 2014ko uztailearen 31n	Ehunekoa, 2015eko uztailearen 31n
Tributu bidezko diru-sarrerak	78	75
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	2	2
Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	3	3
Zorpetzea	17	20
	100	100

Nabarmenezkoa da zorpetzearen garrantzia, betetako diru-sarrerren ehuneko 17koa izatetik ehuneko 20ra izatera pasa baita, zergen bidezko diru-sarrerren portzentaje-jaitsiera konpentsatuta.

• Hurrengo taulan bi aldien artean zuzeneko zergek eta zeharkakoek izan duten bilakaera alderatzen dugu (euroak, milakotan).

Zergak	2014ko uztailean aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako eskubideak, 2015eko uztailea	+/-Eskubideak	Aldea (%), 15/14	Diru-bilketa garbia, 2014ko uztailean	Diru-bilketa garbia, 2015eko uztailean	15/14 aldea
PFEZa	568.749	627.984	59.235	10	499.707	528.299	6
Ez-egoiliarak	3.761	4.874	1.113	30	3.719	3.645	-2
Sozietateak	55.876	62.759	6.883	12	-27.755	-14.899	-46
Ondarea	45.609	41.613	-3.996	-9	25.000	24.546	-2
Oinordetzak	32.663	37.252	4.589	14	32.663	29.467	-10
Besterik eta azkenduak	15.185	20	-15.165	-100	13.712	20	-100
<i>Zuzeneko zergak, guztira</i>	<i>721.843</i>	<i>774.502</i>	<i>52.659</i>	<i>7</i>	<i>547.046</i>	<i>571.078</i>	<i>4</i>
Hitzarmen ekonomikoaren doikuntzak	391.811	342.805	-49.006	-13	372.145	342.805	-8
BEZ zuzeneko kudeaketa	250.241	230.192	-20.049	-8	78.768	64.445	-18
Bereziak	202.095	222.813	20.718	10	200.293	220.739	10
Aseguru primak	11.843	11.711	-132	-1	10.862	11.711	8
Eskualdaketak, EJD	23.657	25.481	1.824	8	23.626	25.481	8
Hidrokarburoen txikizkakoak	3	-5.002	-5.005	-166.833	3	-3.883	-129.533
<i>Zeharkako zergak, guztira</i>	<i>879.650</i>	<i>828.000</i>	<i>-51.650</i>	<i>-6</i>	<i>685.697</i>	<i>661.298</i>	<i>-4</i>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>1.601.493</b>	<b>1.602.502</b>	<b>1.009</b>	<b>0</b>	<b>1.232.743</b>	<b>1.232.376</b>	<b>0</b>

Haiek aztertuta, funtsean, honako hauek dira aipagarri:

a) Bi aldien artean, zergengatik guztira aitortutako eskubideek ez dute ia aldaketarik izan, milioi eskasekoa izan baita. Zuzeneko zergek ehuneko zazpi egin dute gora –ia 53 milioi–; zeharkako zergak, berriz, ehuneko sei jaitsi dira –52 milioi–.



b) Zerga figuraren araberako jokaera oso aldakorra izan da: PFEZak, sozietateen gaineko zergak eta zerga bereziek gora egin dute –ehuneko 10, 12 eta 10, hurrenez hurren–; hitzarmenaren doikuntzetan eta BEZaren kudeaketa zuzenean, berriz, behera joan da –ehuneko 13 eta zortzi, hurrenez hurren–.

c) Diru-bilketa garbiak, halaber, ez du aldaketarik izan, zeren eta zuzeneko zergetan izandako igoera –ehuneko bostekoa– zeharkako zergetan izandako jaitsierarekin konpentsatzen baita –ehuneko bost–. Zerga-figuraren arabera, honako hauek nabarmendu behar dira: PFEZak ehuneko sei egin du gora; sozietateen gaineko zergaren saldo zorduna ehuneko 46 jaitsi da, eta zerga berezietan ehuneko 10 igo da; BEZaren zuzeneko kudeaketa eta hitzarmenaren doikuntzak jaitsi egin dira diru-bilketa garbian, ehuneko 18 eta zortzi, hurrenez hurren.

#### B) Finantza-egoera 2015eko uztailaren 31n

#### 6.<sup>a</sup> Aurrekontu-betetzearen adierazleak 2015eko uztailaren 31ra arte, eta haien eta 2014koaldi beraren arteko alderaketa

Hurrengo taulan, aztertutako aldietan metatutako aurrekontu-betetzearekin lotutako adierazle eta magnitudeen bilakaera erakusten dugu; milaka eurotan adierazita dator, salbu eta berariaz eurotan adierazita dagoenean.

Adierazleak eta magnitudeak	2014ko uztaila	2015eko uztaila	Aldea (%), 15/14
Aitortutako betebeharrak, guztira	2.033.135	2.195.652	8
Likidatutako eskubideak, guztira	2.133.014	2.238.248	5
Hasierako gastu-aurrekontuekiko aldaketa %	2	2	
Gastuen betetzea (%)	52	56	
Diru-sarrerren gauzatzea (%)	55	57	
Ordainketak (%)	98	99	
Diru-bilketa garbia (%)	80	81	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	1.723.633	1.809.615	5
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	1.656.277	1.730.905	5
Finantza-zama (3.etik 9.era)	148.018	299.410	102
Inbertsioetan egindako gastuak (6. eta 7. kapituluak)	98.174	71.708	-27
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	210.788	314.329	49
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	1.694.012	1.694.544	0
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	1.677.160	1.670.669	0
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	97	92	
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	28.513	35.117	23
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8tik 9ra)	410.489	508.587	24
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-99.822	-151.662	52
Lehen mailako saldoa	-167.178	-230.372	38
Aurrezki gordina	37.735	-36.361	-196
Aurrezki garbia	-110.283	-335.771	204
Gastua biztanleko (eurotan)	3.173	3.430	8
Gastu arrunta biztanleko (eurotan)	2.690	2.827	5
Finantza-zama biztanleko (eurotan)	231	468	2
Diru-sarrera biztanleko (eurotan)	3.329	3.496	5
Zerga bidezko diru-sarrerak biztanleko (eurotan)	262	261	0

Nafarroako biztanleria 2014an: 640.790 biztanle  
Nafarroako biztanleria 2015ean: 640.154 biztanle

Aurreko ataletan iruzkindu ditugun ondorioez gainera, aurreko taularen azterketa eginda, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Nafarroako Gobernuak 2014ko eta 2015eko uztailaren gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	2014ko uztailaren 31ko zenbatekoa	2015eko uztailaren 31ko zenbatekoa	Finantzabidea	2014ko uztailaren 31ko zenbatekoa	2015eko uztailaren 31ko zenbatekoa
Langileak	31	30	Tributu bidezko diru-sarrerak	78	75
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	13	13	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	2	2
Transferentzien bidezko gastuak	41	38	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	3	3
Inbertsio errealak	2	2	Zorpetzea	17	20
Finantza-zama	7	13			
Finantza-aktiboak	6	4			
	100 €	100 €		100 €	100 €

- Gastu arruntak eta funtzionamendukoak ehuneko bost igo dira; diru-sarrera arruntek, berriz, lehengo maila berean diraute aztertutako bi aldietan.

- Finantza zamak ia bi halako hazi da; kapital-eragiketak (inbertsioak eta kapital-transferentziak), berriz, ehuneko 27 jaitsi dira.

- Zergen bidezko diru-sarrerak ez dute ia aldaketarik izan; horrek berarekin dakar haiek gastu arruntekin lotzen dituen ehunekoak behera egite (ehuneko 97tik 92ra).

- Aurrekontu-saldo ez finantzarioak zenbateko negatiboa (defizita) ehuneko 52 handitu du, eta 2015eko uztailan 152 milioiko baliora iritsi da, honako azalpen-taulan adierazitakoaren arabera (euroak, milakotan):

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	2014ko uztaila	2015eko uztaila	Aldearen %, 15/14
Diru-sarrera ez finantzarioak (1. kapitulutik 7. kapitulura)	1.722.525	1.729.661	0,41
Gastu ez finantzarioak (1. kapitulutik 7. kapitulura)	1.822.347	1.881.323	3,24
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-99.822	-151.662	51,93

Saldo negatiboaren igoera heldu da, funtsetik, gastu ez-finantzarioen igoeratik, zeren eta izaera bereko diru-sarrerak ez baitute ia aldaketarik izan.

- Lehen mailako saldoak <sup>5</sup> ehuneko 38 igo du bere balio negatiboa, eta 230 milioiko balio negatibora iritsi da. Zenbatekoa negatiboa izateak esan nahi du diru-sarrerak ez direla nahikoak gastuak finantzatzeko, nahiz eta horretan ez sartu gastu finantzariak, eta horrek berarekin dakar zorpetzera jotzen jarraitzeko beharra.

- 2015eko uztailako aurrezki gordinak<sup>6</sup> 36.361 euroko balio negatiboa du; 2014ko uztailan, 37.735 euroko balio positiboa zuen.

- Aurrezki garbiak<sup>7</sup> bere balio negatiboa bikoiztu du bi aldi horien artean, eta 2015eko uztailan 335.771 euroko kopuru negatibora iritsi da.

- Biztanle bakoitzeko adierazleetatik, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- a) Biztanle bakoitzeko gastuak ehuneko zortzi egin du gora; biztanle bakoitzeko diru-sarrerak, berriz, ehuneko bost igo da.

- b) Biztanle bakoitzeko finantza-zama, 2015eko uztailan, 468 eurokoa da, aurreko urteko epe berekoa baino ehuneko bi handiagoa.

- c) Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak ia ez dira aldatu.

<sup>5</sup> Lehen mailako saldoa: aurrekontu-saldo ez-finantzarioa ken finantza-gastuak.

<sup>6</sup> Aurrezki gordinak: diru-sarrera arruntak ken funtzionamendu gastuak.

<sup>7</sup> Aurrezki garbia: aurrezki gordinak ken finantza zama.

### 7.a Zergen diru-bilketa likidua 2015eko uztailaren 31ra arte, eta haien eta 2014ko aldi beraren arteko alderaketa

Nafarroako Zerga Ogasunak emandako informazioaren arabera, hurrengo taulan erakusten dugu Nafarroako Gobernuaren diru-bilketa likido<sup>8</sup> metatua, 2015eko uztailaren 31ra artekoa, bai eta haren eta 2014ko aldi berekoaren arteko alderaketa ere.

Zergak	Diru-bilketa likidua, 2014ko uztailan	Diru-bilketa likidua, 2015eko uztailan	+/- Diru-bilketa likidua	% aldea 15/14
PFEZa	508.093	535.051	26.958	5
Ez-egoiliarak	3.767	3.655	-112	-3
Sozietateak	-23.966	-10.234	13.732	-57
Oinordetzak	33.564	29.970	-3.594	-11
Ondarea	25.108	24.775	-333	-1
Beste zerga zuzenak	14.517	94	-14.423	-99
<i>Zuzeneko zergak, guztira</i>	<i>561.083</i>	<i>583.311</i>	<i>22.228</i>	<i>4</i>
BEZa	500.737	434.331	-66.406	-13
Bereziak	197.845	221.343	23.498	12
Eskualdaketak, EJD	24.205	28.269	4.064	17
Aseguru primak	10.861	11.868	1.007	9
Hidrokarburoen txikizkakoak	276	-3.837	-4.113	-1.490
<i>Zeharkako zergak, guztira</i>	<i>733.924</i>	<i>691.974</i>	<i>-41.950</i>	<i>-6</i>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>1.295.007</b>	<b>1.275.285</b>	<b>-19.722</b>	<b>-2</b>

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Aztertutako aldiaren diru-bilketa likidua ehuneko bi egin du behera; horrek ia 20 milioiko kopurua egiten du.
- Zuzeneko zergaren, nabarmentzekoa da PFEZak izan duen igoera -27 milioi-, bai eta sozietateen gaineko zergaren balio negatibo txikiagoa ere -14 milioi-.
- BEZari eta zerga bereziei dagokienez, hurrengo taulan xehakatzen dugu haren zenbatekoa, zuzeneko kudeaketaren bidezko diru-bilketa eta Hitzarmen Ekonomikoaren doikuntzen bitartekoa (euroak, milakotan):

	Diru-bilketa likidua, 2014ko uztaila.	Diru-bilketa likidua, 2015eko uztaila.	+/- Diru-bilketa likidua	Aldea (%), 15/14
Zuzeneko kudeaketa	91.526	108.926	-17.400	-16
Hitzarmenaren doikuntzak	342.805	391.811	-49.006	-13
<b>BEZa, guztira</b>	<b>434.331</b>	<b>500.737</b>	<b>-66.406</b>	<b>-13</b>
Zuzeneko kudeaketa	256.719	253.745	2.974	1
Hitzarmen ekonomikoaren doikuntzak	-35.376	-55.900	20.524	-37
<b>Zerga bereziak, guztira</b>	<b>221.343</b>	<b>197.845</b>	<b>23.498</b>	<b>12</b>

BEZean, zuzeneko kudeaketaren bidezko diru-bilketa ehuneko 16 jaitsi da -hau da, 17 milioi gutxiago dira-; Hitzarmenaren doikuntzetatik heldu denak, berriz, ehuneko 13 egin du behera -hau da, 49 milioi gutxiago-. Datu horiek 66 milioiko jaitsiera orokorra ekarri dute.

Zerga berezietan, zuzeneko kudeaketak ehuneko bat egin du gora -3 milioi- eta Hitzarmenaren doikuntzen bidezko diru-bilketa, berriz, ehuneko 37 jaitsi da -20 milioi-. Horrek 23 milioiko igora orokorra ekarri du.

<sup>8</sup> Diru-bilketa likidua: urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken eskudirutan eta konpentsaziotan egindako itzulketak.

**8. Nafarroako Gobernuaren zorpetze finantzarioa 2015eko uztailaren 31n.**

Kontabilitate-erregistroei jarraituz, 2015eko uztailaren 31ra arte, Nafarroako Gobernuaren kostu amortizatuko zorpetze finantzarioa, epe laburrekoa zein epe luzekoa, 2.969 milioikoa da. Horixe ikus daiteke hurrengo taulan, aurreko urteko epe bereko alderaketarekin batera (euroak, milakotan).

Nafarroako Gobernuaren zor finantzarioa	2015eko uztailaren 31n		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
Zor Publikoa	1.760.118	82.167	1.842.285
Maileguak	1.082.067	44.686	1.126.753
<b>Zorpetze finantzarioaren guztizkoa, 2015eko uztailaren</b>	<b>2.842.185</b>	<b>126.853</b>	<b>2.969.038</b>
Nafarroako Gobernuaren zor finantzarioa	2014ko uztailaren 31n		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
Zor Publikoa	1.889.030	196.531	2.085.561
Maileguak	686.969	202.704	889.673
<b>Zorpetze finantzarioaren guztizkoa, 2014ko uztailaren</b>	<b>2.575.999</b>	<b>399.235</b>	<b>2.975.234</b>

2014ko aldi berarekin alderatuta, zorpetzea sei milioi jaitsi da; hau da, ehuneko 0,21.

2014an, zor publikoak guztizkoaren ehuneko 70 egiten zuen; 2015ean, berriz, portzentaje hori ehuneko 62koa da. Maileguei dagokienez, portzentaje horiek ehuneko 30 eta ehuneko 38 dira, hurrenez hurren.

2014an, epe laburreko zorpetzea guztizkoaren ehuneko 13 egiten zuen; 2015ean, berriz, portzentaje hori ehuneko laukoa da.

Azken batez, bi aldien artean sei milioiko aldea dago, eta 2015eko uztailaren ikusten da zorraren egituratzea desberdin samarra dela: maileguek eta epe luzeak garrantzi erlatibo handiagoa dute.

Hurrengo taulan zorpetze horren adierazle batzuk eta bilakaera erakusten ditugu.

Nafarroako Gobernuaren zorraren adierazleak	2014ko uztailaren 31n	2015eko uztailaren 31n
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	175	176
Zor bizia biztanleko (eurotan)	4.633	4.648

Hau da, 2015eko uztailaren zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 176 ingurukoa zela. Biztanle bakoitzeko, berriz, 4.648 euroko kopurua egiten du.

**9. Sozietate publikoen zorpetze finantzarioa 2015eko uztailaren 31n.**

NEKPk emandako informazioaren arabera, enpresa publikoek kreditu-entitateekin daukaten zorpetzea, 2015eko uztailaren 31koa, 198 milioikoa da. Hurrengo taulan erakusten ditugu haren xehakatzeta eta aurreko ekitaldiko epe berarekin aldera izandako bilakaera:

Sozietate publikoek kreditu-entitateekin daukaten zorpetzea.	(euroak, milakotan)		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
2014ko uztailaren 31n	268.953	4.391	273.344
2015eko uztailaren 31n	174.728	23.560	198.288

(\*) Aldizkako pasiboa sartu gabe, epe laburrean ordaindu beharreko interesei dagokiena Bi aldietan, zorpetzeak ehuneko 27 egin du behera; hau da, ia 75 milioi.

2015eko uztailaren 31n, honako hauek dira zorpetze-bolumen handiena daukaten enpresa publikoak (euroak, milakotan).

Enpresa publikoa	Zorpetze finantzarioa 2015eko uztailaren 31n
NASUVINSA	19.286
CAT	42.000
NILSA	9.500
NICDO	24.210
SODENA	100.000

**C) Aurrekontu-egonkortasunaren helburuak**

Gai honi buruzko ondorioak atera baino lehen, zehaztu beharra dago, finantzaketa-premiak eta zorra, kontabilitate nazionaleko terminoetan, erreferentzia gisa Foru Komunitateko BPGaren magnitude ekonomikoa hartuta adierazten direla. Logikoa den bezala, 2015eko ekitaldia amaitu arte, ez dugu magnitude horri buruzko arrazoizko baliorik izanen; hori dela eta, aipatuko ditugun ondorioak hari buruzko zenbatespen batzuen arabera atera ditugu.

Halaber, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak hileroko finantzaketa-beharren zehaztapenetan egindako doikuntzak behin-behinekoak dira, zenbatespen edo proiektio bat baitira.

Gainera, Nafarroaren Hitzarmen Ekonomikoaren eta zerga-araubide berekiaren berezitasunak, eragin horietarako, ekitaldiarekin amaieran azaltzen dira beren osotasunean, urteko likidazioekin eta egin beharreko doikuntzekin.

Azken batean, Nafarroako Gobernuak igorritako informaziotik abiatuta, bai aipatutako Ministerioak bai Espainiako Bankuak egiten dituzten aldizkako txostenek –zorpetzeari buruzkoak– xede dute aztertzea, funtsean, aurrekontu-betetzeak izan duen joera, eta, kasua bada, kudeaketa dela-eta behar diren erabaki zuzentzaileak har daitezzen eskatzea, ekitaldirako ezarri diren helburuen betetzea bermatze aldera.

2015eko ekitaldirako, Nafarroako Gobernuak eta Gobernu Zentralak honako helburuak erabaki zituzten:

2015ean Nafarroan dauzkan aurrekontu-egonkortasuneko helburuak	BPG %
Finantzaketa beharrak	-0,7
Zorpetzea	18,3

**10. Finantzaketa beharra 2015eko ekainaren 31n**

Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren hileroko informazioaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta "Administrazio Publikoa" sektorea osatzen duten gainerako enteen finantzaketa-behar metatua, 2015eko uztaiera artekoa, 254 milioikoa da kontabilitate nazionalako eraginetarako (SEC 2010), eta Nafarroako BPGaren ehuneko 1,39 egiten du.

Magnitude horren bilakaerari dagokionez, hurrengo taulan erakusten dugu haren eta 2014ko epe be-rekoaren arteko alderaketa (euroak, milakotan).

Finantzaketa beharra-Kontabilitate nazionala (Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioa)	Zenbatekoa	BPG %
2014ko uztaiera arte metatua	-169	-0,96
2015eko uztaiera arte metatua	-254	-1,39

Nafarroako BPGa 2014an 17.594 milioi  
Nafarroako BPGa 2015ean 18.255 milioi

Hau da, 2015ean igoera bat antzematen da, bialdi horiek alderatuta, 85 milioi finantzatzeko beharra dela eta.

2015eko ekitaldirako, Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu Zentralaren artean adostutako finantzaketa-beharraren edo defizitaren helburua Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,7koa da; horrenbestez, uztaieren 31ra arte, zabal gainditu da ekitaldi osorako adierazitako helburua.

2015eko hilabeteetan, Foru Komunitatearen finantzaketa-gaitasunak (+) edo beharrak (-) honako bilakaera izan dute (euroak, milakotan).

2015eko hilabeteetan metatutako finantzaketa-gaitasuna/-beharra	Zenbatekoa	BPG %
Urtarrila	40	0,22
Otsaila	147	0,81
Martxoa	45	0,25
Apirila	51	0,28
Maiatza	-140	-0,77
Ekaina	-267	-1,46
Uztaila	-254	-1,39

Nafarroako BPGa 2015ean 18.255 milioi

Ikusten denez, maiatzetik aurrera magnitudearen ikurra aldatu da, eta data horretatik aurrera finantzaketa-behar bat sortzen da, kontabilitate nazionalaren eraginetarako. Hala eta guztiz ere, azkeneko bi hilabeteen artean 13 milioiko gutxipena antzematen da.

**11.a Zorpetzea Kontabilitate Nazionalako terminoetan, 2015eko ekainaren 30ean.**

Espainiako Bankuak 2015eko lehen seihilekoari buruz emandako txostenari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta "Administrazio Publikoa" sektorea osatzen duten gainerako enteen guztizko zorpetzea,<sup>9</sup> 2015eko uztailera, 3.586 milioikoa da kontabilitate nazionalako eragineta-rako (SEC 2010), eta Nafarroako BPGaren ehuneko 19,7 egiten du.

Zor hori eta haren eta 2014ko lehen seihileko zorraren arteko alderaketa honela azal daiteke xeha-katua (euroak, milakotan).

Zorra, kontabilitate nazionalaren arabera (Espainiako Bankua)	2014ko 1. seihilekoa	2015eko 1. seihilekoa
Zor Publikoa	2.094	1.851
Finantza entitateen maileguak	548	1.014
Beste mailegu batzuk	400	400
Elkarte publiko-pribatuak	324	321
<b>Zorpetzea, guztira (GDP) 1. seihilekoa</b>	<b>3.366</b>	<b>3.586</b>
BPG %	<b>19</b>	<b>19,7</b>

Aurreko alderaketa dela eta, ikus daiteke zorrak, oro har, 220 milioi egin duela gora; horrek 0,7 pun-tuko igoera dakar Foru Komunitatek BPGaren gainean duen garrantzian. Finantza-tresnen arabera, zor publikoa, 2015eko lehen seihilekoan, ehuneko 12 jaitsi da; finantza-entitateekiko maileguak ia bikoiztu egin dira.

2015eko lehen seihilekoko zor horretatik, "Administrazio Publikoa" sektorea osatzen duten sozietate publikoei 168 milioi inguru dagozkie; aipatutako sektorean sartzen ez diren gainerako sozietateek, data berean, 33 milioiko zorpetzea dute.

2015eko ekitaldirako, Nafarroako Gobernuak eta Gobernu Zentralak ehuneko 18,3ko zorpetze-helburua adostu dute.

Nafarroako Gobernuaren 2015eko ekaineko itxierako aurrekontu-informazioaren arabera –haren zenbatekoak ez dira aldatu ez uztailera, ez abuztuan–, honako hauek dira urterako zorpetze-aurreikuspenak (euroak, milakotan):

Finantza-pasiboak	Aitortutako zenbatekoa	Ordaintzeko dagoen saldoa (*)
Diru-sarrera/pasibo finantzarioak (zorpetze berria)	446.902	18.776
Gastu/pasibo finantzarioak (zorpetzearen amortizazioa)	220.700	86.528

(\*) Ordaintzeko dagoen saldoa: behin betiko aurrekontua ken aitortutako eskubideak/aitortutako betebeharrak.

Hau da, aurrekontu-aurreikuspenek erakusten dute, litekeena dela, 2015eko abuztura arte, 19 mili-oiko zorpetze berria hartzea, eta dagoen zorpetzetik 86 milioi amortizatzea. Aurreikuspen horiek betez gero, saldo garbiak 67 milioi gutxiagoko zorpetzea edukiko luke, eta horrek eraginen luke, bistan denez, zorrak Nafarroako BPGean garrantzi txikiagoa izatea. Halaber, Nafarroako Gobernutik adierazi digute-naren arabera, Espainiako Bankuak adierazitako zor horren barruan, diruzaintzako maileguei dagozkien 173,5 milioi badaude 2015eko abenduaren 31 baino lehen amortizatu beharko direnak.

<sup>9</sup> Gehiegizko defizitaren protokoloa (GDP) arabera.

**12.a Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epe orokorra**

Adierazle horren balioa, 2015eko uztailan, 3,86 egunekoa da, "Administrazio Publikoa" sektore osorako, kontabilitate nazionalaren eraginetarako.

Balio negatiboak, Nafarroako Gobernuaren webgunean adierazitakoaren arabera, erakusten du "batez beste arintasun handiagoa dagoela Administrazioak ordaintzeko garaian, legez faktura bati adostasuna emateko oro har ezarrita dagoen gehieneko epeari begira, edo, bestela, Administrazioak ordaintzeko zeuzkan eragiketak, batez beste, gehieneko epe horren aurretiko une batean daudela".

Webgune horretan argitaratu zen 2014ko lehenengo datua irailekoa da. Adierazle horren balioa 6,06 egunekoa zen.

Horrenbestez, bi aldi horietan zabal bete da hornitzaileei ordaintzeko epea dela-eta aurrekontu-egonkortasuneko araudian ezarritakoa.

2015eko abuztuan, ordaintzeko batez besteko epea 1,40 egunekoa da.

2015eko irailean, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak autonomia erkidego guztietako batez besteko epea, 2015eko ekainekoa, argitaratu du. Adierazle horren balioa 40,96 egunekoa da.

D) Aurrekontu-betetzeari buruzko datuen aurrerapena, 2015eko abuztuaren 31ra artekoa.

**13.a 2015eko abuztuko betetze orokorra.**

Abuztuko gastu berekiak 178 milioikoak izan dira; kopuru horretatik, 169 milioi gastu arruntari dagozkie. Diru-sarreretan, hilean aitortutako kopurua 358 milioikoa da; horietatik, 348 milioi zergetatik heldu dira.

Abuztuko guztizko gastuen eta diru-sarreraren arteko alderaketa eginez, 170 milioiko aurrekontu-superabit teorikoa ikusten dugu.

**14.a 2015eko abuztuaren 31ra arte egindako gastuak.**

Nafarroako Gobernuak abuztuaren 31ra arte egindako gastu metatuen azterketa eginda, adierazi behar dugu data horretara arte guztira metatutako betebeharrak aitortuak 2.374 milioikoak direla; horrek esan nahi du ehuneko zazpiko igoera gertatu dela aurreko ekitaldiko epe berarekin alderatuta –hau da, 147 milioi gehiago–, betetze-maila ehuneko 60koa dela eta ordainketen portzentajea ehuneko 99koa dela. Aurreko alderaketa xehakaturko dugu orain, kapitulu ekonomikoen arabera (euroak, milakotan).

Gastuen kapituluak	2014ko abuztuan aitortutako betebeharrak	2015eko abuztuan aitortutako betebeharrak	+/- betebeharrak	Aldea (%)
Langileak	718.266	742.940	24.674	3
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	294.915	323.248	28.333	10
Finantza-gastuak	67.356	78.825	11.469	17
Transferentzia arruntak	815.808	834.113	18.305	2
<i>Eragiketa arruntak, guztira</i>	<i>1.896.345</i>	<i>1.979.126</i>	<i>82.781</i>	<i>4</i>
Inbertsioak	45.961	43.968	-1.993	-4
Kapital-transferentziak	63.719	34.962	-28.757	-45
<i>Kapital-eragiketak, guztira</i>	<i>109.680</i>	<i>78.930</i>	<i>-30.750</i>	<i>-28</i>
Finantza-aktiboak	139.917	94.916	-45.001	-32
Finantza-pasiboak	80.662	220.700	140.038	174
<i>Finantza eragiketak, guztira</i>	<i>220.579</i>	<i>315.616</i>	<i>95.037</i>	<i>43</i>
<b>Guztira</b>	<b>2.226.604</b>	<b>2.373.672</b>	<b>147.068</b>	<b>7</b>

Nabarmentzekoa da nolako igoera izan den bai pasibo finantzarioetan (zorpetzearen amortizazioak) –140 milioi–, bai eragiketa arruntetan –83 milioi–.



Jaitsiera handienak dauzkaten kapituluak kapital-transferentzia eta finantza-aktiboena dira, 29 eta 45 milioirekin, hurrenez hurren.

### 15.a 2015eko abuztuaren 31ra arte betetako diru-sarrerak.

Diru-sarreraren betetzeari buruz, honakoa nabarmendu behar dugu:

- 2015eko abuztuaren 31ra arte metatutako eskubide aitortuen guztizkoa 2.597 milioikoa da; horrek esan nahi du ehuneko 7,5eko igoera gertatu dela aurreko urteko epe beraren aldean –181 milioiko guztizko igoera–, ehuneko 66ko gauzatze-mailarekin –aurreko ekitaldian baino lau puntu gehiago– eta ehuneko 87ko diru-bilketa garbiko mailarekin. Hurrengo taulak alderaketa hori agertzen du, kapitulu ekonomikoen arabera (euroak, milakotan).

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak, 2014ko abuztuan	Aitortutako eskubideak, 2015eko abuztuan	+/-Eskubideak	Aldea (%)
Zuzeneko zergak	923.656	997.813	74.157	8
Zeharkako zergak	946.398	952.918	6.520	1
Tasak eta prezio publikoak	84.777	77.043	-7.734	-9
Transferentzia arruntak	9.942	17.114	7.172	72
Ondare bidezko sarrerak	8.117	7.138	-979	-12
<i>Diru-sarrera arruntak, guztira</i>	<i>1.972.890</i>	<i>2.052.026</i>	<i>79.136</i>	<i>4</i>
Inbertsioak besterentzea	1954	295	-1.659	-85
Kapital-transferentziak	29.439	34.830	5.391	18
<i>Kapital-sarrerak guztira</i>	<i>31.393</i>	<i>35.125</i>	<i>3.732</i>	<i>12</i>
Finantza-aktiboak	55.087	62.555	7.468	14
Finantza-pasiboak	356.316	446.902	90.586	25
<i>Finantza eragiketak, guztira</i>	<i>411.403</i>	<i>509.457</i>	<i>98.054</i>	<i>24</i>
<b>Guztira</b>	<b>2.415.686</b>	<b>2.596.608</b>	<b>180.922</b>	<b>7</b>

Igoera kuantitatibo handiena duten kapituluak finantza-pasiboena –91 milioi– eta zuzeneko zergena –74 milioi– dira.

- hurrengo taulan adieraziko ditugu 2014ko abuztutik 2015eko abuztura metatutako zuzeneko eta zeharkako zergengatik eskubideak (euroak, milakotan).

Zergak	Aitortutako eskubideak, 2014ko abuztuan	Aitortutako eskubideak, 2015eko abuztuan	+/-Eskubideak	Aldea (%)
PFEZa	717.345	750.884	33.539	5
Ez-egoiliarak	4.084	5.292	1.208	30
Sozietateak	105.200	153.393	48.193	46
Ondarea	46.628	44.190	-2.438	-5
Oinordetzak	34.784	41.121	6.337	18
Besterik eta azkenduak	15.615	2.933	-12.682	-81
<i>Zuzeneko zergak, guztira</i>	<i>923.656</i>	<i>997.813</i>	<i>74.157</i>	<i>8</i>
Hitzarmen ekonomikoaren doi-kuntzak	391.811	342.805	-49.006	-13
BEZ zuzeneko kudeaketa	280.233	306.448	26.215	9
Bereziak	234.884	265.552	30.668	13
Aseguru primak	12.389	12.582	193	2
Eskualdaketak, EJD	27.066	30.860	3.794	14
Hidrokarburoen txikizkakoak	15	-5.328	-5.343	-35.620
<i>Zehar. zerg., guztira</i>	<i>946.398</i>	<i>952.919</i>	<i>6.521</i>	<i>1</i>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>1.870.054</b>	<b>1.950.732</b>	<b>80.678</b>	<b>4</b>

Datu horiek guztiak aztertuta, honako hauek dira aipagarri:

a) 2015eko abuztutik 2014ko abuztura zergengatik aitortutako eskubideek ehuneko lau egin dute gora; hau da, 81 milioi. 2015eko uztailan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, igoera hori milioi bat euro eskasekoa izan zen.

b) Beren eskubideak igo dituzten zergei erreparatuta, honakoak nabarmendu behar ditugu: Sozietateen gaineko zerga -48 milioi-, PFEZa -33 milioi-, zerga bereziak -31 milioi- eta BEZaren zuzeneko kudeaketa -26 milioi-.

c) Hitzarmen Ekonomikoaren doikuntzek ehuneko 13 egin dute behera; horrek 49 milioiko eskubide txikiagoak erakusten ditu.

• Hurrengo taulan alderatu ditugu 2015eko uztaile arte zergengatik aitortutako eskubideak eta 2015eko abuztuan aitortutakoak (euroak, milakotan).

Zergak	2015eko uztaile arte metatutako eskubide aitortuak	Aitortutako eskubideak, 2015eko abuztuan
PFEZa	627.984	122.900
Ez-egoiliarak	4.874	418
Sozietateak	62.759	90.634
Ondarea	41.613	2.577
Oinordetzak	37.252	3.869
Besterik eta azkenduak	20	2.913
<i>Zuzeneko zergak, guztira</i>	<i>774.502</i>	<i>223.311</i>
Hitzarmen ekonomikoaren doikuntzak	342.805	0
BEZ zuzeneko kudeaketa	230.192	76.256
Bereziak	222.813	42.739
Aseguru primak	11.711	871
Eskualdaketak, EJD	25.481	5.379
Hidrokarburoen txikizkakoak	-5.002	-326
<i>Zehar. zerg., guztira</i>	<i>828.000</i>	<i>124.919</i>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>1.602.502</b>	<b>348.230</b>

Hau da, abuztuan zergak direla-eta 348 milioiko eskubideak aitortu dira. Tributu-figuraren arabera, honakoak nabarmenduko ditugu: PFEZa -123 milioi-, Sozietateen gaineko zerga-90 milioi-, BEZa, zuzeneko kudeaketa -76 milioi- eta Zerga Bereziak-43 milioi-.

#### 16. Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 2015eko abuztuaren 31ra arte

2015eko abuztuaren 31n, magnitude horretan metatutako saldoa 29.095 euro positiboa da, hurrengo xehetasunen arabera eta 2015eko uztaileko datuarekin alderatuta:

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	2015eko uztaile arte	2015eko abuztura arte	Aldea (%)
Diru-sarrera ez-finantzarioak	1.729.661	2.087.151	21
Gastu ez-finantzarioak	1.881.323	2.058.056	9
<b>Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa</b>	<b>-151.662</b>	<b>29.095</b>	

Hau da, diru-sarrera ez-finantzarioek jokabide hobea -ehuneko 21eko hazkundera- izan dute gastu ez-finantzarioek baino -ehuneko bederatziko igoera-; horrek aukera ematen du 2015eko abuztuko saldo metatua, magnitude horretakoa, positiboa izateko. Ikur aldaketa horrek, printzipioz, berarekin ekarriko luke finantzaketa-beharren zenbatekoa gutxitzea, hilabete horren kontabilitate nazionalako eragine-tarako.



